


BERTOLDA

ETA

BERTOLDIN

**O
T
X
O
L
U
A
K**

ERALDUTA



AT-V.
972

M-4518
R-981

G. C. DELLA CROCE

A.T.V.
977



BERTOLDA'REN

MALTZURKERI ZURAK

= ETA =

BERTOLDIN'EN

TXALDANKERI BAREGAÑIJAK

GAÑO'TAÑ BERNARTA M.^A

(OTXOLUA)'K

ITALERATIK EUZKERALDUTA

BILBAO

VERDES ATXIRIKA'TAÑ EMETERI'REN IRAÑKOLEAN

1932

BERTOLD DA' BEN

MALTSURKERI SURAK

- STA -

BERTOLDIN' EN

TXALDAMIKERI BARBEGANIAK

ORDO TAS BERNAYATA MI

UTYOSIAK

STABRICE BERNAYATA

028178

STABRICE BERNAYATA MI

1911



LEN-ITZA

Ona emen, irakurle, idaztitxu baten batuta, EUZKADI egunerokuan zatika-zatika neuk aurtemin argialduriko "BERTOLDA ETA BERTOLDIN"-en jazokunak.

¿Idazti txatxaŕ au baño obarik ez-ete-neunkianentz idoro, euzkeralduta zuri eskiñiŕteko? Bai, urian. Egija autoŕtu: ba-dira basteŕetan au baño idazti edeŕagorik asko nok euzkeraldukoren begira; baña nik idaztiño au begiz jo ixan ba'dot, erderaz dauan zabaltasunaren bidez euzkerearentzako onura apur bat ateratiaren baño ezta ixan.

Orañiño, ba-dau idazti onek zerbait onik zabaltasun au berekiñian jadietsi ixan al ixateko, arte urtetsubari, arian, kimu baŕijak urteten dautsen antzera, BERTOLDA ETA BERTOLDIN'en edestijari be, zafa ixan aŕen, urte batian bai eta bestian be baŕdin, oindiño be edozein izkuntzatan irakaldi baŕijak daŕaikoŕ-eta.

Eleukian uste, biraŕba, beronen egiliak, Giulio Cesare Della Croce iŕaliŕaŕak, onen ospe andija ixango ebanik bere lantxu onek. 1550'gn. urtian jayo ta 1620'gn. il, bere erijotzako urte beratan egin ziran *Bertolda'ren maltzurkeri* ta *Bertoldin'en txaldankeri* edestijetako lenengo irakaldijak, idazti banatan. Antza, idazle a, Horatio'k bere Oleritiztijan aginduriko amaŕ urteko argiŕalkixun epiaren begira eguala-edo, Erijo'k eruan eban luŕetik Ospea jaŕayan ain uretik ebilkijola susmau be egin barik. Arin zabaldu ziran Della Croce'ren idaztixubok

Europa osuan, batez be ozte-lauaren afitian, eta laster agertu yakezan baña baldetzaliak be. Eurotariko batek, Camilo Scalligeri'k, *Cacaseno* edo dalako ixen itxusizkoren edestija geñu eutsan, eta afezkero *Bertolda*, *Bertoldin* eta *Cacaseno*-ren ixenaz dabiltz idazti baten batuta idazle bitzubon edestijak.

Baña euzkerara itxultzeko asmoz Itali'ra eskatu neban idaztijak, bat-batez alboratu dau Scalligeri'ren lantxu au, ta neuk be, egikera oneri zuzen eretxirik, beste ainbeste egin dot. Eztot uste ezer galdu dozunik, irakufle. *Cacaseno* 'ren edestitxubak jixunkei sundadun berein gauzatxu dakaz txaldankeri asko ta zuftasun ez ain askoren taftian, eta txaldankeririk jakin gura ixa-tekotan, naikorik dogu Bertoldin'en tentelkerijakaz. Beste zerbait be ba-dau onik italerazko idaztitxu bafiztau onek. Umientzako ustez egiñiko irafkaldi berezi batekua da, ta Della Croce'ren lanak berez edo irafkaldi askuaren efuz itxasiña darabiltzan zatafkeritxu batzuk, moztu egin difuz, eta oraingo aldiñan gogaikafi litxakezan ipuin eta esakuna batzuk be kondo-kondorik atera ta kendu. Beraz, ene irakufle on ofek, ezereen kezka baga ta txafik aufkiñuko eztozunen ardura barik irakufi daikezu euzkerazko idaztitxu au, ta, era berian, naiz-ta edozein umekondori be irakufteko emon, umientzako batez be antolaturiko batetik euzkeralduba dalako, ta euzkeraldueran antolatzañien asmua neure gogo ixan dodalako.

Bertolda, baseñiñar jatofa, iñori burubak emon leukijon lafa-gixon ezain eta matxafena, bakaldun jauregijan basuan baxen eroso ibilñen ikusiko dozu emen, bakaldunaren beraren eta jauregi-gixon gustijen afigafi ta omengafi. Aren uste-uste bako urteyera maltzufak, bakaldunari egin eutsez legez, zuri be zuft erazo egingo dautsube, ta aren esakuna ta onubak, zer auznaftu ta oldoztu emon. Bertoldin'en txaldankerijak, bafiz, naiz-ta gu bixi garean aldi onetan umiak eurak be umekeritzat eretxi, bañe eragingo dautsube, edo, besterik ezian, Markolbe'ren zuftasunaren eutsigafijaz, atsegin ixango yatuz.

Atsegin ixan; atsegin egin. *Atsegin egiñez irakatsi*, esan darue antxiña-antxiñatik, eta idaztitxu onek ezer jakingafirik edo ikaskafirik beronengan baldin ba'dau, erarik atsegingafifenaz irakasten dauala deritxot. Neuk euzkeraldueran, nire euz-

kereak kalte egin ixan leukijon, bialba; baña zure ontasuna ta azkaftasuna bialba dirala, ba-dakit utsen bat idoro dagixunian, ene irakufle on orek, ez-ikusi egingo dautsazuna, ta ezer ulefkatik aufkitzian, idazti onen atze-aldian ezafi dodan iztegira jo ta egonafi pizka bategaz ulefkazeko alegiñak egingo dozuzana. Idazti onetako esakunak euzkeralduteko, batez be, neure loñak ixan dodaz. Neure gogoz eta al ixan ba'neu, geure-geure esakunak baño eniñuzan nik ezafiko erderazkuen ordiazkotzat; baña neure alegiñak afen, batzuren batzuk baño ezin ixan dodaz imiñi, ta garafikuak Jaungoikuak berak bakafik dakijan legez euzkeraldu al ixan dodaz, eta gero neurekiñian emon ixan dautset esakuna antza.

Eta onenbestegaz eta euzkerearen zabalkundiari on egin dautsadalakuan, aguf dagitsut, ene irakufle, zure laguntzea eskaturik.

EUZKERALTZALIA.






BERTOLDA ETA

◦ BERTOLDIN ◦



A decorative border made of small black dots, forming a rectangular frame with ornate, symmetrical corner designs.

BERTOLDA



ALBOIN BAKALDUNAGAZ

Alboin, Longobardaŕen bakalduna, ija Itali osua-
ren jaube egin zan aldiĵan, eta bakaulkija Verona uri-
ĵan eukala, Bertolda eritxon baseŕiŕaŕ bat gerta zan
aren jaureĵian, gixon matxaŕa bera ta ezaña baño
ezañaĵua. Baña mazkal itxura onen ordeĵ, adimena
zoliĵa eban, eta itzetik-ortzera ta bete-betian erantzuz-
ten ĵakiñez ganera, baseŕiŕaŕik geyenak oi diran lez,
maltzuŕa zan eta amaŕuz betia.

Esteriĵaz gixon txikaŕa zan; buruba andiĵa eban
eta pirlua baxen biribiĵa; bekokija, kunkuŕa ta tximu-
ŕez betia; txingaŕa lakoxe goŕiĵak ziŕuzan begiĵak;
zurdea baxen luze ta latz bepurubak; belariĵak, astuen-
en gañaĵuak; abua, andiĵa ta okeŕ samaŕa, beko ez-
pana zaldiĵak lez dindilizka ebala; bixaŕa, okozpian
eta saŕatuba; suduŕa, kakua lakoxia, goraz-begirakua
ta suŕtziĵo andiĵakaz; basurdearen antzera ziŕuzan
agiñaĵak, eta itz-egiŕian urten-urten egiŕen ekijoĵaneĵ,
lapikoren baten irakiŕen eragoioela zirudijen; oñaĵak,
baŕiz, luziak eta garaubak; istaŕetan eroiĵan ĵaltzak,
miesa gordin nabaŕez egiñaĵak eta belaun-aldian bein

eta bañiz adobaurikuak; oskijak, jalgijak eta zurumadunak. Itz baten esan: Narkis'en (1) itzulietarakua zan gixon au.

Bakaldun aurian egozan jaun eta andiki gustijen erdi-erdifik igaro zan, ba, ene Bertolda au, ez txapelik erantzi, ez ezetariko gurkerarik egin barik, eta, uañez, bakaldunaren beraren albo-albotxuan jezañizan. Bakaldunari, bañiz, bijotz-berea ixanik eta ipuin-zalia, aldarte oneko bañegañiren bat ixan eñekiala irudiñu yakon, ixadijak askotan olako gorputz zatañekuetan doai berezijak soñtu erazoten diñuzalako, ta, bape asañatu barik, mañe-mañerik asi yakon iñaunka, ta ba-iñotsan:

—¿Nor zañut; noiz jayo ziñan; nundaña zara?

—Gixona nayatzu —erantzun eutsan Bertolda'k— eta amak erdi nindubanian jayo nintzan; nire eñija, bañiz, ludi onetakua da.

—Asabatzat eta ondorengotzat, ¿nortzuk dozuz gorantzakuak eta berantzakuak?

—Indijabak; sutan irakiñen daragoioela, lapikuan gorantz eta berantz, igo ta jatzi ibilñen jataz-eta.

—¿Ba-al-dozu añarik, amarik, anairik eta añebarik?

—Ba-dot aña, ta baña ama, ta anai-añebak be; baña gustijak itzi dodaz ilik.

(1) NARKIS.—Kepiso ibayaren semia ta Liñope lamiñearena. Bere burubari edef eretxiña, Oyañtzun ("Eco") eritxon lamiñeak eutson mañasunari destañia egin eutsan eta bere burubaz mañemindu zan. Osin bateko uretan bere arpegijari begira ta begira igaroten ziñuzan ordu luziak, eta onetara eguan baten, il egin zan iñufi baten onduan. Jainko-ixunak lora biguñtu eben aren gorpuba, ta onetara jayoriko loreari Narkis'en beraren ixenaz deritxo.

—¿Zelan diñozu *ba-dozuzala*, gustijak il ixan ezkerro?

—Nik etxetik urteyeran lotan itzi dodaz gustijak, eta onegañik diñotsut gustijak dagozala ilik. Lo datzana ta ilik dagonaren arñian alde gitxi, nik uste, atan be luari erijotzearen senidia esaten yako-ta.

—¿Zein da ixan lefiekian gauzarik laster ta ariñena?

—Oldozmena.

—¿Zein da ardaurik onena?

—Iñoren etxian edaten dana.

—¿Zein da iñoiz beteten eztan itxasua?

—Gixon zekenaren diruzalekerija.

—Gastiagan ixan lefiekian gauzarik itxusijena, ¿zer da?

—Esanekua ez ixatia.

—Salerosliak euki legijan gauzarik ezaingarijena, ¿zer da?

—Guzuña.

—¿Zein da etxian ixan lefiekian surik andijena?

—Otseñen min gaiztua.

—¿Nor da dañekianik ergelena?

—Bere buruba jakintsubenatzat daukana.

—¿Zeintzuk díra osatu eziñeko gatxak?

—Ergelkerija, bizijena ta zoñak.

—¿Nor da amari miña eñetan dautson arako semia?

—Kandelearen babila.

—¿Zelan egingo zeunke galbaian ura ekañteko txiztilik ixuri barik?

—Lefu arñian itxaron egingo neuke, ta ixotz egiñik ekañiko neusketzu gero.

—¿Zelan egingo zeunke txakurik barik erbija atxikitzeke?

--Egosita egon dañian artian itxaronda.

—Garun onekua zara-ta, ¡tira!, eskatu zeu zer gura, otu dakixuna emoteko geñtu nayagotzu-ta.

—Norberenik arian be eztauanak ezin emon legijo ezer iñori.

—¿Zer dala-ta ezin emon negixu nik zuri opa dakixunik?

—Zorijon bila nabil ni; zu ain-bakua zara-ta, ezin emon ziñeist arian be.

—¿Ez-ete-naiz ni, ba, zorijoneko, bakaulki garai onetan jezarí al nafekiala?

—Gorengo jezarñten dana, bera jausteko be urien dago, ta baña amiltzeko be.

—Begiratu zenbat jaun eta andiki yagotazan inguruban, neure adi ta neuri omen egin gura.

—Iñurítzarak be zugatz inguruban ibilñen dira, ta mirizka-mirizka azala jaten dautse.

—Ni, jauregi onetan, ixar txikijen artian eguzkija baxen diztikoña nayatzu.

—Egija diñozu; baña zurikerijak ilunduriko asko dakustaz nik.

—Esan; jauregi-gixon ixafia gura ixango ete-zeunke?

—Azke bixi danak eztau bilatu biar atxilo ixaterik.

—¿Nok erazota etoñi zara ona, ba?

—Bakalduna beste gixonak baño amar edo amabi oin garayago edo-dala uste ixafiak erakarí nau, eta etxe gustijetarik elexako kanpantorñiak urteten dauan

antzera, gixaseme gustijen ganetik bere buruba agertu leukiala begifandutiak be bai. Baña, dakustanez, bakaldun ixan ařen, osterantzeko gixonen bestekua zara zu zeu be.

—Esterijaz bestien gañakua nozu, bai; baña aginpidez eta aberastasunez, amar oin barik, baña eun eta anei beso be ba-dot nik urteten bestien ganetik. Baña zuri nok edo zek eragin dautsuz olako gogaketak?

—Zure zergarijaren astuak.

—¿Zer dauko zer-ikusi nire zergarijaren astuak jauregi onetako andifasanaz?

—Astuak ba-eban egin ařantzaz zu ta zure jauregi ta jařaigua ixan baño lau mila urte lenagotik be.

—¡Kar, kar, kar...! ¡Bařerik egin barik zeugaz, orařiño!

—Zoruen abuan bařia ugari beti.

—Zu baseřiřar maltzur bat baño etzara.

—Ixakeraz ixan neu olakoxia.

—Ara; —eske antzera agintzen dautsut— kendu zakidaz begijen auřetik ointxe berton, osterantzian jauřti egingo zařut kanpora, zeure kaltegaři ta lot-sagaři.


—Neu juango naz ni; baña uařtu egikezu eulijak ixan oi daben jokerea: kanpora jauřti ařen, atzera etoři dakije egifen, eta ni be zuk kanpora jauřti ařen, atzera etořiko nayatzu gexu baten zeuri alamena emoten.


—Zuaz bein edo bein; eta eulijak eurak egifen daben antz-antzera etoři ezpa'zatxatost atzera, buruba ebagi dagixubela egingo dot agindu.

The first part of the report is devoted to a general
 description of the country, its position, and its
 resources. It is then divided into three parts, the
 first of which is devoted to a description of the
 country, the second to a description of the
 population, and the third to a description of the
 government. The first part is the most important,
 as it contains the most valuable information
 regarding the country, its position, and its
 resources. The second part is also of great
 importance, as it contains the most valuable
 information regarding the population, its
 habits, and its character. The third part is
 of less importance, as it contains the most
 valuable information regarding the government,
 its constitution, and its laws.



Bertolda baseñafar bat zan, matxara eguno ba'da ta itxusija ezin ge-
yaguan, baña bai maltzura be, ta laster eta zoñotz erantzuten ekijana....





BERTOLDA'REN MALMUZKERIJA

Urten eban, ba, ene Bertolda'k, eta etxera juanik, an eukan asto zaí-zaí bat ar̄tu eban: asto bat bizkaía ta sayetsaldiak aragi bizíñan eukazana ta eulijak jan-jan egiñik eguana; ta ganera igonik, bakaldunaren jauregira juan zan baíro, miloe bat eulik eta mando-eulik lagun egíñen eutsela. Euli gustijok egíñen eben edoyaz, baíz, ozta-ozta zan agiri baíuban gure gixona, ain zan saratuba eulífedija. Eldu zan bakaldun auíera, ta ba-diñotso:

—Aemen ni baíro, ene bakaldun enia.

—¿Eneutsun nik esan eulijak eurak lez ezpa ' zintxatozan, buruba kokotetik ebagi eragingo neutsula?

—esan eutsan bakaldunak.

—¿Eulijak eztira ibilñen aragi ustelaren ganian, ala?

—Bai, ba-dira ibilñen.

—Zeuk ikusten dozunez, ba, ona emen ni be eulija bai'nintzan, naraturik daguan arafustel onen ganian baíro zugana etoírrik, lagun dodazan eulijok

astua ta bijok jan agiñian gaukezala. Baña, tayu onetan iraun eta etoñi ba' nayatzu, zuri emoniko itza jabotiañen baño ezta ixan.

—Gixon zuña zara eta beraz, parkatu egiten dautsut. Eta, zubek, eruan gixon au eta jaten emon.

—Eztau jan biar eskuañteko lana oindiño amañu eztauanak.

—¿Zer, ba; besterik esateko al-daukastazu?

—Eztot oindiño asi be egin.

—Tira; kendu egidazu begijen auñetik asto atsifñu ori, ta zeu be nora edo ara aldendu zakidaz. Emakume bi dakustaz onantza datoze, ta entzualdi baten eske ete-yatoñdazan nago. Euroen arazua amañu dagidanian ekingo dautsagu bañiro alkañegaz autubetan.

—Ba-nua, bai; baña, zain, gero, epai zuzena jauñti dagixun.

Etoñi ziran, ba, andra bitzubok bakaldun auñera, eta euretarike batek burubegifañu bat ostu ixan eutsan bestiari. Burubegifañubaren jaubiari Aurele eretxon; ostu ebanak, bañiz, Lixe eban ixena ta burubegifañuba eskubetan ekañen. Aurele'k, bakaldun auñian zalakuntzea egiñez, ba-diñotso:

—Jakin egixu, ene jaun oñek, andra au nire lo-gelan sañtu zala bañt, eta eskubetan daukan leyañezko burubegifañu au ostu eustala. Bein eta bañiro ta askotan egin dautsat nik eskatu, baña ukatu egiten daust beronek eta eztaust biguñtu gura; eta onegañik, zuzenkintzea egin dagixula eskatuten dot.

—Ezta ori egija—esan eban Lixe'k—Oindiño ez-tira egun batzuk baño burubegifañu au neure dirubaz

neuk-neuk erosi nebala, eta eztakit azañtu be zelan egifen dan berau beronena eztan gauzarik inñori eskatuten.

—¡Au be entzun egin biar!—jardetsi eutsan Aurele'k—Ene bakaldun zuña, ezegixuz siñistu onen guzuzeko berbak, andra au barubako eta siñistebako lapur ezagun-ezaguna yatzu-ta; eta, ganera, jakin egixu ene jaun altsu orek, ludi osoko uriagañik be enebala nik zirkiñik egingo neuria eztodanik eskatuten ona etoriteko.

—¡Bai; zereko baruba!—inñuan Lixe'k—¡Zuzenbidez dabilena norbera dala esatia baño beste siñispiderik ezpai'leguan...! Baña, emen, epaikari zuzen baten aurian gagoz bijok, eta laster dau onek igarini erubakua nazana ta zu, bariz, eruduna ta guzurti utsa zareana.

—¡Luña!—egin eban oyu Aurele'k au entzutian—¡Zergañik etzara berperton idegifen andra zifal au iruntsifeko, neuria dodan gauzea arpegi-andijaz ukatuez ganera, zuzenbidez dabilena bera dala esaten daragoio-ta? ¡Zeruba; añen, agertu egixu jazokera onen egija!

—Tira, tira; baretu zafeze—esan eban bakaldunak;—neuk itziko zafubedaze lasa begi-itxi-edegi baten. Zubek, ene gixonak, arñtu burubegifalu ori eta zati-zatifan apurñtu. Emon gero zatijok erdi bana andra bakotxari, ta onetara bitzubok geldifuko dira pozik.

—Ez, ez—urten eban Aurele'k negar-agiñian—Apurñtu baño mila bidañ gurago dot beroneri osorik emotia, onen burubegifalu ederik ausifa ikusfia ezin

jasan ixango neukelako; eta nok daki, ba, egunen baten, egin dauanaz damututa, beronek biguñtuko ez-ete-daustan. Beraz, osorik eruan dagijala burubegiñaluba etxera eta gure auzija amañu dedila.

—Nik, bañiz, ondo deritxot bakaldunaren epayari—esan eban Lixe'k.

—¡Auntxe—egin eban oyu bakaldunak—auntxe ikusten dot burubegiñalu au, bene-benetan, apuñtutzerik gura eztauan onena dala, beronen negańak, beronen malkuak eta beronen eskarijak argi erakusten daustelako jaubia berau dana eta ori, bañiz, lapuñetea egin dauana! Beraz; emon oneri beronen burubegiñaluba ta jauñti emetik beste ori lotsagañiro.

—Eskeńak dagitsudaz bijotz-bijotzez—esan eutsan Aurele'k,—zure zuñtasuna dala bide, andra onen zapuzkerija ezagutu dozulako, ta zu lango epaikari zuzenari yagokanez, epai ezin artezagua jauñti dozulako. Orain eta beti eskatuko dautsat zeruko Jaunari osasunez jagon zagixan eta zeuri opa dakixuzan zorijon gustijak emon dagixuzan.

—Zuaz baketan—esan eutsan bakaldunak—eta on-onø ixateko alegiñak egin beti.—Eta jauregi-gixonai zuzenduz, ba-eńaikijon.—Ezagun-ezagun da burubegiñaluba beońena ixan dala, ta emakume ońek egin diñuzan negańak ixan dodaz ezaugañirik onen egi au argi ikusteko.

—Negańak eztira ezaugañi on, ene bakaldun enia—egin eutsan Bertolda'k, bakaldunaren esanari bańe egiñaz.

—¿Zergańik ez-ete-dira, ba?

—¿Emakumien negarai siñistu egifen dautsezu, oyez?

—¿Zer dala-ta eztautset siñistu biar, baña?

—¿Ez al-dakixu, osterá, andren negará amárukeri utsa baño besterik eztana, ta esaten naiz egifen daben gauza bakotxa malmuzkeriz egiña ixaten dana? ¿Aurétik negar egin áren, atzetik baře egifen dautsubena; ta uste oi daben iruntzietara itz-egin eta itz-egin oi daben iruntzietara uste ixan egifen dakijena? Órein malkuak eta negarák, órein ai-eniak eta laríjak, órein ziñuak eta pariztak, eztozuz orixe baño: malmuzkeri, iruzurkeri ta saldukeri utsa, baruban daruezan askogureak eta ase-eziñeko griñak beteteko olakoxiak ixaten erazota dagozalako.

Eta bakaldunak esan eutsan:

—Zuk andrai irañez ezarfen dautsezun akatsetarik zerbait euki legijenik eztautsut ukatuko; baña emakumak, berez, on utsak dira, eta zentzudunak eta zurak. Makaltasunez-edo iñoiz edo bein andraren batek oben egin áren, atxakigarí dira, gixonen aldian samuraguak diralako eta olako utsetan jauskořaguak. Baña, esan egidazu; gixonen batek emakumietarik osoro aldenduta bixi ixan gura ba'leu, ¿ez al-zenduke esango burutik eginda dagola? Emakumiak, ezer baño ariago, senará dau maře; semiak jantzi, azi ta ezi egifen difuz, eta mendu oneko egin. Emakumia dozu etxeko ardurea daukana, gauzeari iraun eragifen dautsana, sendija jagoten dauana, otseñai biar eragifen dautsena, ta etxera etóri lefezan gora-bera ta nastiai, auréztik ikusijaz, arpegi emoten dautsena. Emakumia

zañai atsegingaíri yake ta umiai pozgaíri. Mañatzen zintzo, autubetan samur, jardunian mazal, egijunetan argi ta agintzen zur yatzu emakumia; esangiañia ixaten, bañiz, gertuba, esakeretan begiratsuba, egikeretan artetsuba, jan-edanetan gañtzuba ta ataldekuakaz adeitsuba. Itz baten: emakumia, gixonaren albuan, urerik garbijenetan josiriko aribitxi ditzikoña dala esan leñeke, ta zorakeriz edo ganorabakokeriz bat edo bat jausi añen, mila ta mila daukozuz andrak bata baño bestia obiaguak eta zinñuagak.

—Ondo mañe dozuz zeuk andrak; bai bein—ba-diñotso Bertolda'k—Zeuk egin dozun berbaldija entzutia baño eztago euren alde zagozela ikusteko. Baña, ¿zer esango zeunskit bijañ lotara juan orduko zeure eretxi ori aldatu erazoko ba'neutsu?

—Gaitz deritxot; baña olakorik erazo ba'ziñeist, ludiko gixonik andijena zareala esango neuke.

—Bijañ arte, oñezkero.

Eta iluntzia zanez, bakaldunak bere gelarantz alde egin eban, eta Bertolda, apalduta gero, gau atakoz zaldiñegira juan zan lotara, ta ba-eragoion azerikeriren bat nondik asmauko, andren alde esaniko berbak bakaldunari jan erazoteko. Bururatu yakon zerbait azkenian, eta axe egin añtian lañi, bi-jaramonari luze eretxiña, luak añtu eban.

Eguna etoñi zaneke, jagi zan Bertolda lasto añterik eta bakaldunaren epayaz ondo urteniko andrearen bila juanik, ba-diñotso:

—¿Bakaldunak zer erabagi dauan, ba-al-dakixu jakin?

—Ez nik ezertxu bere, zeuk esan ezik—erantzun eutsan Aurele'k.

—Burubegifałuba apuřtuteko agindu dau, lenen-gotan esan eban lez, eta aren erdiya beste andreari emoteko. Antza danez, ak andreak, zure alde z jauritiriko epaya okertzat arćurik, bakaldunagana jo dau bařiro, ta bakaldunak olako matrakalarik geyago ez entzuteko, zorijoneko burubegifału ori zatifutia gura dau orain, bata ta bestia kifu geldifu zafezen.

—¿Zer diñostazu? ¿Bakaldunak agindu dauala nire burubegifałuba austeko? ¿Berberak ez-ete-eban, ba, neuri oso-osorik biguřtuteko epaya jauriti? Nire lepotik baře egin gura zatoz, oyez. ¡Zuaz orćtik!

—Eneuke gura nik, ba, txaragorik etoři dakixun.

—¿Txaragorik? ¿Zer legoke niretzat ori baño txaragorik, ba?

—Gixon bakotxak zazpi andra arćtu dagikezala agindu dau bakaldunak: txaragorik ala onagorik, zeuk begiratu orain. ¡Ezta ixango etxietan ondamendi makala ainbeste andragaz!

—Baña, ¿zer dantzut? ¿Gixon bakotxak zazpi andra euki legizala? Uriko burubegifału gustijak apuřtu eragifia baño askozaz txarago da ori; bai, eguno ba' da. ¡Oi! Baña, ¿zer burutaldik jo dau bakalduna beingo-beinguan?

—¡A! Besterik ezin negixu nik esan, eztakit-eta. Neuk entzun dautsadan-dautsadana diñotsut nik, eta, orain zeuberi androi yagotzube artiak arćtu bira, gatxak auřerantz biderik egin eztagijan.

Eta kana ta erdiko ziri eder au sarćturik, ene

Bertolda aldendu zan andreaganik eta jauregira juan zan ostera be. Gabera orduko txiripiñak eta jigotifiñak ixango edo-zirala eritxon, eta patxaraz itxarotia baño beste biarik ezeukan etorkixunok ikusteko.

Aurele'k bariz, buruz-belari sinistu eban Bertolda'k esan eutsana, ta gixon au aldendu zanekeoxe, auzoko andrakana juan zan arapaladan Bertolda'ri entzunikua esaten. ¡Areik entzun eben entzutekua! Asare bizitan jari ziran ots-otsean, jo goyak eta jo beiak eta begi-jak be su. Ordubete gareneko eri osuak ba-ekijan jakitekua ta bi mila andrazko baño geyago ba-egozan batuta batzar egiten. Eta otoz-otuan etorkijuen arazo zorigogoreko onegaz luzaro ta garatz erausi ostian, alkarregaz juan biar ebela gustijak bakaldunenera erabagi eben, eta an, bakaldun aurian, garaxijaren-garaxiz eta diadaren-diadarez, euren ala ezin leukiala ezer egin bakaldunari erakutsi ta lege emon-barija beingo-beinguan atzeratu erazo. Amuruz bitsa erijuela ta asaretan irakiten eldu ziran, beraz, jauregira eta an, aldabatera gustijak, erakusmeneko diadak egiten asi ziran eta oyu ikaragarriak ateraten. ¿Nok uletu ezer eurai? Bakalduna goituta eguan ija zaratokaz, eta zeri baña zeri ixan ete-eikijon zarapara au igari ezinik, buruba nastau ta abua zabalik arituta gelditu zan. Baña gerogaenian senera etorita, olako bigurikeririk bere aurian irautia bakaldunari biar yakon lotsona galtzia zala-ta, asaratu zan egunoko indaren, galdu eban aldian eukan eruapen apura, eta, amuruz beterik arpegija be belegi-belegi eginda, ba-diñotse andrai gogor eta garatz:

— ¿Zeri dira gañaxijok, edo nondik norakua da matxiñada au? ¿Nok añanok jañi zañubez oñetara burutik eginda? ¿Zetatik soñtu da iskanbila au? Ala demoñjuak yabiltzubez bañuban? ¿Zer zorigaiztok jo zañubeze? Esan, esan, bein edo bein, andra diabruok!

— ¿Zeri diran gure gañaxijok? —urten eutsan andra batek, gustijetarik lotsagaiztuena ta amuñatubena— eta zuri otu yatzun burubakokerija, ¿zeri edo zetarako da, ba? Ala goyanengotik eginda zagoz gixon bakotxak zazpi andra añtu dagixala aginduteko?

— ¿Zer irain egin dautsubet; zer zoritxañ ekañi dautsubet nik? ¡Eñan argi ta garbi!

— ¿Oindiño be? ¿Eztautsugu esan, ala?

— Eztot ezer uleñtu; esan bañiro.

— ¿Goñtuta zagoz, ala; goñtuta? ¡Eztago goñik goñagorik entzun gura eztauana langorik! Bañiren-bañi diñotsugu, ba, ta adifñu ondo: astakeri andi bat egin dozula gixon bakotxak zazpi andra añtu biañ difuzala agindutiaz! Oba zenduke bakaldeñiko arazuai jaramon geyago egin, zuri ardurarik eztautsuben gauzetan sañtu barik!





BAKALDUNA TA EMAKUMAK

—¡A, eskeritxaŕeko andra nabaŕmenok! — egin eban oyu bakaldunak—¿Noiz agindu dot nik olakorik? ¡Alde, alde nire ondotik ointxe bertan eta zuaze inpernuko ondaratará, madari-madari, alamenekuok, alakuok! Auntxe ikusi dot argi «andrea» diñonak «balbea» esan gura dauala, balbeak berak baño zoritxaŕ geyago ekaŕi daruazubez-ta. «¿Emakumia?» «Satoŕkumia» obeto yagotzube zubei, satoŕen antzera solo ta basteŕ itxulastu ta azpikoz-ganera iminŕen dozubelako. Etxe baketsuren batetik alde eragifŕen dautsubenian, basteŕetan aurkifŕu daikezubezan zataŕkeri ta naste gustijak eskubereaz batu ta etxe atara bertara jauŕti oi dozubezanok; edozein etxetan saŕtzian, zeuben griña ta lera txaŕen suba ta gaŕa aldian daruazubenok; ¿zer zarie zube onik, txaŕa baño? Iruzuŕkeri ta saldukerizko sastegijok; inpernuko lezea baño txaŕaguok, zeuben senaŕ gixagaxuai inpernuan bertan baño negaŕ eta alarao geyago eragifŕen dautsezube-ta; ut oŕtik, atsifŕu-atsifubok! Aŕaren galgaŕija, amaren negaŕgarija, anayen lazkerija, aidien lotsagaŕija, etxeko ondamendija, eta itz baten esateko, gixa-

seme gustijen naigabia ta loía baño etzarienok; zua-
kidaze emetik mila aíanogaz zeuben galdumendija-
rako ta etzakidaze nire begijen auñian eguno agertu!
¡Au ixan da zaratazkua! ¡Ako zaía paírea atera dabena
andra zoro ergelok, eta ezeri eztala, atan be! Baña,
nik jakingo ba'neu jakin zifalkeri au asmau ixan
dauana nor ixan dan, bere-beriak aítuko leukez,
irabazi be egin difuz-eta.

Emakumak juan ziranian bare samar gelditu zan
bakalduna, ta orduban Bertolda, zalapaíta gustijak
nasai ikusteko eskutauta egon zan zokondotik urten-
ik, ba-dua bakaldun auñera ta ba-diñotso iribañez:

—¿Zer diñostazu, ene bakaldun enia? ¿Eneutsun
nik baít esan, zuk atzo andren goralbenez irakuñi
zenduban liburuba, gaur lotara orduko iruntzietara
irakuñiko zendubala? Auñ, ba; andrak eurak etsi
erazo dautsube.

—¡Oreín burubaren baíabana!—erantzun eutsan
bakaldunak—¡Zazpi andra gixon bakotxak aítu biañ
difuzala egin dodala nik aginðu; asmau be egifia!
Amesetan be etxatan eguno olako diabrukeririk buru-
ratuko. ¡Bedañ txara dira oreik; piztirik okeírenak!

—Ba-dakixu, oyez, zu ta bijon aítian dogun egi-
junea.

—Bai; gomutaten naz atzokuaz, eta artez ziraus-
tan, ba-dautoít. Baña, zatoz ona; jezañi zakidaz neu-
gaz ementxe bakaulki onetan, irabazi be egin dozu-ta.

—Mañasun eta jaubetzak, oba lagunik ezak. Oba
dozu zeuk bakañik aginðu, jaun eta jaube bakaña
zeu zara ixan be ta.

—¿Zeu ixan ete-zara, gero, ziripaña onen asma-tzalia?

—Ondo igarí dozu zuk ori lenengotarik; baña alan, be, eziñ ziñeist ezetariko zigorik ezañi, asmakeri au neuk emon neutsun berbea betetako baño ezta ixan-da.

—Gogo oregaz baño ixan ezpa'da, parkatu egifen dautsut. Baña esan egidazu, ia, zelan gertu dozun diabrukeri au.

—Ezin ezezago: zuk burubegifaluba emon zeun-tsan andreagana juan eta arexeri esan dautsat gixon bakotxak zazpi andra aritzeko egin dozula zuk agindu. Beste barik, erlien antzera batu dira beingo baten eriko andra gustijak, zurumuñuka ta usobiloka, ta, ona etoririk, zeuk entzun dozuzan oroe ta ulubak atara erazo dautsedaz.

—Asmatzale ona zara oratiño —esan eutsan ba-kaldunak— baña okeña be bai; eta gaur zuk egin erazo dozun bigurikerijak ba-leukian amai onik ez ixatia. Andra gaxuak, zijo bat ezeze, mila be euki ditubez nire aurka asare eragoteko. Neuk ikusi ezpa'neu, eneukian siñistuko andrak oren buru gitxikuak diranik, zijo andiren bat euki ezik olako abarotsak aterateko. ¡Bai otu be zeuri akiakulu ezin obia androi neure ala amuratu erazoteko! Eta arei ezeze, neuri be erazo egin daustazu emakumien aurka inon diranak esaten. Ludijan diran ure gustijakafik be eneukian, ba, olakorik esan gura ixan, ta esan ixanak min eragifen daust, eta damu be ba-yat. Atzera diñotsut, beraz, andrea onbidezko ifurija dala, mafasunezko ibaya, ekandu onezko baratza, samurtasunezko mendija,

txairotasunezko zelaya, adefasunezko landea, ontasunezko toña, eta iraunkoña ta zintzua ixaten, bañiz, itxasoko ugiñak, gau ta egun, jo ta jo daragoioen atxak eurak baño sendo ta zinduagua. Eta nire adizkide ixan gura dagijanak ezpegike iñoiz emakumien aurka muñtik atera, eztautselako areik iñori gatzik egifen, ez ezetariko iskilorik iñoiz erabilfen, ez-ta iñoren iribañerik ez ederik bilatzen. Orez ganera, ene gixona, emakume gustijak dozuz mazal, samur, bijotz-bera, ez-titsu, otzan, mañagañi eta ixan eta asmau leikezan mendu onaenakaz ornidubak. Ba-dakixu, beraz: ez niri andren ala bañiro asañatu erazo, ebagi egingo zendukedazalako, osterantzian.

—Egon ardura barik;—erantzun eutsan Bertolda'k— ni neuk eztautsat kitaña oñeri soñu geyagorik aterako. Urengorañte itxaron egin biraño, ta arñiatan adizkide ixango.

—Bai; ba-dakixu arako esakereak diñona: dabilen urari ta tximiñuari, agiñik ba'dagiriyo, urun akiyo.

—Oñañño be, ur lotubari ta abo itxijari, ago befi adi.





BAKANDEREAGAZ

Bakaldunak eta Bertolda'k onen lautasun andiz autubetan eragoioela, geznari bat eldu zan bakaldunari esaten bakandereak Bertolda ikusi gura ebala eta, a'ren, aren gelara bialdu egijala. Antza, bakandereak, egun atan jauregijan jazo zan iskanbilearen ba'ri entzun ebanian eta andren ixekaz Bertolda'k eragiñikua zala jakin, amuru bizija artu eutsan gure gixonari ta lepo betenak emon biar eutsazala erabagi eban berekifian. Bakaldunak emaztiaren eskabidia entzutan, ba-diñotso Bertolda'ri:

—Bakandereak ikusi egin gura ei zafuz, eta zure eske bialdu dau mandatari au.

—Mandatarijak, ona baxen sa'ri, txara leike eka'ri, —egin eban Bertolda'k esakuntsu.

—Gaizkiliari, ba'ruko arak, sa'ri begijetara negar'ak —jardetsi eutsan bakaldunak.

—Jauregijan ba're dana, base'rijan negar' lefe; ola-ko ba'rerik eztot nik neuk mafe, — ba'riz Bertolda'k.

—Aztamakila ar'terik be, erubakua, bildur' barik igaro dua.

—Andra asarédun, su-gar' uyadun eta sartagi ipur'fautsi, oba bertanbera utzi.

—Kalte dagijanak, bixara lepuan.

—Zangu'rubak beñola, sartagifik ijuti; bixiko zalakuan txingar'etan jausi.

—¿Gaiztakeriak erein eta zorijonak uzta? Ene ustez, ozta.

—Buruiko zuri poliña, andren ede'gar'i; askotan ixan oi da ezkabi estalgar'i.

—Nastau dauanak askatu dagijala mataza ori.

—Ezta e'ez jardutia mataza askatuten, buru bijak ba'dagoz marapilo baten.

—Ez eta oñutsik ibilñen, arantzak ba'dira ereñen.

—Norbera baño senduagua alpe'rik da gudukatu; geunetan jausiriko eulijak, ¿zelan mismaua uxatu?

—Ez bildur' ixan, ene gixona, kalterik iñok eztautsu egingo-fa.

—Agin ataratzaliari agiñak miñik ez.


—¿Bakandereak txar'ik egin dagixun bildur' ete-zara, ba?

—Andre asarez betia, itxaso baste'gabia.

—Emakume adeitsu ta mazala dozu nire emaztia, ta zu ikusteko joranez dago. Tira; poztu zañez eta zuaz alai, ezeren kezka barik.

—Azkenez be, ¿zer ixango da geyenez? Bañiaren-bañez gixaxo au negarez.

Nai ezian ba'zan be, juan zan, edo eruan eben ene Bertolda bakandereagana. Len esan dogunez, bakanderea aspe' gura ebilkijon Bertolda'ri andrai egiñiko iruzur'kerija zala zijo, ta makila sendo batzuk



Etxian eukan asto zañ-zañ bat aitu ta ganera igonik, bakaldun jauregira juan zan bañiro Bertolda, miloe bat eulik eta mando-eulik lagun egifen eutsela.

gertu eukifeko agindu eutsen bere otseñai, Bertolda etoñi eñenian, oratu, gela baten sartu, ta lepua bertuarite astin-astin egifeko asmoz. Bertolda agertu zanian, bakanderea lendik be asare ba'eguan, ariago jarri zan ain gixon matxara zala ikustian, eta muker egiñik ba-diño:

—¡Ako matxangua agertu yakuna berton!

—Sartagijak pertzari, ut ortik baltz ori—erantzun eban Bertolda'k.

—¿Zelan daukozu ixena?—iñaunder eutsan bakandereak.

—Imiñi eusten letxe: ezertxu be aldatu barik.

—¿Zelan defuten zatube?

—¿Defu? Oles eginda.

—Zelan deritxazun, diñot.

—Alan olan; batzutan ondo deritxot, bestetzutan, bariz, txarito.

Bakandereak iñaunder eragoion bitartian, neskame batek ontzibete ur ekañen amantalpian eskutauta, Bertolda'ri atzetik-ara burutik bera botateko gogoz; baña gure baseñar maltzurak, begi-belañjak erbijak eurak baño zurago ta ernai erabilezan-da, laster igari eutsan asmua, ta ezer uartu ezpai'leuan, beingo-beinguan maltzurkeri bari bat asmau eta ba-erayon bakanderearen iñauen adi.

—¿Zelan dakixuz orenbeste malmuzkeri, sorgiña dirudixun orek; ala igarlia zara? —egin eutsan bakandereak.

—Erdiz-erdiz. Bizkara bustifen yatan bakotxian edozer igari al ixaten dot, batez be emakumak egi-

ñiko okeñerijak; baña osterantzeko gauzak be ondo dakidaz igarñen Emen iñor ba'lego atzetik ura hota gura leuskedanik, naidan gauza jakingo neukez lepuan ura nabafu ta beste barik.

Oneik itzok entzutian, amantalpian ura ekañenak bestela-bañakuan alde egin eban gelatik, bildur zalako pekaturen bat agirijan imiñi ezegijon, eta beste neskamietarik be etzan batxu bat be azartu Bertolda'ri murika egiten, gustijak eukelako zer gorde, edo, esan oi dan lez, lastozko buztana eben-da subaren bildur ziralako. Baña bakanderea geruago asariago eguan, eta agindu garatzaz erazo egin eutsen neskamiai makila bana artzen Bertolda'ri erasoteko. ¡An ikusi ixan zeinkezan neskamiak Bertolda'gana juaten Bakan-teak eurak arako Orfeo (1) gixagaxuaren ganera baño amurutubago! Bere buruba galduta ikusten eban Bertolda'k; ezeukan iñondik be igespiderik. Baña orduan be, oi ebanetariko amaru bat otu yakon, eta garaxi egiñez, ba-diñotse neskamiai:

—¡Geldi or! ¡Jo biar ba'nozube, jo nagixube; ementxe nago artzeko gertu! Baña artu biar dodan lenengo makiladea ixan dediña bakaldunari bazkaritan edena ezari gura ixan dautsonak emona. Tira; asi joten!

Au entzutian zurtzauta geldifu ziran neskame gustijak, eta bata bestiari begiraka asi ziran, alkañeri iñotsela:

(1) ORPEO.—Josu-Kisto'ren aldiya baño lenagoko ereslari ta oleskari ospetsuba, Grezija'n jayua. Aren abotsaren eta lirearen soñura, ibayak eurak be lotu egiten ziran, zugatzak dardaraka asi ta afkatxak afakalatu. Jainko-ixunen bateri uko egin eutsalako-edo, bere efiko Bakanteak (bada-ezpadako andrak eurok) oldafez atomau yakoezan, eta zati-zati eginda erail eben.

—Nik eztot iñoiz olakorik egin gura ixan.

—Ez neuk be — iñuan albokuak; eta onetara, batatak ezetz eta bestiak be ezetz, atzeratu egin ziran gustijak eta bakanderea bera be bai. Lengo lekuban itzi zifubezan makilak bake-baketan, eta Bertolda, ordukoz beintzat, bere lepo ganian makila otsik entzun barik gelditu zan. Egin-egitian be, orixe besterik ezeban gura ixan.

Bakandereak amuru bizitan eragoion ara bere Bertolda'ren aurka, ta zelan edo alan zigortau eragin gurarik, jauregiko ate jagoliai bialdu eutsen gaztigua ak urteyeran ezereen eruki barik ebaindu egijela; ta lau moñoe bialdu zifuzan Bertolda'ri atadiragiño lagunduten, atzerakuan, jazo etian bari ziatza ekañi egijoen berari.


Bertolda'k ezetara be iges egiferik ezin leukiala egin ikusirik, maltzurkeri bidia artu eban baren-bari, ta bakandereagana bigurturik ba-diñotso:

—Zuk gura dozuna ezta besterik ni makilatuba ixatia baño, eta argi dakust ezin daikedala emendik urten zure gogo ori nire lepo ganian betetu ezik. Alan be, egidazu mesede bat; zure adei-legia artzen dot bifarteko, ta eskabide zuzena ixanik, ba-dakit bayetz esango daustazuna. Zuk, dana-dala, ni makilatuba ixatia gura dozu; baño, orañiño, bardin ixango yatzu zein an jo zein emen jo, makiladak neuk artu ezkerro; ¿artez diñot? Tira, ba; esan egijezu nigaz atadiragiño etori biar daben moñoi esan dagijuela ate-jagoliai burubari ez ikuturik egiteko, baño beste enparadubai emon-alak emoteko makilak ausi arte.

Bakandereak ezeban trikimala au ondo uletu,

baña bayetz esanik, agindū eutsen moñoiai jagoliai esateko burubari ez ikuturik egiteko, baña beste enparadubai makilak ausi arte emon-alak emoteko; eta juan ziran ene moñoiok, Bertolda aurretik ebela, jagoliakana. Ordurako ba-egozan jagoliok makilak esku-betan zifubezala, txistu ta igurtzi, jayari noiz asiyera emongo gertu. Baña, Bertolda'k, ariñeketan asirik, aurre andija artu eutsen moñoiai, ta laguntzaliok Bertolda ija jagolien ondo-onduan eguala ikusirik, aldarika asi yakezan bestiai bakandereak agindū ebela burubari ez ikuturik egiteko baña beste enparadubai makilak ausi arte emon-alak emoteko.

Jagolak, Bertolda bestien aurrion etoñala ikusirik eta gustijen buru zala uste ixanik, bake-bakian itzi eben urtetan, ikuturik be egin barik; baña moñoiak eldu ziranian, enparadutzat arturik, asi ziran eurokaz makilaka jo bata ta jo bestia, ta egunoko jipoirik edereña ezari eutsen. Inon diran triskantzak egin eutsezan: besuak apurtu, burubak tuturumiloz betetu, sayetsak lokatu, ta ez mamiñik ez azurik ezeutsen itzi ondo joñatu bakarrik. Ene moñoie gixagaxuok, ebainduta, umatuta, ziatuta, eyota, manduak ilda ta zutunik egoteko be ozta-ozta bakandereagana juan biar ixan eben zer jazo zan esaten. Ak jakin ebanian Bertolda'k angirea lez zirist egin eutsala esku arterik ezetariko miñik artu barik, len baño bi bidañ asariago jari zan, eta zin egin eban aspeñ ixango ekijola. Baña, ordukoz beintzat, gorde egin eban kurukea kolkuan erazko abagadunea etoñi eikijon artian, eta moñoiak osatuteko zer biar eben aginduten juan zan. Bai biar be, gixagaxuak.



NARITARIJARI NARITAKA

Bijaramonian, eta ofureari jarafuz, zaldunez eta andikiz beteten asi zan bakaldun aretua. Bertolda'k be ezaban utsik egin, eta berak oi eban lez agertu zan. Bakaldunak, ikusi ebaneko, beragana defu ta esan eutsan:

—¿Da? ¿Zelan egin zenduban bakandereagazko egingua?

—Gona mendeletik oskijetara alde gitxi, ene jauna —erantzun eutsan Bertolda'k.

—Itxasua asaldaurik eguan, oyez.

—Itxaslari onarentzat beti da itxasaro.

—Zeruak zematzaile eragoion; ekatxa urian zan noonon.

—Ekatxari inotsi eutsan inotsi, baña bestetzuren lepo ganiak inarosi.

—Oraingo ozkarbi dagokela uste al-dozu?

—Goibel itzi neban nik neuk itzi.

Ba-eguan jauregi atan narifari bat, eta aldi areitan

oñurea zan lez, beste zeregin batzuren arñian bakaldunari bañe eragifia ixaten eban jardunik andijena. *Tuntuiz* esaten eutsen ezixenez, zaparote-lodikotia ixanez ganera, buruban ule garau bat bera be ezeukalako, ain zan kaskasoil. Une atan bakaldunaren ondo-ondotxuan eguan eta Bertolda begifarte txarez arturik, ba-diñotso bakaldunari:

—Añen, jauna; indazu baimena amesetan diñarduban baseñitar oferi berba egin dagijodan, iratzañtu egin biar dot-eta.

—Zeuk gura dagixuna egikezu; baña, zain, gero arako Ondo-Etoñi'ri lez jazo eztañixun zuri; nañu bila juan eta nañuturik etoñi.

—¿Nok, eta oñek? ¡Ba-dago obarik!—jardetsi eutsan Tuntuiz'ek—enaz ni gixon oñen bildur.—Eta Bertolda'gana zuzendurik, ba-diñotso parizta bañe-gañijakaz:

—¿Zeñ diñok ik, bañiz, abijatik jausiriko gautxori eñukañi oñek?

—¿Nori diñotsak ik ezer, oñtera, lumabako mozolo epel oñek?—erantzun eutsan Bertolda'k.

—¿Zenbat legua bide egin biar dozak iretargifñik Lucca'ko ezkotegijetara?

—Zenbat egin biar ixaten dozak euk lapiko ertzetik zaldifegiko galtzu ganera?

—¿Zer duala-ta oño baltzak añautza zuriñak eñoin?

—¿Zer duala-ta bakaldunaren sañteak iri lepua baltziñtu egin?

—¿Noiz añte iraungo dok ik eure maltzuñkeriñak alde batera itzi barik?

—¿Euk noiz itziko dozak iñoren eskaratzeko txalijak txakuñen antzera miazkau barik?

—Baseriñari akijo ardura ta ez emon saritarik eskura.

—Urdia ta igelaz ago antsi baga ta ezegixak lupe-tzaiñik atara.

—Eroyak ez ei yuan iñoiz bañi onik ekañi.

—Sayak eta miruak, bañiz, okela ustela non, beti igañi.

—Deduzko gixona nok ni, ta ondo azija.

—Bere buruba oi yauanak goraldtu, zifaldu.

—¿Baseriñara ala basatitzara?

—¿Koipezalia ala pekootzalia?

—Zapuskeri bako baseriñarik, iñon bez.

—Gangañ bako olañik, iñoiz bez, eta zazpisuete koipekeri bakorik, eguno bez.

—Ire oskijak abua zabalik yagozak; gosez, antza.

—Ez; iri bañeka yinardubek, astotzara azala igañi yauek-eta.

Ene nañifarija, zer erantzun bururatu eziñik, pipaña bera baño goñijago jañi zan lotsa-lotsa eginda.

Zaldun eta andiki gustijak Bertolda'ri emon eutsen amañekua, ta Tuntuiz'ek, besterik eziñian, eruapena añtzia erabagi eban; baña nayago eukian baraurik egon maltzuñ areri usañtu ixan baño. Beti eragoion ziri ta miri, edonori nañifaka ta alamenka, bere buru-bari argi ta zoli eretxiña aropuzturik, eta jauregi-gixon gustijak poztu egin ziran Bertolda'k gangañ-gangañian jo ixatiaz. Lotsearen-lotsaz begijak gora jazoten be

BERTOLDA


etzan azartuten, eta atsekabiaren andiz bere buruba
ere kara botata be bardin eutsan ija-ija.

Eta gaba eldu zanez, bakaldunak, zaldun eta an-
dikijai agur egiñik, esan eutsan gure Bertolda'ri
bijaramonian jauregira bigurtzeko, baina ezedila etori
ez biloxik ez jantzirik.





Bakandereak ifaunka eragoion bitaftian, neskame batek ixil-ixilian suilbete ur ekafi eban, Bertol-
da'ri atzetik-ara burufik bera botateko gogoz.....



BERTOLDA'REN BIGURTUKEREA

Bertolda, urango goxian, bere gorputza araintzale sare bategaz naru gorijaren ganian baturik aurkeztu zan bakaldun añera. Itxura aretan ikusirik, ba-diñotso bakaldunak:

—¿Zelan azartu zara nire arian oretara agertuten?

—¿Ez al-zeunstan zeuk esan zugana bigurtzeko goxion, baña ez biloxik ez jantzirik etorteko?

—Bai; ba-neutsun esan.

—Emen nayagotzu, ba, sare onetan baturik—esan eutsan Bertolda'k—eta zeuk ikusi daikezunez, gorputza erdi-agirijan erdi-estalirik dodala bigurtu nayatzu.

—¿Orain artian non ixan zara?

—Ixan nazan lekuan enaz arezkero, ta orain nanzanatan inor ezin dateke ixan neu ezik.

—¿Zein da egunik luziena?

—Jan barik egon biar ixaten dana.

—Buruko uliak zergatik zurifuten dira bixara baño len.

—Bixara baño lenago jayorikuak diralako ixaten.

—Itxubak eurak be ezagutzen daben bedaña, zein da?

—Azuna.

—¿Zein da lorarik ifunena?

—Zatotik urteten dana, ¡ai!, ardaua amañutian.

—¿Nor da arako a, norberen etxian inok gura ixaten eztauana?

—Erua.

—¿Nor da a beste okeña, lerdan gustijai istañoak ebagiten dautsezana?

—Garija ta olua batzeko igiñaya.

—¿Zein da gauzarik argijena?

—«Iretargija argi da baña, eguna baxen argi ez...»

Eguna, jauna.

—¿Esnia baño bai?

—Esnia baño argiyago, ta baña eduña baño be.

—Orixe diñostazun ori egiztau ezpa'daistazu, makilaka zigortau zagijezala agindu biarño ete-dodan nago.

Urten eban ene Bertolda'k, eta suil beste esne arturik, bakaldunaren lo-gelara eruan eban inok ikusi barik, eta beiangarian erdi-erdiñan itzi eban. Leyo gustijak itxi zifuzan gero, ondo-ondo, argi izpirik sartu ez eñan. Eguberdañtia zan. Ba-dator bakalduna gelara eta, ilunetan, jotan dau oñagaz esnez beteriko sula, ta an dua sula tutañez, esnia be plausta beianganera, ta ija-ija bakalduna berø be bai mustuñez berat. Asañe bizitan defu otseñai ta leyuak zabalduteko diñotse. ¡Ak egin zifuzan gañaxijak gela beiangania esnez ondatuta ikustian!


—¿Nor sazkil ixan da ori suil ori esnez beterik gela onetan imiñi dauana ta nik biaztopo egifeko le-yuak itxi diñuzana? —iñuan.

—Neu ixan nayatzu —erantzun eutsan Bertolda'k baster batetik urtenda— eguna esnia baño zurijago ta argijago dala egiztau biar neutsun-da. Esnia eguna baño argijago ba'litz, gela osua argifu egingo eban, eta zu etziñan itsumustuban etoriko, ixan zarean lez, eta etzenduban sulik oñagaz joko, egin dozun lez.

—Baseriñar maltzura zara zu, ixan be, ta satorari berari be begijak idoroko zeunskijoz zuk. Baña, ¿nor ete-dot emen yatorñan au? Bakanderearen geznari bat da, oyez; ta idazki bat dakañ eskubetan, bai aurki. Albora egin zakidaz apur baten, zer erepari diñostan entzun dagijodan.

—Ba-nua, bai, basterñtxu aretara; ta Jaungoikua'ri gura dakijola niretzako albista txarñik ez ixafia.







ANDREN BIGURIALDIJA

Etoñi zan geznarija auñera eta, oi yakon guñkerea bakaldunari egin ostian, idazki bat emon eutsan eskubetara. ¡Etzan makala idazki arek iñuana! Begiratu. Uri-nagosi atako andrandijak, andikijenak, aspaldijan irikatzen egozala ta argi ta garbi atzaldu gura eutsela bakaldunari euren gurarija; emon egijuela, euren senarai legez, batzarretan eta agimendubetan saritzeko eskubidia, eta, era berian, autarpidia eta auzijetarako entzupidia ta ebazpidia, ta, beraz, batzar-nagosikozaldunak eta andiki gurenak egiten eben edozer egin al ixateko eskubidia; eskabide onen aldez beste aldi batzutako jazokixunak erakarñi biarñ zifubezala gomutara: makiña bat andra ixan dirala munduban bakaldeñi ta jaureñi askotako jauñlari, ta bakaldun eta kaiser askok baxen ondo eta biarba zurtasun andijagoz erabili ixan zifubezala eriko arazuak; andra askok urten ixan dauala mendira guda-aldijetan, gixonak eurak baxen kementsu ta adoretzu aberija aldeztuten; oneik egijok olan dirala, ezin leikela ba-

kaldunak euren eskabidia ezetara be ukatu, atakotzat ar̄tu baño, ta zuzenez eskatuten eben eskubidia beingo-beinguan emon, gauza bakana zalako gixonak edozetan agin̄aritzea euki ta eurak andrak ezetan aintzako be ez ixatia; azkenez, geigar̄itzat iñuen, gixonak eurak baxen ixilak edo biar̄ba ariago ixango zirala, ta gar̄antzizko arazuak eskutuban eukiñen ezeutsela iñongo gixonik ezer erakutsiko. Eskakixunok bakandereak be bere egif̄en zif̄uzan eta leya andiz eskatuten eutsan bakaldunari bayetza emoteko.

Idazkija irakuñtzian eta andren zentzunbako eskarija uar̄tutzian, ezekijan bakaldunak zer erabagi ar̄tu. Zalantza aretan Bertolda'gana jo eban eta jazokuna aren bar̄i emon eutsan. Bertolda, erantzun ordez, arkuak austen asi yakon bar̄eka.

—¿Bar̄e egif̄en dozu, astakilo or̄ek?

—Ondo gogoz, atan be—erantzun eutsan Bertolda'k—; eta or̄eri bar̄e egin eztagijonak, agin gustijak ataratia ibazi biar̄ leuke.

—¿Zergaf̄ik?

—Or̄eik andra ergelok, bakalduntzat barik bakalutzat ar̄tu zaf̄ubez zu; ¿zelan otu osterantzian, olako gangar̄keririk bakaldun danari eskatutia?

—Arei eskatzia ixan leikijue on, baña niri ez emotia adin-on.

—¿Txakur̄ak buztana oratuten itxi? Eztau, gaxuak zorigaizto gitxi.

—Argi egidazu berba, uleñtu dagitsudan zerbait.

—Oñuak kukuñuku ta oñar̄ak karkaxo, olakorik gerta oi dan etxiaren gaxo.

—Martiko eguzkijaren antzeko zara zu: igiñu ta berotu orduko ibiñu.

—Ulerñzale onari, itz gitxi.

—¿Itzok eder, geyok ez; argiñuko al-nozu, bai ala ez?

—Etxia nai dauanak garbi, ezpegi olorik ez usorik euki.

—Baña, asta-kirten orek; ¿amañuko ete-dozu bein edo bein?

—Ulerñtu bai, ulerñtu ez, eta ulerñtu gura ez; iru gauzok bat leñkeez.

—Ipuin entzuliari lapikuak ondua arñtu.

—Ia bada, esan; ¿zetarako gura nozu ni?

—Zure aolkuba biar dot arazo onetan.

—Iñuriña txitxañari ogi eske, beraz.

—Ba-dakit azkaña zareana ta buru ori asmakixunez beterik daukazuna. Andren arazo au zeuri emon gura dautsut, alik onduen zeuk atondu dagidazun.

—Arazo ori nire pentsudan itzi ba'dagixu, ez ixan ezpairik; txistuba baño ariñago aterako zañut neuk estura oretatik. Orañño, laketu egidazu nire neuk gura dagidana egiten, eta oreik androk, arazo au dala-ta, bañiro ba'letoñtzuz etoñi, txakuñ bigurtu na-dila ni.

—Tira, ba; asmau egixu zerbait eta bialdu egidazuz popadan axiak arñzen.

Urten eban Bertolda'k eta zeyara juanik, txoritxu bat erosi eban. Sañtu eban gero txoritxu au kutxatila baten bañuban eta bakaldunari eruan eutsan, esanez, bakandereari bialdu egijola kutxatilea, arek emakumai

bialdu egijuen, baña esan egijuela ezegafik be ezegijela idegi ta bijaramon goxian etofí eñezala atzera kutxatilea ondo-ondo itxirik ebela, ta bakaldunak beingo-beinguan emongo eutsela eskatuten eben gustija.

Artu eban geznarijak kutxatilea eta eruan eutsan bakandereari. Gorago aaturiko andrandijak bakanderearen gelan egozan baturik bakaldun erantzunaren begira, ta bakandereak, senaaren geznea entzunik, kutxatilea artu ta andrandijoi emon eutsen, bide batez bakaldunak inuana uarterazuez: ezetara ez ezegafik ezebela kutxatilarik idegi biar, baña bijaramonian etofí eñezala atzera kutxatila ta gusti, ta beste barik, bakaldunari eskaturiko gustija loftuko ebela. Esanokaz lasa-lasa eginda alde egin eben andrandijak.

Baña urtenaz batera, berebixiko ikusgurea sortu yaken emakumoi, ta an kutxatila baruban zer egon ete-efekian gordeta jakin gurarik irikatzen jari ziran.


—Andrak —alkaeri inotsen— ¿emen baruban zer dagan ikusi barik egongo ete-gara ba? ¿Zer deritxozube; idegiko al-dogu?

Beste batzuk, ostera, bildur samar, onetara inuen:

—Eztagigun olakorik egin, aurki bakaldunaren gañantzi andiko gauzaren bat dago-ta.

—Baña, ¿zer gauza ixan dafeke, ba? —inuen ikusperienak.— Eta idegi aren be, ¿ez al-gara gero gustijoen artian dagon-dagon lez itxita izteko gauza ixango? Bai, bai; dana-dala, idegi dagigun eta geuk jakingo dogu gero zer egin.

Azkenez, txutxuputxu ta marmaxo askoren ostian,



— Añen, jauna, —esan eban Tuntuiz'ek;— indazu baimena amesetan diñarduban baseñar oferi
berba egifeko....

kutxatilea idegiñia erabagi eben; baña ganeko estalkija kendu eutsenekoxe, bañuban eguan txoritxubak eguak zabaldu ta alde egin eban gorantz, axia ziañ egazka, eta ene emakume gustijak zuñtzauta geldifū ziran ezetarako adore barik. Besterik ezian, zer txori mueta zan igarñteko astirik euki ixan ba'leue, beste atariko bat erosijaz utsa beteta legokian; baña kutxatila bañuko txorija begi-itxi-edegi baten ayenatu yaken-da, ezin eben, añezkero, ez artatxori, ez ur̄etxindoñ, ez beste zein txori ixan eñekian igarñi.

Damututa ta atsekabetuta egozan andrandi gaxuak, ta euren ikusgura zoritxañekua zala-ta, alkañeri akañ egiñez, ba-iñuen:

—¡Gure eñukañijak! ¿Nongo arpegijaz juango gara gu bañiro bakaldun auñera, bere aginduba guk ausi dogun lez ausiñ gero? ¡Au da zorigaiztoko ta adutxañeko ixatia! ¿Zer adore, zer indañ ixango dogu guk bijañ goxerako?

Naigabe ta atsekabez beterik igaro eben gau osua onexatara ai-eneka; ezekijen zer erabagi arñtu: ala bi-jaramonian bakaldunagana juan, ala ara barik etxian geratu.

Gaba igarota, oi dan lez, eguna etoñi zan bañiro. Jagi ziran emakumiak eta batzañian batu ziran. Arterik arñtu eziñik ebiltzezan, gaxuak, uste gustijak galduta, nora jo ezekijela, ta iñondik be etxaken ezer otuten bakaldun auñera lotsagañi barik bañiro auñkeztu al ixateko, ta bakandereagana juaten azañtuko ete-zirantentz be zalantzan egozan. Batek onetara iñuan, bestiak bestetara; arek, juan bialñ ebela; onek, oba ixan-

go ebela ez juatia. Azkenez, erausi ta iruzkin askoren ostian, bestiak baño buruba apur bat argijago eban bat aureratatu zan eta esan eban:

—Andrak; ¿zetarako galdu onenbeste asti bariketa utsian? Zoruak egin naiz eruak egin, egiña egin, esan darue; ta ezin daikegu guk be gure okera ez zuzendu ez estaldu. Eztaukagu beste biderik bakaldunagana juan, jazo yakuna zelan ixan dan argi ta garbi esan eta parka eskatu baño, Lendik be ba-dakigu bakalduna ixakeraz bijotz-berea dana, batez be andrazkuakaz, eta ezez ixango yako guri parkatutia. Tira, andrak; bizkoitu zafeze eta jarai zakidaze neuri, neu juango nayatzube aurretik eta. ¿Erijotzaren bat egin ete-dogu, ostera, ezetariko zigoren bildur ixateko? Ala, ¿lamaiko baten erosi lefeken txori baten balijorik be ez ete-dogu gustijoen artian, txori ziztrin oreri egaz egiten itzi dautsagulako, beste barik? ¿Zateze neugaz ezeren bildur barik!

Beste batzuk, ara bere, bildur ziran, eta esaten eben bakaldunari min geyago eragingo eutsala bere esana egin ez ixatiak, basuetan eta baratzetan eukazan faisán eta eper gustijai iges egiten iztiak baño; azkenian, jo batera, jo bestera, bakandereagana juatia erabagi eben.

Bakandereak andrai jazorikua entzun ebanian, atsekabez beterik jari zan eta ezekijan zer esan ez zer egin, zalapañtaen baten bildur zalako; baña atsekiak alde batera itzirik, andren alde egiteko bere burubari azkoitu erazo ta bakaldunagana juan zan emakume andrandi gustijak lagun zifuzala. Irureun bat

andra ziran eurok eta gustijok etozan buruz bera, lotsaren-ozta. Eldu zan bakanderea areto nagosira ta agur egin egin eutsan bakaldunari. Bakaldunak inoizko alaitsuben erantzun eutsan aren agurari, ta bakaulkifik jatzirik, eskutik artu ta bere onduan jezari eragin eutsan. Eta iribaia beti ezpanetan ebala, zer albista on ete-ekaren itaundu eutsan, arenbeste andra eder eta argiren laguntzeaz beragana etorteko:

Eta bakandereak esan eutsan:

— Ekixu ene senar eta jaun altsu orrek, zure aurrea nayatortzula emakume guren oneikaz, eurok egin eutsuben eskabidiaren alde. Ondo dakixunez, batzar nagosiko garatz eta arazo gustijetan sartzeko zaldunak dauken eskubide berbera eskatu eutsuben emakumiok eurontzako be; baia agindurik zuk, erantzun bila etori etezanian ekaia egijela euroi emoniko kutxatilea zeuk emon zeuntsenian itxirik eguan era-eratarata ezegafik be idegi egin ixan barik, eurotariko batek, beste gustijak baia ikusperagua antza, baruban gordeta zer egon ete-lefiekian ikusteko gutizijaturik, idegi egin dau, ta uste-uste barik baruban egon ixan dan txoritxubak iges egin dautso egaz. ¡Zoritxarrian egin dau egiteko au! Emen daukozuz emakume gustijok atsekabeturik eta damu-damurik eginen oregaz, nairabiaren andiz buruba jasoteko be gauza eztirala, ta bakaldunaren aginduba eurok gura barik ausi dabelako zuri arpegira begiratuteko be lotsa dirala. Ene jaun altsu ori; beti ixan zara zu bijotz-biguna ta erukioia zure menpeko gustijentzako, ta parkatu egijezu onei be eurok egin daben utsa, eztalako ixan egiia

zure esana ez egitiañen, euroen ikusgura begiluzetxubak eragiña baño. Eta diñotsudan au egiztauteko, ona emen andrandijok zure oñetan auzpazturik, oñazez ganez eginda, garbatuta, damututa, ta apaltasunik andijenaz parkeskeka, zuri, ene jaun altsu oñeri.

Orduban bakaldunak, asañe bai'leguan, arpegi mukeña jañi ta betosko ilunaz, ba-diñotse:

—¡A, emakume zoro, ergel eta burubakuok! Eta, ¿arpegija ete-daukozube oindiño neure bakaldeñi onetako ixileko batzañetan sañtu gura ixateko? Baña, ¿zelan, esan egidazube, zelan euki ziñegije ixilik zube, kutxatila bat ordutxu betian itxiña eukiñen jakin eztozubenok, zelan euki ziñegije ixilik neure bakaldeñi osuaren zorijona ta miñaz gixonen bixija beren pentsudan daukon arazo bat? Zuaze, zuaze zeuben zeregiñetara, zeuben etxeko ardurea añtuten eta zeuben seme-alabak azikera onez azten, gonadunen eginbiaña orixe da-ta; ta itzi egijezube gixonai eñiko jañrkintzea, zeregin ori gixonezkuena da-ta. ¡Ezkeunke ondo eñiko arazuok zuben eskubetan itziko ba'genduz! Lasteñ ikusiko gendukez gauza gustijak ankaz-gora ibilñen. Ordu erdi gañenerako uri osuan zabal-zabal eginda ibiliko litzatekez ixileko arazo txikañenak be edonoren abuan eta miñian. Tira, zentzunbakuok; jagi zañeze ta zuaze etxera ganoratan, bial be ba-dozube-ta lauziri banarena. Beinguagatik parkatu egilñen dautsubet; baña eztakixubela beste bein olako burubakokeririk otu be egin!

Eta au esanik, bakandereagana biguñtu zan agur

egifen, eta ainbat zaldun emon eutsazan gelaragiño lagun egijuen.

Andrandi gaxuak, bakaldunaren eremuskadeaz, autseziperdi urten ziran jauregirik katu buztija baño epelago ta ezeben geyago eguno aiatu ez agimendubetan sartzerik, ez autarkija eukiferik, ez inoren lapikuan buruntzalija sartzerik. ¡Bestelako buruntzija ezeutsen eurai bakaldunak sartu, naiz ta Bertolda maltzuraren bidez ixan! Andretedija aldendu zanian, idoroten dau bakaldunak Bertolda ta ba-dtñotso:

—¿Ba-dakixu, gero, berebixiko asmakixuna ixan dana? Eta urten be, ezin obetuago urten daust!

—Ondo dabil aurtz trinkua berekifian, otsuak tope egin eztagijon artian—erantzun eutsan Bertolda'k.

—¿Zergarik diñostazu ori?

—¿Ez al-dozu inoiz entzun, andreak, urak eta subak laster aurkitzen dabela baster?

—¿Nigarik ete-diñozu ori, ba?

—Egin-egifian be, zeugarik diñot, eta ez beste inorgarik.

—¿Ba-al-nayatzu ni ezertan damugar?

—¿Ba-al-zafudaz zu ezertan goralgar?

—¿Zetan emon ixan ete-dautsut nik min?

—Onen garantzizko arazo onetan neuk lagundu zafut, eta zuk, ilarte bizi ixateko lain emon bieran, arnasea bera be emon ez eta ixeka egifen daustazu ganera.

—Enayatzu oren eskarxareko, ta ondo dazaudaz zure ibazijak.

—Ezagututziaz eztot naikorik; eskañtutzia obeto dagokit.

—Zagoz ixilik, biar dan lez saristu gura zafut-eta. Eztot gura oindik aurera onik be igitu dagixun, eta onak oinkide ixango dozuz aurerantzian, eztabelako alkarren ondok aldendu biar ixango.

—Urkaturikuak be eztabe onik igitzen, eta, zuk diñoenez, onak oinkide ixaten difuez.

—Zuk, bariz, txarizat artu ta okeñatara uleñtzen dozu beti.

—Txarito esan sañi eta geyenetan igañi.

—Zuk, txarito esan eta txarago egin egiten dozu.

—¿Zer txar egin ete-dot zure jauregijan, ba?

—Eztaukozu lauzirijen gixabiderik ez adei-legerik.

—¿Eta zuri zer ardura dautsu ni ondo azija ala mendu txaroko ixatiak?

—Asko ardura daust; traketsa ta basatija lez zabiltzalako nire jauregijan.

—Esan zegañija.

—Nire aurera zatozen bakotxian, txapelik erantzi be eztozu egiten; ez-ta bururik makuñtu bez.

—Gixonak eztau bere buruba makuñtu biar beste gixon baten arian.

—Gixonak zelakuak, adei-legiak eta gurkerak be alakuak egin biar ixaten yakez.

—Gustijok gara luñezko: zu luñezko, ni luñezko, ta gustijok luñ biguñtuko gara gexu baten. Luñari etxagoko luñetara makuñtzerik, eta, arian bere, ezin dau.

—Bai, egija diñozu: gustijok gara luñez egiñak. Baña zugandik nigana dago aldia ezta besterik ontzi

baterik bestera ixan lefēkian aldia baño. Luŕ bategaz beragaz ainbat ontzi baŕdiñezak egifen dira; ontzi batzuk, oŕafiño, edari gozuak eta luŕinkai usaintsubak eukifeko ixan oi dira, eta beste batzuk, osterā, edoze-lango zeregiñetarako ta oikuntza zakaŕetan erabilfe-ko. Eta, era berian; ni, arako nardoeko luŕinkai eta bestetariko edari edeŕ-gozuak gordeten difubezan ontzietarikua nozu, eta zu, baŕiz, edozein zantaŕkeri botateko edo, biaŕba, txaŕikeri andijaguak egifeko erabili oi diranetarikua. Alan be, ba-dautoŕt, ontzi gustijok luŕ berberagaz eta esku berberak egiñak dira.

—Eztautsut ori ukatuko; baña ontzi gustijak eŕez dira apuŕtuten, era beratan auskoŕak diralako, eta bein apuŕtu ezkerro, sastaŕetara botaten dira zatijak eta batzubetarik bestietara eztago ezetariko alderik.

—Zelan gura ixan dedila, ba; baña, zuk, ona etoŕ-tzian, buruba-makuŕtu egin biaŕ daustazu.

—Ezin dot nik olakorik egin; eruapena aŕtu biaŕ ixango dozu.

—¿Ezin dozula? ¿Zergaŕik ezin?

—Lexaŕ adakijak iruntzi dodaz, jauna, eta eneukez apuŕtu gura neure buruba makuŕtutzian.

—¡A, dolor, txatxaŕ ori! Zuk gura ezaŕen, ba, neuk gura dot, eta makuŕtu biaŕko dozu uŕen nire auŕera agiri zaŕezanian; bai, ondo be.

Bertolda aldendu zaneko, bakaldunak bere gelako ateburuba ate-erdi ingururagiño eraztia agindu eban, onetara atia labuŕtutziaz, gelara saŕtu gura eŕezanak gura-nai-ez buruba makuŕtu egijen. Au agindueran Bertolda'ri aspeŕ egifia baño beste burupiderik eze-

ban ixan bakaldunak, ak beragana etoñi gura ezkerro, gelan sartueran buruba-makurtu egin biar ixango ebalako, eta onetara, Bertolda'k gura ezaren be, bakaldunari gurkerea egin biar ixango eutsalako. Bertolda atzera noiz etoñikoren begira gelditu zan, beraz, bakalduna, beren asmakixunaren ondore ona ikusteko luze eretxia.

Urango goxian ba-dua Bertolda beti legez jauregira. Bakaldunaren gelako atia aren txiki ikustian aritu egin yakon bat-batian, baña azeri zara bera, beinguan susmau eban zerbait eta laster igari eban bakaldunak aginduriko maltzurkerijen bat zala, biarba sartueran bakaldunari buruba-makurtu berari egin erazoteko-edo; eta ots-otsean bururatu yakon zer egin: gibel-egin atiari, bai, eta aurekera barik, atze-atzeka sartu. Otu ta egin. Eta onetara, bakaldunari burubaz gurkerea egin biarian, bizkara emon eta bizkaren azkenian asten danagaz gur egin eutsan. Aurduban ezagutu eban bakaldunak etzala Bertolda osterantzeko azerija lakua, lukijagua baño. Indar atsegin ixan yakon, orafino, bakaldunari Bertolda'ren maltzurkeri barija, baña asare samar bai'leguan, ba-diñotso arpegi garatzaz:

—¿Nok irakatsi dautsu zuri, malmutz oñeri, iñoren etxian oñetara sartzen?

—Zangurubak, jauna.

—¿Zegafik, baña, zangurubak?



ZANGURUBA ETA KAÑAMARUAREN IPUÑA

—Ekixu, jauna, gure añak amar semerañtekuak ixan zifuzala, eta ni oindiñokañen nazan lez, beti ixan zala txiro ta biarñsuba. ¡Makiña bat bidañ aparñfarko ogirik be ixan ez, eta jaten emon ta ase-ase eginda eratzo biarñan, iñon diran ipuñak esan eta lo-erazo egifñen euskun guri añak! Sabela goseturik baña buru-belañijak gozaturik iruan izaten genduban onetara urñengo goxerañte. Areri entzuniko ipuñen arññan, zure iñfaunari erantzuteko bete-betian yatoñdan bategaz gomuta naz orain, eta egonañiz piska baten adifñu ba'ziññeist, erdein ixango elitxakixun zerbait entzungo zende.

—Esan, gixona, esan; atsegin andija ixango dot -eta —erantzun eutsan bakaldunak.

—Gure añak esaten ebanez —asi zan Bertolda edesten— beñola, aberiak berba egifñen eben aldijan eta mozoluak kapusaia erabilñen eben sasoiñan, ba-ei-ziran adizkide urñko bi: zanguñuba ta kañamarua. Beste erñjetakuak zelan bixi ete-ziran ikusi biarñ ebela-ta, munduba ziañ alkañregaz juatia erabagi ei eben. Aldi atan zanguñuba auñekera ibilñen zan, osterantze-

ko piztijak lez, eta kañamañua etzan gauñ lez alboke-
 ra ibilñen. Adizkide bijok, gurasuen etxetik alde egin-
 ña, asi ei ziran bidez munduban bañuna, ta ibili ta
 ibili, otijen erira eldu ziran; andik muskañen luñaldera
 jo eben, eta geruagogañenian onein mugan dagon mi-
 txeletienera. Eta ibilijaren-ibilijaz luñalde asko ta as-
 kotan ixan ei ziran eta ainbat basteñ ikusi ei zifubezan
 eta beredin piztiren ekandu berezijak uañtu. Eta juan
 eta juan, azkenez, katamixañen erira eldu ziran, gabez
 atan be eldu. Aldi atan, katamixañak eta ogigaztaiak
 guda ixugañija ei erabilen alkañen añtian; antza danez,
 bitzubon luñaldiak bata bestiaren onduan ei egozan,
 eta saldukerijen bat edo-ixan zala-ta, iskiluak añtu ta
 alkañeri erasoka eragoioen. Katamixañen gudaltegira
 eldu ziranian, ango jagolak ikusi egin zifubezen gure
 lagun bijak, eta zelataritzat añturik, bat-batian atxi-
 lotu ta txikotez ondo lotuta buruzagijagana eruan
 zifubezen. Buruzagijak ziatz-ziatz arakatu ta ifaunke-
 ta estuba egin ostian, ezeutsen idoro besterik mundu-
 ba ikusi gurarik ebiltzezan lagun bi zirala baño, eta,
 bialba, arotzak ziranez, ezeren bañirik jakin ez-da
 leku aretara uste-uste barik eldu zirala; eta ifaundurik
 ia euren gudari ixan gura eukienentz, bayetz erantzun
 eutsen zanguñubak eta kañamañuak. Arenbeste adañ,
 beso ta ankadunak zirala ikustian, gudarako berebi-
 xiko tresnak ixango zirala begifandu yakon buruzagi-
 jari, eta azke izteko agindurik, gudari-leñuetan imiñi
 zifuzan. Eta aurduban jazo zan jazotekua. Agindu ei
 eutsen gure zanguñubari arerijuen landan zer egifien
 ete-eben zelatan juateko. Katamixañak uste eutsuben

ezebela ogigaztaiak zanguńuba ain eńez ezagutuko, luńalde areitan zanguńuba pizti bańija zalako, ta gane-
 ra ibilkera ixilekua eta pińian-pińian gorputzik geyena
 buztan bańuban eskutauten ebana. Arin baxen bizkoń
 juan zan zanguńuba nagosi-bańijaren aginduba bete-
 tan, eta arerijuen landan jagolak lotan aurkińurik, auń-
 era egin eban eta ogigaztae-nagosijaren guda-txabo-
 laragińo eldu zan, ango jagolak be lo-egingo ebela
 uste ixanik; bańa gixagaxuak ezaban adu onik ixan.
 Ezegozan lotan, ez, ango jagolak, ondo itzańturik
 jokuan bańo, ta gure zanguńubak txabola bańuban
 buruba sańtu ebaneko, aretariko gudari batek ikusi
 egin eban beinguan, eta jokua itzi ta zanguńubak na-
 bańu ezegijan mańik geldiro-geldiro jagirik, kisket
 bat ańtu ta buru-burura jauńti eutsan indańik andije-
 naz. ¡A ixan zan kisketekua —¡..esus!— kasketekua!
 Krakadeaz beraz ene zanguńuba ilda lez jausi zan lu-
 ńera konorte barik, eta buruban beti daruan maskońari
 eskeńak, osterantzian ba-yuakoz garunak axiak ań-
 tzen! Ogigaztae jagoliak, luńetara jausirikua zelatarija
 zanik bururatu be egin barik eta ildakotzat ańturik,
 adańetatik oratu ta luebaki batera bota eban, eta
 beste susmo txań barik lagunakana juan zan atzera
 jokuan. Zanguńu eńukańijak, bere senera etońi zanian,
 ezin eban mińaren-mińaz bururik jaso be egin, ain
 ixan zan andija arturiko kaskańekua; eta zin egin eban
 etzala geyago eguno buruz auńera ińon sańtuko, buz-
 tanez atzera ibili bańo, ta onetara, ukaldirik emongo
 ba'eutsen be, buruban bańo nayago ebala bizkańian
 ańtu. Ońazez eta mińez, al ixan eban lez eldu zan

atzera katamixaren landara, ta jazoriko ta ikusiriko gustija edestu eutsenian, iskiluak ixil-ixilik artzeko agindu eutsen gudarijai buruzagijak; ta arerijuen landara juanik, eraso-aldi irime bategaz otoz-otuan ogigaztae-nagosijaren txabolea artu ta baruban egozan gustijak il egin zifubezen. Onetara asperu eben zanguubaren kaskaekua; baña zanguu gixagaxuak ezaban gura alakorik bariro jazo egikijon, eta ba-dinotso karamaruari:

—Amutil; gayuazan emetik Jaungoikuagaz, guda-ketea ez tok guretzako egiña-ta.

—Baña, ¿zelan iges egingo yuagu —esan eutsan karamaruak— gure onatzen aztañenak artu egingo yauezak-eta?

—Ibili adi i albokera, ta nik atzekera egingo yuat; onetara iruzur egingo yautseguk eta estura gustijetatik urten al ixango yuagu.


Atsegin ixan yakon karamaruari burupide au ta biatzen puntetan jaririk, txairo-txairo asi zan ariñeketan, orbiden, eta ba-yuakon zanguu gaxua atzetik, eldu eziñik. Katamixarak ezeben inoiz igari norantz alde egin eben gure lagunak, euron ibilkera zakararen onatzakaz buruba naspildu egin ixan yakelako, ta gogait-eginda uts-emon egin eutsen jazarkatziari. Nekez eta lozez eldu ziran etxera zanguuba ta karamarua; ta bidian jasan ixan zifubezen estura ta larriakaz beti gomutau ixanik, il-burukotzat itzi eutsen ondorenguai arezkero ibili efekezala beti eurak etxera etorikeran egin ixan eben letxe; eta gau bertan ikusi zinegije, oindiño, zanguuba atze-atzeka ibili duala,

ta kañamañua, bañiz, albo-alboka. Eta zanguñubak ogigaztaiaren txabolan sañtukeran añtu eban kaskañekua beñi goguan daukodanez, neu be zure gela onetan sañtzaiñian bada-ezpadan atze-atzeka sañtu ixanaz, ezer txañik añtzekotan oba dalako bizkañaren azkenaz añtu burubaz baño.

—Ondo dago ipuin ori —esan eban bakaldunak;— zuaz etxera orain eta etoñi zakidaz bijañ. Baña egixunik ikusi eta ez-ikusi egin zagidazan eratara, eta ekañi egidazuz zeugaz ortua, kortea ta eñotea.

—Igañi egik ori, labatxori. Ba-nua, bai; baña asmauko dot zerbait zure aginduba zelan edo alan bete al ixateko.





BERTOLDA'REN MALTZURKERIJA

Bijaramoniañ, ba-diñotso Bertolda'k amari zerbazko opil bat egin dagijola, ta guriñez, gaztaiez eta gaztanberaz ondo ta lodi igurtzi ostian, bota egijoza-la ganeñik zaya ta uruna ugari. Artu eban gero galbae bat, eta arpegi aurian imiñiña, opilagaz eta gustijagaz bakaldunagana juan zan.

—¿Zer esan gura dau, ostera, arpegi aurian dakañzun galbae orek? — itaundu eutsan bakaldunak.

—¿Ez-al-zeunstan zeuk agindu ikusi ta ez-ikusi egin naikezun erara etori nindakixula? —jardetsi eutsan Bertolda'k.

—Bai; alantxe da.

—Ona emen, ba, ni, galbae onen zulu en atzian, ikusi naikezularik eta, alan be, ezin ikusi naikezularik.

—Gixon andija ta burutsuba zara, oratiño. Baña, ¿ortua ta kortea ta erotea, non dozuz, ba; ala eneutsuzan ekañteko esan?

—Oreik irurok be zerbazko opil onetan daukozuz nastian. Zerbeak ortua esan gura dau; gaztaiak, guriñak eta gaztanbereak, kortea adierazoten dabe; eta zaya ta uruna, bañiz, eztozuz erotea baño besterik.

—Eguno neure bizijan eztof zu lango gixon argirik ez ikusi ez ezagutu. Eta saritzat, zeuri otu daki-xuzan edozein egikixun eta biar-ixanetarako artu daikezu jauregi au zeure-zeuria bai'litzan.

Itzok entzutian, bakaldunaganik zerbait aldenduta, kukulumutxu jari ta prakak erazten asi zan Bertolda gorputzeko biar-ixanen bat egifia erakutsi gura bai'leuan; eta jasa aretan gixona ikusirik, asten yako bakalduna garaxika:

—Zer da, baña, emen egin gura dozuna, zantañ lotsabako orék?

—¿Zeuk eztaustazu esan, ba, neure biar-ixan gus-tijetarako artu daikedala zure jauregi au?

—Bai, esan dautsut; baña, ¿zer da zeure egifeko ori?


—Juana; nik, ba, neure ixate oneri aztun deritxot une onetan, eta zeure abindu ta eskeintzea ontzat arturik, aztuntasun au ementxe berton arindu daikedala otu yat, egin-egiñian be, biar-ixan goritan aurkitzen naz-da.

Orduban, bakaldunaren jagolietariko batek, artzen dau makila bat eskubetan Bertolda burutik-bera astinduteko gogoz, eta ba-dirautso aldarika:

—¡Asto txarifo ori! ¡Tira kortara, zeure ideko astuen ondora, bakaldun aurera olako zantañkeririk egifen etori barik! ¡Alde emetik, arin, eskubetan daukodan makila onegaz sayetsak apurto dagixudazan gura ezpa'dozu!

Bigurtzen yako Bertolda ben-ben eta ba-diñotso:

—¡Baratxe, baratxe, ene anai kutuna! ¿Zer duala



Eta onetara, bakaldunari burubaz gufkerea egin biafian; bizkafa emon eta bizkafaren azkenian asten danagaz guf egin eutsan.....

-ta oren milika ta bupera eure buruba agertu gura? ¿Ez al-dozak eulijak inoiz ikusi, ezkabistuen buru ganian ibili ostian, arian bakaldunaren maira be juaten dozaala, ta bakaldunaren katiluban bertan miazkau ta zetazkau egin aren, ezereen kezka ta iguin barik artzen yuala arek katiluko zukuba? Eta, ¿ezin al-yuadaz nik, osterá, neure zeregiñak beianganian egin, biar-biañezko ixanez ganera, bakaldunak berak bere jauregija neure biar-ixan gustijeratako eskeñi yaus-taan ezkeró? ¿Ala au baño biar-ixan andijagorik ba-ete-layefekit etori egin yataan eskeintzeari onen adin-onez bayetza emoteko?

Beinguan uleitu eban bakaldunak Bertolda'ren itzixuna, ta ikusgarizko ereztun bat atzamañetik aterata, ba-diñotso:

— Eutsi ereztun au; zeuretzat emoten dautsut. Eta zuk, ene diruzain orek, emon oneri mila bat dukat.

— Eztot nik gura lorik galdu erazo dagistazun.

— ¿Nik zuri lua galdu erazo?

— Bai, aurki. Orenbeste diruren eta ereztun oren jaube ixango ba'nintz, eneuke eguno atsedeen egingo, eurok gorde eziñik edo zetan irazi bururatu eziñik, buruba zoratu-zoratu eginda, ez bakerik, ez arterik eneukelako ixango. Ganera, ba-dakixuz, oyez, arako esakunak: «edozein sari esker gura», ta «inoeren emoia artu ta norberen buruba saldu». Jarei egin nin-duban Jainkuak eta jarei iraun gura dot ilartian.

— ¿Zer egin daiket, beraz, zu saristuteko?

— Naikua dau ordaintzen, on-egiña dauanak eza-gutzen.


—Ezta naikua ezagutzia; esker-ona sari zerbate-
gaz erakutsi biar da.

—Gurari eta gogo ona ikustia ordañik asko da
gixon zinduarentzat.

—Baña nagosijari adei-legez yagoko menpekua-
gaz esku-zabal ixatia.

—Alan be, eztau menpekuak ontzat aritu biar bere
irabazija baño ezer nagosijagorik.





BAKANDEREAGAZ BAÑIRO

Autubeton eragoioela, ara non datoñen bakanderearen geznarija idazki bategaz, Bertolda jauregira bialdu egijola bakaldunari eskatuten. Kuñukea eukotsan bakandereak Bertolda'ri beñolatik, eta añezkero beuri atako andrandijak bakaldunak laidoztu ixatia aren eñuz ixan zala entzunik, amuruba gefu egin yakon, eta Bertolda'ri bizija kentzia erabagi eban.

—Bakanderak dei egifen dautsu bañiro —esan eutsan bakaldunak— Erdi makalik dagola diño, eta ia bera alafuten juan gura ete-zeunkienentz, zeure goraro bixi oregaz ondo-eza arindu dakijon.

—Lukijak be gexo-buru daki egifen sañi, olazkuak erarago dakijozan etoñi.

—¿Zeri buruz diñozu ori?

—Katamotzari ta andreari buruz: kuñukatan alkarren antzeko dozuz.

—Irakuñi emen zeuk, ba, irakuñten ba'dakixu.

—Ikusija ta uañtuba lango liburü obarik eztot nik.

—Andra zin̄duaren asar̄ia laster̄ da ir̄ibañia.

—Estaldurik dagon txingara laso: ganeko autsari bero iraun-azo.

—¿Ez al-dozuz entzuten, baña, emen diñotsuzan itz ederak?

—Itzok eder, geyok ez; amaika jakifun zoro egin daruez.

—Tira; zuaz juateko ba'zara. Juanak juan, eta ura be, bein juan ezkerro, ez ixotz ez ur bero.

—Zuku beruaz iñoiz galdostu danak, otzari be putz.

—Tira, gixona; naikua da er̄egurik. Esakereak be ba-diño: «dolora otuago, atsa putzago».

—Idija duanian pikara, aur̄etik ixerdi, atzetik ikara.

—Leoia baxen bizkor̄ eginda, zuaz ezereen bildur̄ barik.

—¿Leoia baxen bizkor̄? ¿Ala bildots epela baxen koiskor̄?

—Azar̄tuba, azar̄tuba ixan biar̄ dau gixonak, Gamera, eztautsu bakandereak amur̄urik.

—Ba-nua; baña zeuk aginduten daustazulako. Ta zuk diñozun azar̄kuntzeak bildura uzabez, ze il̄feko edo bizifeko gudura guakez.

Eta bakanderearen jauregira juaten asijaz beraz, ara non entzuten dautsen ate oste baten txutxumutxu in̄arduben mōroe batzuri, bakandereak bere eztarijai agindu eutsela txakur̄ gustijak euki egijezala gertu, Bertolda jauregijan sar̄tunaz batera, txakur̄ak axatu ta aginka il egijen. Jauregi atara juateko er̄iko zeyatik igaro biar̄ zanez, erbi bixi bat salgei eukan gixon bat

ikusia eban Bertolda'k bere zorijonerako. Erosi erbija ta kolkuan sartu eban. Eta jauregira eldu zaneko, aranon yatorkazan txakur gustijak amurututa, entzun ixan eban legez, barutik inok ezarita berari aginka egiteko. Galtzorijan ekusan Bertolda'k bere buruba, eta txistuba baño ariñago kolkotik erbija aterata, txakur-ai jauñti eutsen. Esan biarik eztago: txakurak, erbija ikusi ebeneko, bertanbera itzi Bertolda bake-baketan ta jankok zetarako yuaguz? esanda, bata baño bestia ariñago aldendu ziran erbijaren atzetik alkarñ leyan. Onexetara urten al ixan eban Bertolda'k txakur aginkadarik artu barik bakandereagana juateko. Bakanderea zurzauta gelditu zan Bertolda bere aurian bixirik ikustiaz, ordurako txakurak il ixango ebela uste ebalako; ta asaria ta amuruba baruban eutsin eziñik, ba-diñotso:

—¿Emen al-zagoz, astotzar, gaizkin, alakuori?


—Emen nago, bai; baña ezpa'nengo oba neunke.

—¿Zelan egin dozu iges nire txakurñ agin arterik?

—Ixadijak igespidia emonik.

—Oraingotan eztozu iges egingo, ba; ta naiz-ta asmau al dagixuzan amaru ta azerikeri gustijak asmau, ezin ixango dozu nire esku arterik bixirik urten. Etzara geyago, ez, arokerijetan ibiliko andrai iruzur egin dautsezula-ta.

—Mila urte bixi ixango ba'giña be ezkenduke eguno zuk eta nik begi onez alkar ikusiko. Ezkara gu inoiz ogi ta jaki ixango.



AMABIJAGAZ

Orduban bakandereak, sumin-sumin eginda, Bertolda'ri eutsi egiteko agindu eutsen mo'ioiai, ta txikotez ondo lotuta, berak lo egiten eban alboko gela batera eruan eragin eutsen. Bildur' zan, alan be, Bertolda'k iges egingo ez ete-eutsan, lenago be biritan edo irutan maltzurkeriz eta amaru bidez egin eutsan lez, eta olakorik jazo ez eikijon, zo'ro uts andi bat erakarita, baruban sartu eban, eta amabi bat imini eban jagolatzat, ur'engo goxerarte zo'rua ta barukua ondo jagon egixan agindu garatzak emonik. Bijaramonera-ko, bakandereak berak jakingo eban zer egin Bertolda'gaz: edo ibaira jau'rti, edo arian zigor' txaragoren bat ezari, eguno in'ori ixekarik geyago ezin egin ixan eikijon; eta ene Bertolda gixagaxua zo'ro baruban geldifu zan. Ordurarte ezaban in'oiz ilteko bildur'rik ixan, bana ereti atan, bere azkeneko orduba egunoko ur'ien nabaitzen eban-da, larikara gogorak sartu

yakazan gorputzian. Orafñño, azerija beti azeri, eta egoera negarñari aretan be malmuzkeri bat otu yakon zoro barutik urten al ixateko, ta urngo leñuotan ikusi daikezubenez, berebixiko onduen urten eutsan asmakixun barñjak.

Zoro baruban sarñtuta, beraz, eta jagolatzat amabi bakar bat eukala, asi zan Bertolda deskelaka, baña bere burubari izketan bai'leragoion, eta ba-iñuan:

—¡Oi, ene adu madari-madarijok; txiro naiz aberatsai negar eragñian zuben poz eta atsegin gustijak iminñen dozubezanok, alakuok! ¡Oi, eta nire zorigaiztua baño txaragual! ¿Nongo ondamendira ekarñ nozube ekarñ? ¡Oba neukian añak etxetik jauñti ta otzuriñ asi erazo ixan ba'leust; eneukian, beintzat, neure buruba itxura negarñari onetan orain ikusiko! ¿Zer balijo ixan daust niri, neure buruba txirotzat agertzeko, soñeko zantañ eta pildrizki oneikaz jantzi ixatiak, aberatza nazala igarñ egin dauste-ta? ¡Oneik ankeñ zifalok eztabe nigaz aidetu gura neure ondasunen jau-be eurak egñiañen baño! Baña, jazo dañiana jazo, eztoñ nik a ezelan ez-ta ezegañik be emaztetzat arñtuko; ta neskatileak berak be gura ez eta, ala-ta-be, bakan-dereak nik arñzia erazo gura ba'leust, batek ba-daki zer jazoko dan emen!


Amabijak, itzok entzueran, autubok zetan lotu ete-eñekezan jakin guratxubaz alde batetik, eta ixakeraz eñukijoñ samaña ixanik beste aldetik, ba-diñotso;

—¿Zeri dira marmarok, edo zer diñarduzu esaten, ene gixona? ¿Zergañik sarñtu zarñube zoro baruban?

—¡Ut, ut, ut, ut; laguntzara! —erantzun eutsan



Emen gagozan ezkero —esan eutsan Bertolda'k—, dan-dana esango dautsut; baña zofo baruban ezin dot barbarik ondo egin.....



Bertolda'k. — Zuri eztautsube nire atsekabiak ardura-rik ixan biar. Itzi egidazu niri neuk gura dodazan erosta gustijak egiten, eta zagoz zu zeure zeregiñaren adi, zeuri agindu dautsubena egiten.

—Ba-dakit, ondo be, amabi gaxo bat baño enazana; baña, onez ganera, gixona be ba-naz, eta, gizona nazan aldetik, lagun-urkuaren atsekabe ta loñen erukija artuten dakidana be bai. Eta neure indararak zure zoritxaretik urteten ezin lagundu al ba'negixu be, berbaz besterik ezian, urgazi ta poztu egin zaikedaz.

—Poz andirik ezin emon ziñeist zuk, nigaz egiteko danak luzabiderik eztaukolako, epe laburaren baruban bete biar da-ta.

—¿Zer, ba? ¿Makilatu egin gura zafubez, ala?

—Txarago.

—Oñaze-txiñgean lotu, antza?

—Txarago.

—¿Katigu-eremulari bialdu, oyez?

—Txarago.

—Urkatu, ete?

—Txarago.

—¿Zatitu, aurki?

—Txarago, ara bere.

—¿Ere, orezkero?

—Mila bidar txarago.

—¿Zer arayo egin daiketsube sei gauzok baño txaragorik, ba?

—Emaztia emon gura dauste.

—Eta, ¿ori al-da makilatuba ixatia baño, oñaze-txiñgean lotutea baño, katigu-eremulari bialtzia

baño, urkatuba ixatia baño, zati-zati egitia baño, ta sutan eřetia baño txařago; aia burutik eginda zagoz? ¡Elořijo andiren bat zendubala-edo uste ixan dot nikt! ¡Gixonak, eniak! ¿Ori? ¡Ori kiřařea jo ta abestutia letxe dozu!

—Eztiņot nik andrea ařtizia zuk esan dozuzanak baño txařago danik; ez. Emaztia emon utsagaz eleuskide niri miņik eragingo, zelan eta zetarako eta zergařik emon gura dausten ezpa'neki.

—¿Zetarako emon gura dautsube, ba?

—Esan; ¿zeu bakařik zagoz emen? Eneuke gura beste iņok entzun dagistan, galduta nengokelako osterantzian. Ara; eztakit nik zeu nor zarean, baņa gixon zintzua dirudixu zeure berbaikeran eta galduko enozun uste osua daukat zeugan. Baņa jazo egin biař dana jazo egingo da-ta, betoř etořteko dana!

—Asi, gixona; asi ardura barik zeure arazo ori esaten.

—Jakin egixu lenen-lenen ni ondasunez josifa nagola; aberats okiřuba nazala. Ořařiņo, ixatez, gorputzez, zeuk irudifu ziņegijan gixonik mazkal ta itxurabakuenta baño ezaņagua nayatzu. Dařayodan. Nire luřak eta etxaguntzak beste zaldun batenen albuan dagoz, mugak biřařte. Alaba ezin edeřago bat daukotsu zaldun onek, eta nire ondasunak begiz jorik, alaba au emaztetzat niri emotia egin dau burupidia, naiz-ta ni, esan dautsudanez, gixon txatxařa ta itxusija ixan. Bein eta biřiřan eta irutan be etoři yat zaldun ori eraso gurarik, neskatileari berba egin dagijodan; baņa ez nire arpegi poliřagafik, neure diru ta ondasunak-ařen

baño. ¡Bai eta neure polifāsuna! ¡Ardura asko dautso areri ez nire jaska ez neure bizijak be, otu yakona lortu ezkerro ni urkatuta ikustia be baádin litxakijo-ta.

—¿Aberatsa zara zu, beraz?

—Aberatsa be aberatsa, bai abelgoáinan, bai ardiáinan, bai etxaguntzetan eta baáa edozetan be.

—¿Zure domubaren etoárijak zenbatsu joten dozuz?

—Urte bategaz beste, sei mila dukat, edo biarba, geyago.

—¡Demoninentresa! Oáenbesterik eztaukon makiána bat markes ba-da basteretan. Eta zure auzoko zalduna be, aberatsa da, ala?

—Nasai asko bixi da; baáa nire aldian landeá bat dozu a.

—¿Zenbateragiáoko irabazijak ixan legiz ak?

—Mila bat dukat, geyen-geyen be.

—Ezta oáen txirua, oááino. Eta, ganera, jatoáonekua?

—Etxerik andikijenetarikua.

—Eta, ezkontsaririk eztautsu emon gura-edo, ala?

—Bai; ba-daust emon gura. Zagoz pizka baten gixona dan-dana esango dautsut-eta. Baáa emen baáuban ezin dot berbarik ondo egin, eta obeto egingo zeunke zoá oneri abua azkatutia, buruba atera dagidan besterik ezian. Bai, gixona; neure esangua esanda gero lotu ta estutu zináegi baáiro, eztoá buruba zetarako kanpuan luzaruago euki-ta.

—Pozik, atan be. Ona emen zoáuari abua azkatuta, eta egin berba orain lasa. ¡Ako maáauaren arpegija dozuna zeuk! ¡Enparaduba arpegijaren eduko

ba' dozu, bestelako txori-malua etzara zeu solo erdijan iminfeko!

—Atera nagixu zoñotik oso-osuan, eta aurđuban ikusiko dozu zerikusiko ikuskixuna.

—Bai, baña gero, esatekua esan ostian, atzera sartu biariko dozu baruban.

—¿Zer diñotsut besterik, ba? Berbea berba, gixona. Alde oretatik ardura barik egon.

—¡Benetan; ařano ařanua! ¡Zuk daukostazu zaldunaren jasa! —egin eban oyu amabijak Bertolda burutik biatzetara ikustian—. ¡Ala Jainkua! ¡Eguno eztoť ikusi neure aurian zu baño pizti baregarıjagorik! Eta, ¿andre-gayak ikusi ete-zafuz zu?

—Eguno bez —erantzun eutsan Bertolda'k— eta egin-egiñian be, neskatileak ikusi enagijan sartu ixan nabe ni zoño onetan, eta neskatilea bera be gela onetara ekaři gura dabe, eta dana ilunetan dala nigaz ezkondu erazo; eta ezkondata gero aterako nabe ni argifara eta orduban neskatileak, gura-nai-ez, senarťzat arťtu biar ixango nau. Olantxe egiteko dago erabagıřa, beñipein, eta bafa, ezkondata gero, beingo-beinguan bi mila amaseiko uregořıřan eskuratuko daustezala, bakan-dereak berak eskontsarıťzat neuretzako emonak.

—¡Au bai dala ixatekua! Oneri, inpernuko pıťtija dirudijan oneri, aberatsa dalako, andikijak eurak be senide arťteko ixan gura yabilkoz. Eta niri, barız, itxurabako matxango onen aldian mila bidař yayuago nazan oneri, txirua nazalako, amesetan be ezin leťekit olako zorijonik etoři. Dirubak; diru madarikatubak daukoz eru gustıřak. ¡Eta jasan egin biarť!

—Gixon ixango ba'ziña, neuk egingo zendukedaz aberats gaba onetan.

—¿Zelan, baña?

—Nik, dana-dala, asmauta daukot zer egin, eta ezetara be enabe ni indārez-indāř ezkonduko. Ořafiño, nire ordez sařtu gura ba'ziñegi zuk zořo onetan, zeure eskubetan itziko neuke zuk zorijon anditzat etsifen dozun ori.

—Enintzake bestelako zorua ixango olakorik egiñeko! Zořo bařuban dagona, zu barik, ni nazala agertu leñenekoxe, kokotian txikotaz marapilo bat egin eta eskegi egingo nindukie!

—¡Susmau be ez egin olakorik, gixona! Neskatilea ta bijok ezkondu zagijezeneko, eta zořua zabaldua zu agiri, eta gaste jasekua ta edonoren auřian auřkeztuteko lakoxia zareala ikusi, ez uste ixan neskatileak atzerarik egingo dauanik. Eta egingo ba'leu, osterara, berentzat txarago, bein egiñiko ezkontzea iñok ezin daikelako ausi, ta neskatileak gura-nai-ez, zu aren senar ixango ziñatekezalako beti. Ganera, abindurik dagozan areik bi mila amaseikuak be arapau egingo zeunkez zuk, eta dirubon jaube egin ezkerro, esku-utsik be etziñatekez ezkontzara juango. Eta neskatilearen ařak, oneik eta areik dendunian imiñirik, eta gixagaxuak, zařa be ba-da-ta, urte askorik eztauala bixirik iraungo oldozturik, egiña egin esango leuke ta egiñikua ontzat ařtu. Eta zu, zeure diruben jaube eta arein ondasunen jaubegai egiñik, erakusmenian bixi ixango ziñatekez ondo ta dedugaři, eta etzeunke orain diñarduzun zeregin lotsagaři ořetan eguno jardun biar ixango.

—Esan, bai; érez diñozuz zuk gauzak. Baña eneu-ke nik neure buruba galtzorijan imiñi gura.

—¡Zure gixagaxua! —iñotsan Bertolda'k amabijari — ¡Zer diñozun be eztakixun gixagaxo-gixagaxua! ¿Zer txarik etoñi ete-lefēkixu zuri arazo onetan sañtiaz? ¿Neskatilearen añak ezetsi egingo zañuzala uste al-dozu, ta ezkonduta gero, atan be? ¿Neskatileak, xatolasun eta apaltasun berbera dan neskatila oñek, etzañuzala gura esan dagixun bildur ete-zara, ba? ¿Ala bakandereak, bere buruba iñongo bakanderarik emokoñen eta esku-zabalenatzat daukon bakandera oñek, abinduriko dirubak lazkaue ez eta bere buruba gustijen aurian zekentzak agertu bai gura ixango dauala uste ete-dozu! ¡Ai, zure buruba! Ikusten bai'nenguan dakit zer jazoko dan: Jaungoikuak alan gura ixan dauala-ta, atakotzak arturik eta atara jañirik, buruba makuñru egingo dabe gustijak; eta ez uste ixan iñok muñtik atarako dauanik beren abotik, zeri ixilik egon gustijak eukiko dabe-ta. Eta orduban zu, zeure emaztiaren etxera juango zara; ta urte asko barik aldi gitxiren buruban, ango ondasunen jaube ixango zara; ta gustijak men eta guñ egingo dautsube, ixan be andikija ixango zarealako. ¡Zabaldue egixuz begijok bila yabiltzun zorijon ori ikusteko; eta olako abagadunarik eztala egunaro agertuten oldoztu egixu!

—Ara, ba; oñen leun eta garbi bidia iminñen dautazun ezkerre, nik, egija esan, ija-ija gogua be ba-dot arazo oñetan sañtzeko. Beti entzun dot nik esaten zorijona loñtuteko norberak be norberen aldetik zerbait egin biar dauala. Gure aña zanak beti esaten euskun:

«eik alegin, iño ez adin», ta «eure burubari lagun akijo ta aut lagundu», ta «dienean ereztuna, ifini txirkan-dea», ta «ezkontzea ta agintzea zerurean yatořguz». Eta, ¿nok daki, ba, zerubak berak ezte ete-dauan zorijon au niretzako gertuta euki?

—Eztakit nik olako bařitsukeririk. Zorijona esku-betara yatořkunian geuk ezagutu ezik, beren atzetik ibilfen gara gero, baña alpeřik. Zerubak emoi au zeuri egin gura ba'dautsu, ¿zergařik zuk ez artu gura? Nik ba-dakit, ondo be, zu etziñatekezena ořen atzekatxu egongo nire zintzotasuna ezagutuko ba'zendu; baña, dana-dala, egixu zeuk gura dozuna. Nik neuk eztot neure buruba geyago nekatu gura lo egon gura dauana iratzařtuten. Esan bial ixan dodana esan dot -eta, ba-nua neu atzera zořora bařura. Tira; zatoz. Estutu egidazu zořuaren abua len egon dan lez, eta eztaust iñok berba geyagorik atarazoko, ez-ta ludiko ure gustijakařik be!

—Zagoz, gixona; zagoz piska baten. Bařuban sařtzeko ba-daukozu astija oindiño.

—Astija euki daukozula, etzařez astijaren begira jaři, iges egingo dautsu-ta. Edo atxiñakuak esan oi eben lez; «galdu ezegik aldia ta idoro daik naia». Zeure zorijona nondik yatořtzun eztozu zuk begiratu be egin gura, eta neuk be eztot neure buruba alpeřik eyo gura, zorotzat enagijen euki; onik gura eztauanari on egin -gura jařdutia orixe baño eztalako: zorakerija.

—Ez nigarařik ori esan —iñuan amabijak—; nik ondo ezagututen dot ořeik zure berbok neuri daustazun oneretxijak eragiñikuak dirala, ta ba-dakust,

baña, neure onaren nekatuten diñarduzula. Eztautsat, beraz, zure ontasun oferi gogait eragin gura, ta emen naukozu zoño bañuban saitzeko ta esan daustasun gustija egiteko gertu. Ba-dakit nik neskatileaz bein ezkondu ezkerro, guraso ta enparadubak eruapena aritu bial ixango dabena; baña eurak gura ez-ta be.

—Tira, tira; naikua da bañiketarik. Zatoz; eta itxi abua zoñuari, bañura nua-ta.

—Itxaron, gixona; etzañez zu saitu, neuk saitu bial dot-eta.

—Ezetz diñotsut. Eztot orain neuk zu saitzerik gura. Erdu; euki zabal zoñuaren abua saitu nañian.

—Añen, ezegidazu kendu esku arterik alako zori-jonik. Ukaña bai'litzan eskatuten dautsut; ezegidazu ukarik ukatu.

—¡Ukar egiterik ezin negixu ukatu; ez orixe! ¡Azkenian be neuk amore emon bial; baña setatsu egon zareana ta gogait eragin daustazuna zeuk be ba-dozu igarten! Saitu zañez bañura ta ¡berbarik ez geyago! Zagoz zu emen lasai berez etoñi bial dauanaren adi, ta bial goxian zeuk ikusiko dozu gauñ nik zugaz egin dodan egiñena.

—Gixon zindotzat eta tolesbakotzat ezpa'zeunkadaz, ez uste oñen eñez itziko neutsanik neure burubari zoño onetan saitzen; baña ba-dakust zu on utsa zareana.

—¡Zerubak berba eragin dautsu orain! Tira; saitu ondo beste beso au be ta makuñtu buruba pizka bat: ni baño garayago zara-ta, ezin-ixango neunskijo osterantzian zoñuari abua lotu.


—¡Oi ene, nire samea! ¡Okeñtu yat sekulako! ¿Lotu al-dozu ondo? ¡Amañu bein edo bein, ba! Zuk esan dozunez, laster dira etoñi guraso ta enparadubak, ¿ezta?

—Bai; gexu baten. Ordu bi edo iru bañu egin dozu zuk zure egingua. Ara; amañu dodaz lotukixunok eta zagoz orain geldi-geldi. Txistik be ez atara oñtik bañtik —¿entzun dozu?— bial dan letxe urten dagijan ondo arazo onek —¿entzun?

—Ba-nago ni ixilik. Baña zu; imiñi nagixu ormeari deusodala, osterantzian onen luzaro zutunik egon ezkerro nekatu egingo naz-eta.

—Oñ oñ, ba, oñman irozota. ¡Auntxe zagoz ondo baño obeto.





BERTOLDA AZKE

Bertolda'k, amabi kaikutzaía zoño bañuban imiñi ebanian, berpertatik iges egitia erabagi eban, urango goxian lepo ganera etoñi biar ekijon ekatxari itxaron barik; eta bakanderearen gelatik bañuna igaro biar ixanik, ate zirikifuban belaríja ezaríña zeletan egon zan zati baten ezer entzun edo iñor nabañu ete-eukian. Ezeban bañu aldetik zarata txikaríña be asmaten eta, antza, lenengo lotaldijan egozan gustijak. Bera eguan gelako atia geldiro-geldiro idegirik, aretuan sañtu zan, eta aretotik bakandereak lo egiten eban gelan. Ixil-ixilik aren oera ureratuta, lo-zoñuan aurkiñu eban bakanderea. Beriala otu yakon ixeka bañi bat egitia, ta bakanderearen soñekuak osturik, aldian imiñi zifuzan eta, onetara, andrazko jantzíña igaro zifuzan bakanderearen otseintzako andradijen lo-gela gustijak. Ain zuzen be, iñudiaren oe-adañetik eskegíña idoro zifuzan jauregiko giltzak, eta ate ta urteyera gustijak bata bestiaren urango trebetasun andiz idegirik, begi-itxi-edegi baten aurkiñu eban bere buruba jauregíñik lekore. Orañño, eduña ixan zan gaba atan, eta kalia

zurifuta eguanez, bildur zan onatzetatik aztařena artu ez egijoen eta eskutau al etekian gorde-lekuba eřezalaurik bařiro oratu ez egijen. Galtzori au uruntzeko, onetakuak erantzi eta atzekoz-auřera jantzi zifuzan ostera be, onetara oskijen onatzak arantz jua joian norbařenak barik, onantz etoři etořen bat-edo-batenak irudifu egijen, eta tayu onetan, nora jo ezekijala, batera ta bestera ibili zan kalerik-kale zati baten. Azkenian, uriko orma-esi bařu-aldian laba bat aurkifu eban, eta laba aretan sarřtu zan.

Eguna etořifa, sarřtu ziran andrandi gastiak bakanderea janzten, eta zurřzauta geldifu ziran bakandereari gabez erantzi eutsezan soņekuak idoro ezifian. Begiratu emen, arakatu an, zokondo ta basterř gustijak ondo-ondo ikuskatu, ta soņekorik agertu ez! Guenian, gogařu yakon bakandereari ta, beste soņeko batzuk erakařifa, asaře baņo asařiago jagi zan oetik eta trumoia lez jua zan Bertolda zořo bařuban itzi eban gelara. Eta —ja zan ixatekua!—: len soņekuak itzaldu eta orain Bertolda jagoten imiņi eban amabija ayenatu! ¿Jagolea bera ixan ete-zan, ba, soņekuak ostu eutsazana, ta, lapuřetea egiņik alde egin ete-eutsan kalera? Auxe susmo au sarřtu yakon bakandereari buru-buruban, eta buruban sarřtunaz batera zin egin eban jagolea topau al ba-egijan topau, beingo-beinguan urkatuteko egingo ebala agindu. Uřeratu zan gero orman irozota egua zořuagana ta ba-difauntso:

—¿Da? Ene gixontxu enia; ¿bařt ixan zenduban gogaro galantaz al-zagoz oindiņo be?

—Ez, andrea; ez — erantzun eutsan amabijak zoño barútik — Albait ariñen aítzeko gerturik nago orain.

—¿Zer da aítzeko gertu zagozana; osakaya, oyez?

—¿Eztozube oindiño gertu, ala?

—Ointxe berton gertu eragingo dogu.

—Albait ariñen amaitzen ba'dozube, niretzat oba.

—Atsegin ori ixateko eztozu luzaro itxaron biar ixango.

—¡Orduban bai nire poza! Luze eretxiña be ba-nago daguaneko. Tira, ekañi dagijela nigana ointxe-ointxe.

—Gexu baten eruango zafugula diñotsut, gixona; egon lasa.

—¿Nora, baña, ni eruan? Gure egijunea ezta ixan olan, bera gela onetara etoítzeko baño, ta ni ez-ezagun nayakolarik, a ta ni alkañegaz ezkondu eta beriala nik bi mila amaseikuak uręgoriñan jasotia. Ekañi egidazube, beraz, ona, neugana, eta egingo dot nik neuk egin biar dodana.

—¿Zer ezkontza eta nongo amaseikuak diñostaz txatxal onek? Atera egidazube pizka baten zoño barútik, arpegija ikusi dagijodan, ia. —¿Nok imiñi zafuz zu zoño oítetan? —iñauñdu eutsan bakandereak, Bertolda'k barik amabijak zoño barútik urten ebanian.

—Senaña ixan biar ebanak berak; eta egin-egiñian be, zubek emaztetzat emon gura dautsozuben neskañilea berak gura eztaualako, neuretzat itzi daust zoriñon andi ori.

—¡Zer emazte ta emazte-ondo! Argi egidazu berba uler̄tu dagitsudan.

—Ba-diñotsut, ba: areri itxurabako baseñifañari emon gura ixan dautsozuben emaztia, ta aren ganerako bi mila amaseikuak.

—¿Ori ipuin ori adierazo al-dautsu arek?

—¿Ipuña, ostera? Bene-benetan esan daust niri arek: emaztia ta amaseikuak.

—Orezkero, ointxe-ointxe aginduko dot amaseikuok ekañteko. Arñiatan gertu zañez zu arñzeko eta egijuneak diñon lez, zeure lepo ganian eruango dozuz. ¡Ixango dozuz, bai, amaseikuak eta zortzikuak, eta baña zaragi-dantzea be!

—¡Oretarako baño enago emen iragoko ordubetan, eta ordu bakotxari mila urte baxen luze eretxiña, egon be! Amaseikuak, gero, pixo onekuak ixan biar̄ dabe, ta zarata onekuak, ¿entzun?

—Zeuk egingo dozu ameseikuen kopuruba, ta az-tunian edo zaratean onak ezpa'litzaz, ordiazkuak emongo dautsuguz. Arñiatan, ointxerik asi zenbatuten, eta arintxuegijak ba'zeneritxoz, esan ardura barik.

Eta bakandereak au esanaz batera, lau moñosko eskubetan makila eder̄ banagaz ekañi eragin eta amabi gaxua oraturik, makilaka emonalak emoten asi yakazan bat-batian. ¡Aren arantzak; aren alarauak; aren diadañak, amaseikuak emon biarñian lepua makilaka bir̄indu biar̄ eutsela ikusiyeran! Ezeutsen gañaxijok ezetarako balijo ixan gixagaxuari, eta makiladunak etziran lotu joñaketan amabija ilda lez beianganian itzi ez arñian. Baña au be etzan bakanderearentzat

naikorik ixan, eta zoño aretan bertan bañiro sañtu eragiñik, ibaira eruateko agindū eta uretara jauñti eben zoño bañuban. ¡Onetara amañu ziñuzan bere egunak amabi gaxuak! ¡Amaseikuak jaso gura, ta maki-ladak josa biar! ¡Emaztia betiko añtzeko ames egin, eta bete-beteko mustadea añtu eragin! ¡Adige-ibaiko ondañak ba-daki ondo gaxo aren bañi!

Amabi gaxua urez asetzen bialdu ostian, alegin andijak egin ziñubezen Bertolda idoroteko; baña eduñ ganeko oñatzak atzekoz-auñera egonik, begiñandū be etxakan iñori egiñen Bertolda'k jauregiñik urten ixan leukianik. Bakandereak, ala-ta-be, bere soñekuakaz eta amabijagaz egiñiko ixekeari ordurañteko gustijai baño lotsagañijagua eretxirik, Bertolda urkamendira bialtzeko baño beste gogorik ezeukan, eta ainbat lagun bialdu ziñuzan ara ta ona, basterē eta zokondo gustijetan gure gixona bilatu egijen.

Bertolda laba bañuban ezkutauta eguan, beraz, eta bila ebilkijozanen berbarua noxian-bein entzun egiñen ebanez, ilñeko bilduñra sañtu yakon eta mila bidañ damututa eguan bakaldun-jauregira etoñi biar ebala beñola otu ixatiaz. Bakandereak eukotsan kuñukea gogoraturik eta amabijaren eta soñekuen ixeka negañgañijaz amuñuba geñu egin ixan eikijola zuzen oldozturik, azañtu be etzan egiñen laba bañutik urteten atxilo añtu egijen bilduñez, ba-ekijalako berpertatik ezpai barik urkatuten eruango ebena. Baña, zoritxañez, al-dian eukan soñekua beretzat luziegija ixanik, etzan uañtu labako atia bañu aldetik itxikeran, gona mendel zati bat atako aldetik ondo sañtu barik itzi ebanik;

eta olako jazoeretan iñoiz utsik egifen eztaben aretariko atso batek, laba ondora uste-uste barik uferatuta, ikusi egin eban laba atetik dindilizka eguan gona mendela, eta ikusijez ganera, ezagutu be bai a gonea bakanderearen soñeko bateri egokijona zala. Atso arek bakanderea laba baruban egotiarri arigarri eritxon, eta kolkuan sartu yakon susmua edo egiztau edo gurzurtauteko ustez, labara juan eta zulo batetik barurantzza begiratu eban. Bene-benetan, bakanderearen jantzija zan, berak ondo be ondo ezagututen eban bakanderearen jantzija, ta, beraz, laba baruban eguana ezin eñekian bakanderea baño beste iñor ixan. Arik gitxigarrenian atso arek beste atso bateri esan eutsan bere idorokuntzea, ta beste atso arek beste bateri; eta onetara, aborik-abo eta miñik-min, eguberdarria orduko uri osuan zabal ebilen albistea: bakanderea uriko orma-esijetako laba baten baruban eguala. ¡Añearen; an sartzerik otu be egifia bakandereari!

Bakaldunaren belarrietara be eldu zan albista barregari au, ta Bertolda'ren malmuzkerija ta azarkuntzea ezaguturik, lenagotik be gauza gatxagorik asko ikusifa eukotsazan-da, ezeritxon ez gaitz ez zail Bertolda'k bakanderea laba aretara eruan al ixatiari. Astirik galdu barik, bakanderearen gelara zuzendu zan. Asazkaldi andi bat ixan eban, oratiño, bakanderea jauregijan aurkifutiaz, baña amuru-aldi andi batek jota idoro eban, eta zer jazo ixan ete-ekijon ifaundurik, soñekuakaz Bertolda'k egiñiko ixeka erakusmenekua edestu eutsan bakandereak. Bakaldunak, alameneko laba aretara lagundu egijoela eskatu eban, eta



– Auxe dozube Bertoldin, Bertolda'ren semia.....

ara eldurik eta labako atia zabaldurik, ara non aurkitzen daben baruban gure Bertolda, kokil-kokil egin-
da, bakanderearen soñekuakaz jantzirik.

—Azkenian be arapau zafut, maltzur, zifal, arano ori! —egin eban oyu bakaldunak— Baña oraingotan ezatxataz esku arterik juango edo diabrua bera zara!

—Baruban eztagona ezpedi sartu, ta sartu danari ezpekijo damutu —esan eban Bertolda'k.

—Etzakidaz niri eztabaidaka asi, alpeñik dozu-ta. Ia, zubek nire zaldunok eta nire epaya bete biar dozubenok; artu gixon au eta eruan ointxe berton zugatz batetik eskegifen. Baña, uartu ondo: ezegafik be ez jaramonik egin beronen berbai; ezer esan ba'daitsube soñ-ta-goñ egin zakijoje, azeri zantar bilau bat baño eztalako gixon au. Diabrua bera ariman sartuta ete-daukan nago, ta egunen baten, geure artetik kendu ezik, ondatu egingo gindukez gustijok. Ia, ba; igifu. Eruan egidazube ointxe-ointxe ta agindu yatzubena bete egixube ziatz eta alik lasteren.

—Iradu egiñiko gauzea ezta iñoiz ona ixaten —iñotsan Bertolda'k.

—Bakandereari egin dautsazun iraña andijegija danik parkatu al ixateko.

—Izpiderik gitxien daukonak, iñok baño garaxi geyago. Itzi egidazu niri neure buruba zurifuten, besterik ezian.

—Lenengotan parkatu, urenguan sakatu ta irugarrenian urkatu, esan darue. Eta zuk, iru bidañ ezeze, lautan eta geyagotan be iraindu dozu nire emaztia, ta

aldi bakotxian baño urenguan samiñago iraindu be. Tira; alde emetik.

—¿Egija esatiañen erijotzea jasan biar dot, beraz? Añen; etzakidaz oñen bijotz-gogoña ixan.

—Ondo dakixu zuk esakuneak zer diñon: «entzun, ikusi ta ixi, baketan nai ba' dozu bixi», eta «ugazabandrearri lotsea dautsonak, ugazaba mañe» Beraz, ez ekin geyago nire belarñiak goñtuten zure eskarijakaz, alpeñ-alpeñik ixango dozulako añenka eragotia; almaixian ura jo ta austu gura ixafia baño be alpeñago.

Au entzueran ba-iñotsan Bertolda'k bere burubari;

—Estura lañi onetan, ene Bertolda enia, leoia bera baxen kementsu agertu biar dozu zeure buruba, ta onei ergel gustijoi norarñtegiñoko zindua ta bijotz-zabala zarean erakutsi. Oñaziak eztirau norberen biziak dirauanarñte baño, eta saldu ezin dana emon egin biar da.

Eta bakaldunagana zuzendurik, ba-diñotso:

—Emen naukozu, ene bakaldun enia, zeuk agindu dozun gustija beteteko gertu. Oratiño, il orduko mesede bat eskatu gura neusketzu; egin ziñeistazan mesedietarik azkenekua ixango da.

—Emen nayagotzu neu be gertu eskatu daistazuna emoteko.

—Zugatz baten urkatuta il biar dodan ezkerro, agindu egijezu, añen, zure menpekuoi, enagijela eskegi neure gogoko zugatz bat aurkiñu ez arñian. Onetarra ixan ezkerro, pozik nayagotzu ilñeko.

—Mesede ori emona yatzu. Ia; eruan egixube gixon au urkatuten, eta neure asarñetan sarñtu gura ezpa'

dozube, ezegixube eskegi beronen gogoko zugatz batetik ixan ezik. ¿Ezer besterik nai al-dozu?

—Besterik eztautsut eskatuten, eta mila eskeñ, jauna.

Ezeban bakaldunak Bertolda'ren itzixuna ondo ulertu; ta aren zaldunak, agindu eutsena beteteko, aritu Bertolda gudarijen artian eta txikotez besubetatik lotuta baso andi batera eruan eben. Baña baso aretan zugatzik asko ta mueta gustijetarikuak egon aren, ezeban Bertolda'k bere gogo-betekorik batxubat be idoro. Beste baso batera eruan biar ixan eben, beraz, ta gero beste batera, ta geruago aragoko batera, baña alpeñik: Italiya'ko baso ta oyan gustijetan ibili aren, ezin ixan eban Bertolda'k bere gogoko zugatzik, ez landararik, ez aberik, ez enboñik idoro. Batzuk lodijegijak ziralako, bestetzuk txikijegijak; aren adarñak okeñak ziralako, bestiarenak, bañiz, meiak, gustijak eukotsen akatsen bat. Azkenian zaldunak, basorik-baso ibilijaren andiz gogait egiñik eta Bertolda'ren maltzurkerijaren aurka iñok ezin leukiala ezer egin ezaguturik, txikotak kendu ta azke itzi eben. Biguritu ziran zaldunak jauregira ta jazorikua edesturik, zurizauta, arifuta gelditu zan bakalduna Bertolda'ren zuritasunaz eta aren adimen zolijaz, eta munduban zanik bururik argijena zala ezagutu ta autoñtu biar ixan eban.

Bakaldunari asare aldiya igarorik, Bertolda'ren bila bialdu zifuzan lagun batzuk. Topau be egin eben azkenian, baña Bertolda'k, bakaldunak atzera jauregira juateko iñuala ta ordurartekeo gustijak parkatuta egozala entzun aren, ezetz erantzun eutsen: esateko

bakaldunari bañero beroturiko lapikokorik ez bigaeren lorako mafasunik etzirala bape on, eta etzeguala munduban norberen azkatsuna ordaintzeko ure naitkorik. Bakaldunak berberak juañ birañ ixañ ebañ Bertolda'reñ bira, ta otoi ta aeren, eta agindu ta abindu, azkenian lortu ebañ bere gurarija, ta naiz-ta Bertolda'k ezetzian eragon, eruañ egin ebañ jauregira ta bakandereari be parkatu eragin eutsañ. Aiezkeru Bertolda beti bixi ixañ zañ bakaldunaren onduañ eta ezebañ bakaldunak ezer egiteñ ez erabagirik aitzien Bertolda'ri lenago eretxija eskatu barik; eta arazu ta garatz gustijak ebiltzezan bata baño obeto. Baña Bertolda, baseñiko gauza aztunak jaten ofuta egonik, jauregiko mizkerijak jaten asi zaneko urdalefik gexotu zañ beriala, ta egunañ juañ eta egunañ etoñi, gatxa obarantz juañ birañian, txañerantz egin eutsañ eta il-agiñian jañi zañ.

Bakaldunak eta bakandereak atsekabe andija ixañ ebañ Bertolda'reñ gexo onegaz ta osagilañ ekiñalak egiteko agindu eutsen gexua osatuteko. Baña osagilak, alegiñik asko egin aeren, ezebañ ezagututen Bertolda'reñ ixakerea ta andikijai ta zaldunai emoten yakezan osakayak aginduten eutsezan gure gixonari be. Bertolda'k, bere buruba iñok baño obeto ezagututen ebañ-da, esañ eta esañ eragoioen berari lapiko bete baba emoteko, kipula andi bategaz baruban, eta baña erauts azpijañ egosiriko arbijak, eta beinguañ osatuko zala; baña osagilak ezebañ olakorik entzun be egin gura eta ezeutsen iñoiz atsegiñik egin.


Onetara il zañ, bere gurarija lortu barik, Esopo'reñ

idekotzat eukija ixan'zana ta azturuba bai'litzan andikijak eta ainbakuak entzun egiten eutsena. Jauregijan negar egin eben gustijak aren erijotzea zala-ta, ta bakaldunak deduzko iletak egin eutsazan. Arako osagi-lak be damu-damu eginda ebiltzezan, azkeneko egunetan ezeutselako emon jaten Bertolda'ri berak gura ixan ebana, ta ezagutu eben, baña zoritxarez berandu, bere oldea ez egin gura ixafiaren il ixan yakela.

Bakaldunak, Bertolda'ren gomutakiz, arlanduzko ilobi eder bat eregi eban eta urezko izkijakaz urengo duazen itz-neurtubok ezariaz zifuzan ilartitzat, eta jauregiko gustijai be baltzez jantzi erazo eutsen, andikijenik andikijena il ixan bai'litzan:

«Baseñiñaf landef bat, apal eta itzalik
 Datza ilobi onetan betiko eoñtzirik.
 Matxaña zan; ezeukan gixon itxurarik;
 Baña, adimenez, argi-zoli-zindua ixanik,
 Mundu osua itzi eban txit ariñurik.
 Bertolda eban ixena, ta bixi zalarik
 Bakaldunaren kutun ixatera eldurik,
 Jauregijan il zan oñazez beterik
 Ezeutselako jaten emon ez baba ez arbirik.»





BERTOLDA'REN AZKEN-NAYA

Bertolda'ren gelako ardurea euken otseñak, arek lo egiten eban oia tayatuten iñardubela, pildriskiz eta ingiz beteriko lotura bat aurkiñu eben otoz-otuan lastamañagearen bañuban, be aldian. Geyagoko barik, arñtu lastamañagea edo zalakua, ta bañuban eukozañakaz eta gustijakaz bakaldunari eruan eutsen. Eta bakaldunak dan-dana azkatu ta zabalduko aginñurik, ara non idoroten daben ingi ta idazki arein tañtñan Bertolda'k il baño egun asko auñerago emoniko azken-naya. Ezer baño len, bakaldunak, azken-nai au egin eban baratarijari beingo-beinguan etoñteko aginñu eutsan, bere auñian irakuñi egijan. Bai arin etoñi be baratarija, ta bakaldunari oi yakon gurkerea egiñez, ba-diñotso:

— Emen naukazu, ene jaun altsu oñek, aginñu daistazun edozer egiteko gertu.

— Esan; egin al-dozu zuk iñoiz Bertolda'ren azken-nairik?

— Bai, jaun altsu ori; bein egin ixan dot.

—¿Luzaro al-da egin zendubala?

—Ba-dira ixango urian iru ilabete.

—¿Ia au danentz? Eutsi, ba, ta irakuñi zeuk, ni neuk ezin ixango neukelako. Zubek baratarijok egin oi dozubezan ziriborñuak eztodaz nik eñez ulertzen, izkijen ordez kako-makuak baño eztozubez egifen-da.

—Egin-eginiñian be, jauna, ba, nik, ogetabi urte ikastolara ibilirikua ixan añen, ezin ixan dot iñoiz irakaslego malea igaro, ta eztakit idazten erijak egifen dauan eraz baño; eta, egija esan, biar be eztot geyago, ozte laubagaz atondu biar ixaten dot-eta.

—¿Zelan dozu zeuk ixena?

—Ordolo Doloretzeko derist, jauna.

—Ixen egokija, benetan; abixena be eztago oñen txarño, baña oba zeunke, nire ustez, Ordolo barik Mordolo ixena euki, zubek, inpernuko lumadunok, mundu osua mordolotu ta nastau egifen dozube-ta. Ia, ba, Ordolo jauna; irakuñi gogo onez, eta ondo ulertu dagitsudan ogutzi egidazu argi, zoli ta baratxe.

Ordolo jaunak, azken-naya irakuñiz, ba-diño:

«Asikera onaren ixenian ixan dedila, ta onerako bedike. Nik, Bertolda deristen onek, Bertolot zanaren seme, ta arako Bertuz Bertingo ta Bertolin Bertañako'ren iloba ta birloba onek, ikusirik gu gixasemiok, puxika andituben antz-antzera, edozein zistadak ustu ta autsez-iperdi botaten gafuzala; ta ezagaturik, baña, ni lez bein irurogetamañ urtera ezkeroko gixona ogetairu ordubak jota dagola esan dafekela, edo ba-lefekela beñipein ogetalaurak jo ezin al ixatia eta gero gustijoi gabon: gatz apur bat neure trentin onetan

daukodan aítian beintzat, neure arazo-marazuak atondu egin gura dodaz azken-nai pizka bat emonez, bai neure atsegiñerako ta bai neure aide ta beste enparadubak be lasaíu dedixan, esker-oneko ixan gura nayakoe-ta. Eta, beraz, aíen egíen dautsat une onetan neure onduan dagon Ordolo jaun oneri, azken-naitzat emoten dodan ilburuko au aldatu dagijala ingifara; eta len-lenik:

Izten dautsodaz Bertola jaun ziolari, neure lau soroko oski lodijak, eta ganera zortzi zuriko oraingo dirutan, nigaz beti ixan dalako mazal, eta bein baño sañijago itzi ixan daustalako beren estena zurúmai emendijo batzuk egíeko eta beste zer batzubetan be lagundu ixan daustalako, ta abar eta abar.

Bardin Mamukijo jaun baratzañari, neure lastozko kapelea, beñola baten, goxian-goiz, eskubete poru emon ixan eustazalako urdala garbi euki ta jateko gogua biztuteko.

Bardin Txolin jaun ardotegizañari, neure ugal luzia ta naruzko zizkuba, biar ixan dodan bakotxian pitxaña betetu ixan daustalako ta beste zeregin batzuk be egin ixan daustazalako.

Bardin Zukulin jaun sukaldarijari, neure aitzua bere magijagaz ta gustijagaz, noxipein erauts azpian neure gogoko diran arbijak egosi ixan daustazalako, eta bafa be iñoiz lapikotxu bete baba kipuleaz imiñi ixan daustalako, ixan be janari au nire ixakereari eratara yatorkana dalako ixan, eta opilak eta epeñak eta osterantzeko mizkerijak baño on geyago daustana egíen.

Bárdin autořtu biar dot, ni ona bera etoři nintzarian (an goyan baraurik ez gelditziařen, egija esan), ba-nebala mendijan beste iñor itzi: Markolbe neure emaztia, Bertoldin deritxon amar urte agiñeko seme bategaz. Baña, atzetik jařai ezekidezan, olako leku-betan agertzeko lango piztijak ezfira-ta, eneutsen adietan emon nora nentoren bixi ixaten, tentel antzekuak bait-dira. Eta ixanik ni etxaguntzatxu baten jaubeta abere batzuben ugazaba, batzuben eta bestiaren eta dodan gustijaren ugazabandratzat izten dot neure emazte Markolbe, semiak ogetabost urte egin dagikijozan arñian; eta urtiok betetzian, gustijoen jaun eta jaube semia dedila gura dot, baña baldintza oneikaz:

Iñoiz emazterik arťuko ba'leu, bera baño geyago dan andrarik arťu eztagikiala.

Adiřu ezin leikezan gauzakaz estafekela salerosketan asi.

Bera baño nagosijaguakaz eztafekela nabasi ixan.

Bere auzokuai eztagikioela kalterik egin.

Daukakian lain jan dagikiala, ta al dagikian giñuan lan egin.

Gixagalduen eta bada-ezpadakuen aolkurik eztagikiala arťu.

Gexorik dagon osagiliagandik eztagikiala osakairik arťu.

Eskubak ikara egifen dautsen bixargiñari, eztagikiola odola atarateko besorik emon.

Bakotxari beria emon dagikiola, zořik ez ixateko.

Bere arazo ta garatzetan zur eta adi dagokela.

Arđurarik eztautsoen gauzetan eztafekela sarťu.

Eta, batez be, bere egokereaz poztu dañekiala beti, ta obagorik gura ixanaz eztañekiala iñoiz irikatu, ta begiratu dagikiala bildotsa askotan ardiaren aurtetik juan duala, au da, erijotzeak, eskubetan beti oi daukan gezijaz, zañ naiz gaste bañdin aparatzen diñuzala. Eta emen diñotsadazan gustijak sañi oldoztu ta auznañtu ba'daiz, kalte egin dagikion ezegaz eztauala iñoiz oztoporik egingo, ta azken zorijontsu ta ona baño obia dauala ixango.

Era berian autoñtu bialñ dot, enazala ezer geyagoren jaube, iñoiz eztautsadalako bakaldunari ezer añtu gura ixan. Eta naiz-ta ak alegiñik asko sañi egin, emon gura ixan daustazan ereztun, bitxi, diru, janzki, zaldi ta beste bezuza edeñik asko nik añtzeko, beti uste ixan dot aberaztasunokaz eneukiala ezer oldoztuko eta, bialñba, mila lotsabagekeri eginda, gustijentzat goñotogañi ixango nintzakiala, ba-dazaudazalako nik batzuren-batzuk soñtzetik ezerez eta bilauak ixanik eta euren aduak gura ixanda gixona igon dañeken goren-go mañetara eldurik, alan be, igoera garbirik ixan eztañbelako, jayotzatik aldian dakañen lupetzea ezin dabela ganetik kendu. Baño, ni, txiro ilñeaz pozik nago: eta ekixube eztañdala iñoiz neure bakaldunagaz ezetariko zurikeririk erabili, bai ostera deñu ixan nauan bakotxian neure eretxija ta aolkuba emon, argi ta garbi berba egiñez eta ez bestetara. Eta bakaldunak berak ikusi dagijan nik neure azkenerañte dautsadan on-eretxija, idazki-agiri puzkok izten dautsadañ. Ba-dakit eztañtsela ingijoi mukeñ egingo; bai ostera eureango esanak ziatz bete, naiz-ta baseñiañ landeñ baten

abotik urtenak ixan. Ona emen zertzutan ardura ixan
biañ dauan:

Aztakiña beti dendunian eukiñian, naiz landerentzat dala naiz aberatsentzat ixan.

Auzijetan epaya jauñti orduko epaibidiak ondo ta ziatz arakatutian.

Amurutan dalarik iñor ez ebaztian.

Bere erijagaz mañekoña ixatian.

Zurikatzañiai ta biguñijai alde eragiñian, eta baña min labanak uxatutian, eurok ixan oi diralako jauregijetan su ezañten dabenak.

Zerga lañegi menpekuai ez ezañtian.

Alargun eta umezurñtzen babesa ixatian eta euren aldez garbi jokatzian.

Auzi arazuak igiñu erazotian eta auzilari gaxuai batera ta bestera, gora ta bera, egun eta egunetan auzitegijan ibiliazuaz ez gogait eragiñian.


Gomutagaitzat emoten dautsadazan aolkubok ziatz jabon ba'daiz, pozik eta alai ixango da bixi eta menpekuak jaun on eta zuzentzat ixango dabe euki.


Eta onenbestegaz, ba-damait.»


Bakaldunak, azken-nai au entzunik, eta berentzat itziriko gomutagayak ikusirik, negañari eutsin ezinda malko bete-betiak ixuri ziñuzan, eta etzan aspeñtzen edonori esaten gixon aren zurñtasuna ta berari euki ixan eutsan zintzotasuna, bai bixi zala eta baña ilda gero be. Eta Bertolda'ren azken-naya, bakalduntzako bitxi ta mañik edeñenen tañtian gordeteko aginñu eban.



BERTOLDIN 

 BERTOLDA'REN SEMIA






ERMINI BIDEZ-BIDE


Bertolda'ren erijotza ostian ezin eban etsi Alboin bakaldunak gixon ain zu'ra galdu ixatiaz. Ixan be, aren abotik urteniko berba bakotxa epairatzat ar'itu ixan lef'ekian, ain zentzun andiz itz egifen eban zendubak; eta aren zur'tasunari eskerak, ainbat eta ainbat zoritxa' eta galtzori uxatu ta ur'undu al ixan zi'fuzan bakaldunak jauregifik eta bakalderifik. Ba-eritxon bakaldunari ezin zefekiala bera bixi Bertolda'ren antzerako besteren bat bere albuan euki ezik, arek, ba, bakalduntzako gora-beretan eta arazo urten-eziñetan aolkuba emon eta galtzorijak uarterazuez ganera, atsekabe ta ifunaldijetan be ba-ekitson gogua argifu ta biztuten, edo zala berba leunez edo-ta esakera ta ipuin baregarijen bidez. Eta oldoztu ta oldoztu eragoion Bertolda'ren ondorenguen ar'terik inor ixan ez ete-lef'ekiantz, aren zur'tasun eta maltzur'tasunekorik ixan ezaren be, besterik ezian, aren adimen pizka bat eta aren antz apur' bat ixan leukianik, beren albuan eukijaz

Bertolda'ren gomuta goguangañija sañi-sañi burura erakañi egijon. Eta oldozkunotan iñardubalarik, Bertolda'k, bere azken-nayan, emaztia ta Bertoldin ixeneko seme bat ixentetan zifuzala oñordekotzat gomuta yakon. Azken-nayak, oñafiño, eziñuan ez non ez zein lekutan bixi ziran oñordekuok, eta ixanik, antza, urifañak barik, baseñifañak edo beñipein mendi aldekuak eta, beraz, laña-gixakumiak eta urijetatik, aurki, urun bixi ziranak, lagun batzuk bialdu biar zifuzala arein bila otu yakon, munduban bixi ba'ziran beintzat, mendirik-mendi ta baseñirik-baseñi ekiñalak eginda, ama-semiak idoro ta jauregira ekañteko. Eta asmo onetan ekin eta eragon, Ermini eritxon jauregi-gixon bateri deñu eutsan, otseñeterik zinñuetanarikua bera, eta geyagoko barik zaldi ganera igon eta lagun batzuk arñturik bidian asteko aginñu eutsan Bertolda zanaren emaztia ta semia idoroteko eta idorotakuan jauregira ekañteko. Eta isituki eta joran andiz eskatu eutsan, berak Bertolda'ri ixan eutsan mañasuna-añen, alegiñak alegin egijazala bere gurarija ziara beteteko.

Bakaldunaren aginñuba entzueran, egokijon gurkerea egin eta astirik galdu barik zenbait lagun arñtu zifuzan Ermini'k, eta zaldi ganietara igonik, bidez-bide asi ziran gustijak. Mendirik-mendi, ibili ta ibili, baseñi gustijetan ixan ziran, eta bidian aurkiñuten zifubezan lagun gustijai iñfunduten eutsen ia eurak bila ebiltzezanen bañi zerbait emon ete-legikioenentz. Baña eguno ezeben iñor idoroten arein bañi ekijanik eta ija gogait eginda, uste gustijak galduta ebiltzezan bakaldunaren aginñu estuba ezin bete ixango ebelakuan, antza za-



Markolbe'k amuko puzka bat arñuta, lau arñdatz eta oski zañ eli bategaz batera otzara baten sañtu zifuzan, eta katu-eme bat eta oiua be aldian arturik, zaldun areikaz urirantz abijau zan....




nez, ama-semiak barik jauregira ez bigurtzeko agindu eutsen bakaldunak-eta.

Azkenian, bidiak eta bidiak ibili ostian, basa-piztijak baño bixi ezin lefekezala zirudijan mendi latz eta oyantsu batera eldu ziran, eta alde aretan basua ta laña ta aldatz pikak eta arkaitz ixugarriak baño besterik ez ikusirik, damututa be ba-egozan ara juañ ixanaz, eta zaldijai atzera eragiñez, aldatza bera asi ziran. Be-aldetxuko zabale batera eldueran, basuari inguru egiten eutsan bide zioñ bat aurkitu eben; arek bidiak, beñipein, nora edo ara eruango zifuzalakuan, gixonen eta aberien oñatzak be ugari agiri ziran-da, axe bidia arñtu eben, eta juañ eta ibili, baso itzaltsu arek bañu aldian eukan zabaluna andi batera jo eben. A zabalunea, iparaldetik, arte tantai itzaltsuz inguraturik eguan, eta egoaldetik, bañiz, argijagua ixan arñen, atxez eta arkaitzez moltzaturikua zan, eta ba-zirudijan ixadijak berakotan egiñiko erakusmeneko gotoñleku bat zala. Toki arñen erdijan eta muna baten, txabola antzeko etxetxu bat agiri zan, luñezko ormak eta bedañezko telatuba zifuzala. Ate aurñan, itxura matxarereko andratxu batek, goru makilea gañijan ebala, firu ta firu eragoion gorubetan, eguzki galdatan. Andratxubak gure lagunak ikusi zifuzanekoxe, jagi jezarña eguan tokiñik eta arñin baño arñnago txabolan sarñtu zan; eta alako gixon itxurarik arñen lekutan ikusten ofuta ez egonik, atia ondo-ondo itxi ta atxurñ kirtena eskubetan arñturik, gotoñtu egin eban bere buruba etxe baruban, kalte egiten etoñi ete-ekijozan bildurñ zan-da. A andrea Bertolda'ren emaztia zan, eta Bertoldin bere

semiagaz (olantxe eritxon semiari) basa-maurtu aretan
bixi zan, galbaña baño solago egozan aitz batzuben
ganetxuban eregiriko etxetxu aretan. Semiak ba-eu-
kotsazan amalau-amabost bat urte, ta une aretan ba-
suan zan, auntzak bazkatzeko juanda. Andreari, bañiz,
Markolbe eritxon.





MARKOLBE'REN ETXIAN

Ba-ekusan Ermini'k andratxuba etxe baruban sarfuta gotortu egin yakela. Ba-ekusan, baña, txabola atako ate zistril a ukabilkada bat jota luñera bota alixan eukiala. Alan be, ezaban indarkeririk edo basatikeririk egin gura ixan, eta otzan-otzan oles egin ostian asi yakan esaten onian-onian idegi egijuela atia ta ikusiko ebala ezetozela kalterik egiten ona ekarten baño. Andreak, orañño, kezkatu, txabolako leyatila batetik buruba ateraurik, ba-diñotse:

—¿Zeren bila zatoze ona, aitz ganiotara?

—Atia idegi egiguzu, andrea, on egiten baño ez-kayatoritzuz-da.

—Nekez on egin dagikio inñori, norberen etxetik urun dagonak.

—Geure etxetik urun egon añen, onik asko egin dagiketsugu. Urten egixu apur baten, berba egin gura dautsugu-fa.

—Neure etxetik urten erazo gurarik yatorđana, on egiten baño kalte egin gurago ete-yabiltan nago;

zuaze baketan zeuben bidetik. Auxe ixango da egin ziñeistein onik andijena.

— Esan, ene andratxu enia; ¿senañik ba-al-dozu?

— Inoren bañi jakin gurarik dabilena, norberen arazuen ardura andirik eztauala dau ezagun.

— ¡Ondo esana; bai bein! Baña adei-legez, besterik ezian, erantzun egidazu ia senañik dozunentz.

— Ba-neuke ixango, jan ixan ezpa'leu.

— ¡Orixe bai bañijaren bañija! Eta, ¿zelan ixango zeunke, ba. jan ixan ezpa'leu?

— Poloirik eta eperik eta faisarik eta usakumarik eta bere ixakerearen kaltezko beste mizkeri askorik jan ixan ezpa'leu eta lenengotarik ofuta eguan gaztañak-eta jaten jañafu ixan ba'leu, oindiño bixirik iraun eukian. Orain, bañiz, ilik dago.

— ¡Aukera edeña, benetan! Baña, esan; ¿nor zan zure senaña?, atsegin ba'dozu.

— Munduban ikusi al dafeken gixonik edeñen eta jasekuena.

— ¿Ixenez zelan eritxon?

— Irrikatzen zagoz jakin añtlan eta esan egingo dautsut: Bertolda eritxon.

— ¿Bertolda al-zan zure senaña?

— Bai, jauna; bai

— ¡Berebixiko albistea guretzat! Eta Bertolda ete-zan, ba, munduko gixonik edeñena?

— Nire begijen auñian, beintzat, Narkis'en idekua zirudijan. Edeñtasuna gorputzian dago, jakiña, baña sañijago gixonaren onbidietan eta aren arimako edergañijetan. Agañik diño esakuneak: eztaala edeñ edeña

dana, norberen atsegiñeko dana baño; eta ixan be, ba-dira gixonik asko gorputzez eder ixan aren, ixapidez ezaingarí baño ezaingaríjago diranak; eta beste asko, osterá, itxuraz itxusijak ixanda be, zerubak emon ixan dautsezan doaien bitartez, mañagarí ta eder egíten yakuzanak eurekaz artu-emonetan bixi biar dogunoi. Auxe berau jazo ixan zan Bertolda nire senaragaz be.

—¿Semerik ba-al-dozu bererik?

—Bat daukot, baña eztaukot.

—¿Zelan daukozu, euki ezpa'daukozu?

—Etxian dagonian, ba-daukodala esan dagiket; baña une onetan etxian eztaularik, ain barik nagola esan dagiket; ¿ez al-deritxazu zeuk be?

—Eta ¿non dago orain zure seme ori?

—Bere oskijai ifaundu ziñegijo, alde gustijetara beragaz batian juan oi dira-ta.

—Mendiko andrea ixateko, andra zoñotza zara zeu, gero.

—¡Oi! Irakasle onaren mendian egon nazala dot oñetan ezagun.

—Egija diñozu. Ara, ba, ene andrea; zugana zek ekañi nauan jakin erazo biar dautsut. Bakaldunak, gu gustijoen jaunak, zure semiaren eta bijon eske bialdu nau. Bertolda zure senara zanari ixan eutsan oneretxijagañik, bere onduan euki gura zafubez bijok, eta zure semia bere jañraigoko andikijenetarikua egin gura dau. Baña, ene andra enia, urten egixu atera ezeren kezka barik, diñardugun baño erosuago itz egin dagigun.

—Emen naukozu ba, ba. ¿Zer da esan gura daustazuna?

—Zer daukozu bazkaltzeko onik? —iñandu eutsan Ermini'k.

—Inoren lapikuetan zek dirakijan jakiteko usartu guraz dabilenak, berenak ondo miazkau dituz, antza —erantzun eutsan Markolbe'k.

—Emakume maltzurá zara, oráñño.

—Mendiko axe zorotz onek eraginda, aurki. Baña bazkaltzeko zer daukodan jakin artian estu ta artega zakustaz, eta ara esan: basoko lau bedartxu daukodaz egosten lapikotxu onetan, eta gatz barik, atan be.

—¿Lau bedar eta gatzik baga? ¡Eune! Eta, ¿zelan jan zeinkez?

—Jateko gogua lango ongaririk eztago jakijentzat! Beraz, gure maya, zure bakaldunarena berarena baxen ornifuba ta tayutuba ixan oi da guretzat. Mendi galur oneitan beti dator gosea jatoriduba baño askoz len: lanian inardutiak darakar gose ori. Eta sinistu egidazu: jantzar egotiak jakijak gozatsu eta on egiten dituz, eta egañi ixatiak, ura ezti ta zoragañi.

—Bene-benetan, ene andrea; zeure berbaikerearen adi egonaz beraz ezagutzen da noren ikasle ixan zarean: eguno zentzun bako itzik ateraten ezeban Bertolda'rena. Baña, esan; ¿zelan edo zer egingo dogu zure semia ezugututeko?

—¡A ze infaunea! Zabaldu ondo begijok a etori dafenian eta ikusiko dozube, bai, itsubak ezpa'zarie beintzat.

—¡Egin biariko, alajaña! Baña, aren begira gago-

zen ar̄tian, mesede andi bat egingo zeunskigu edarife-
gira eruango ba'ginduzuz. Zaldi ganera igon garean
ezkero eztoigu mendijotan ur tanta bat bera be edan.

—¡Oba, ez! Bai, ene zaldunok; zatoze neugaz.

Eta Markolbe'k, ar̄tu gixonok eta etxe ondoko
erekatxu garden batera eruan zituzan. Ara eldurik,
ba-diñotse:

—Ona emen, zaldun zintzuok, nire ta neure se-
miaren edarife-gija. Onaxe etor̄ten gara egunaro a ta
bijok gure egañija kentzen, eta onaxe ekañten doguz
baña geure aberiak be. Edan egixube edan-ala gure
upelak utsifu ete-zeinkezan ardura бага, gabez nai
egunez beti jarijoka egon ar̄en, upelok ondo betiak da-
goz-eta. Edan, edan; edan nai dozuben beste, ta neuk
diñotsubet: iru egun osotan ekiñalian edan eta edan
ba'ziñardube bere, etziñatekeze ixolindu be egingo,
ezueri bildur̄ik ez susmorik be etzeunkie ixango, ez-ta
elbar̄i aztañenik be ar̄tuko, askotan jazo oi yaken le-
gez ardau lodi ta indar̄tsuz sabela neur̄i barik bete
daruenai, ardauok, ba, gogua bizkoñtu bai, baña baña
mila biañeztan eta zorigaisto ekañi be ba-dakijez egi-
ñen-da. Ganera, bañiz, gixonari, ardauak buruba bero-
tu ezkero, bañdin ixaten dautso edozein doloñkeri
eginda be, edo-ta edozein ganorabakokeri, kalekuen
bañegañi ta etxekuen negañgañi. Emendik edan oi
dauanak, ostera, beti dago gizaro batian eta beti dau-
ko buruba bere senian.

—Egi-egitan, andrea; zure edarife-gi au baño zin-
duagorik nekez aurkitu leñeke, eta zuk diñozun letxe,
eztago emeko upelak ustuta geldifu dañekezan bildu-

rik. Baña, ¿ez al-daukazu edontziren bat ur au aítze-ko, pizka bat edan dagigun, besterik ezian?

—Emen eztoigu antoxiñik ez pitxañik ofuten, osterantzeko ontzirik edo moñkorik be eztaukogu baña, egija esan. Baña edan gura dogunian, Jaungoikuak emoniko katilu edeñetik zurust egiten dogu edertosko; eskubak katilu biguñtzen doguzala esan gura dautsut.

—Paris'en Paris'en legez eta Erroman'en Erroma'n legez; eta guk be zuk diñozun eratara egin biariko dogu emen urik edatekotan. Baña, ¿noñ da or' auntzakaz onantz datoñen ori?

—Orixe dozube Bertoldin, Bertolda'ren semia.

—¡Au bai bañi pozgañija! Erdu ona, Bertoldin.

Bertoldin, bañiz, mirarñfuta gelditu zan zaldizko lagun areik ikustian.

—¿Nongo moñoiak edo zelako alkañen ganeko aberiak dira zugaz berbetan diñardubenok? —iñfaundu eban Bertoldin'ek.


—¡Edeñto sagardua! ¡Aberetzat añtu gañuz beronek bein-beñian! —uañtu eban Ermini'k.

—Urundik orixe begiñandu, gaxo oneri —urten eutsan Markolbe'k— Atoñ: atoñ auñera, seme, zaldunok berba egin gura daue-ta.

—¿Zaldunak, erdi gixon eta erdi zaldi dira, oyez?

—Egin-egiñian eztau ori esan gura ixan, besterik baño —atzaldu eutsen Markolbe'k.—Zaldi ganietan ikusten zafubez, bai, eta olakorik emeko mautubetan ikusi eztauanenez, zerbait esan gura ta or'exek urten dautso.

—¡Oneik dauke ankazkua! ¡Seiña bakotxak! ¡Oneik bai leberak arin ibilñeko!



—Ařen, jauna, mesede andi bat egidazu — esan eutsan Markolbe'k bakaldunari....

—Luñera eltzen dozaan laurok zaldijaren anakak dozak—esan eutsan amak—eta albuetatik dingilizka yaguazan bijak, bañiz, zaldiz yaguanaren bernak.

—Oneik aberiok beraunezko sabela-edo dabe. Antza, bai; burdiñea jaten daragoioe-ta.

—Bai, mutil; estañozko estiak yauezak—esan eban bareka Ermini'k—¡Au da mozoluaren andija! Eztau onek daborduko añaren antzik arñu gura! Zuñetan be zuña ta zoñotza eban onek a, baña beroneri laster yako igañi astokiño andi bat dana. ¿Zer atsegin arñu legi bakaldunak tenteltzar onegaz? Eztakit nik; baña dana-dala, eruan egin biar dot-eta.... Tira, i, Bertoldin; gertu adi, gugaz etoñi biar dok-eta!

—¿Nora eruan gura nozube, baña?

—Bakaldun jaunaren jauregira.

—¿Zetarako? ¿Andikijen antzera, otsein eta gusti bixi ixateko?

—Bai, txotxo. ¡Au zoragañizko memelotxuba!

—Eta jauregija zer da: ¿aña ala emia?

—Euk zelakua gura. Atoñ gugaz pozik eta eure zorijona antxe ezagutuko dot.

—Eta, ¿zelako soñekuaz dago jantzifa zorijon ori, ikusi ta beinguan ezagutu dagidan?

—Urrez, zilañez eta aribitxiz beteriko jantzijagaz. Eu be oñexetara jantziko aue, dotore baño dotoriago, ta andrandijakaz eta zaldunakaz autubetan iñarduko dok, eta gustijak men egingo daue, eta gustijak gur, bakaldunaren andikijenik andikijena bai'intzuan.

—Eta gure auntzak-eta eruan al neikez nik bakaldunaren aretora neuk gura dagidanian?

—¿Eruan ezin, osterera? Bai, aurki. Atoí, ezeren kezka barik. Eta zuk, ene andra oírek, ¿zelan dozu ixena, oindiño jakin barik nago-ta?

—Markolbe derist —erantzun eutsan andreak.

—Markolbe Anderea, etoíri nai ba'dozu, gertu zadiz zu be, ta guazen gustijok.

—¿Ni juan? Nik neure txabolatxu au iztia, naiz-ta etxe au zoyez eta zotzez egiña ixan, baseífañak bere maltzuíkerija iztia baxen gaitz dozu, ene zaldun ori. Eztot nik besterik gura al bait lenen emendik alde egin dagixuben baño. Mendiko ixakerea etxagoko uriko bixikereari ta eneuke nik an beian ondo ixango. Eta neure semetxu bakaí oneri be, aíren, ezegijozube nigantik aldendu erazo. ¿Zer egin daíke onek onik ni barik? Laugaíren egunera orduko galduta legoke gaxo au. Ama nayako, baña ondo dakit gai zakaírez egiña dana, ta iñok baño obeto dazaut buru ariña daukona. Bakaldunaren jauregijan gustijen baíregaíri ixango litzake gixagaxo au, ta nik baño obeto dakixube alako lekubetan olako txaldanik gura ixaten eztabena, gixon zuírak eta maltzuírak eta euren zeregiñak ziatz beteten dakijezenak baño.

—Jakin eztagijana irakatsi egingo yako. Ba-dau an irakasle onik ixango, ta azikera ta ikaskera onik ba-deutse an emongo.

—¿Zer diñok ik, osterera, ene Bertoldin oírek? ¿Ba-dok juan gura ala ez?

—Zugaz juatekotan etsi egingo neuke. Osterantzian eztot emetik urten gura.



BERTOLDIN URIJAN

—Orezkero, ondo ixan aiekian eta orenbeste zorijon galdu eztagikian, neu juango nok eugaz —esan eban Markolbe'k— Baña emetik alde egin orduko, auzoko andreari esan biar yeutsaat gure etxeari ardurea artzeko gu atzera etori artian.

—Eta nik, ¿nori itziko dautsadaz auntzak, ba? —ifaundu eutsan Bertoldin'ek.

—Ik be berari andreari itzi daiozak.

—Ez, ez; auntzak neuk eruan gura dodaz nik neure aurretik, makilatxubaz txaka-txaka.

Erabagi ta egin. Auzoko andreagana juanik, eskatu eutsan Markolbe'k, aien, bere etxiaren ardurea eukiiteko eurak uritik bigurtu artian; eta, gero, amuko puzka bat arturik, lau ardatzegaz eta oski zar eli battegaz batera, zaran baten baruban sartu zifuzan gus-tijak. Katu-eme bat eta olo bat eukazan eta arexek be artu bata zofo baten eta bestia altsuan, eta zaldunakaz urira juateko abija zan. Bertoldin zaldi ganian jezari gura ixan eben zaldunak, baña ezetara be ezin

ixan eutsen istarik zabaldu erazo, ta bestetera eziñik, ziařetara ta auzpaz zaldi ganian iminiřa, urun zořua bai'litzan eruan eben. Onetara zaldika-maldika ta Markolbe atzetxutik itzirik bera berekiřian oñez eroso etoři eřian, gure zaldunak urira eldu ziran. Bakaldunak, zaldunak etozala jakin ebaneko, bere jařaigo osuaz urten eutsen atadira, ta zaldi ganian zerbait ziařetara ekařela uařturik, baře algaraka asi yaken lenengo, ta ba-diñotso gero Ermini'ri:

—¿Nongo zaragija, edo zer da zaldi ganian ziařetara dakařzun mulko ori?

—Ene jaun altsuba —erantzun eutsan Ermini'k—; auxe dozu Bertoldin, Bertolda'ren semia. Mendi galdu baten, piztijak eurak be bixi ixateko destaņa egingo leuskijoen zokondo baten aurkiřu dogu bitxi au, ta beronen ama be ba-dakařtsugu. Arian be, lasteř ixango da emen andra ori, oñez datoř etoři baņa arin dabil ibili-ta.

—¿Zergařik eztozube ekaři mutil au zaldi ganian jasean jezařita?

—¿Nok jaři erazo ořetara, baņa? Egin doguz guk alegiñak zaldi-aulkijan jezaři erazoteko, baņa alpeřik, ezetara be eztiřuz istařak zabaldu gura ixan-da. ¡Oi, ene bakaldun enia; oba dozu mutil au beronen etxian atzera itzi! Kirikiñua baño latzagua dozu au eta morokila bera baño zakařagua, jauna, ta astuak egazka egiřen dakijela esan ezketiño be, siñistu egingo leuke txatxu onek. Azkeneko orduban, mendijan diřuzan auntzak, ala-ta-be onaxe jauregira ekaři biař diřuzala otu yako, ta Jaungoikuak berak daki guk igaro dogu-

zan nekiak aurtzik baga mendiko gaztaña ta eskuñ arterik berau aterateko ta al ixan dogun lez onagiño ekañteko.

—Tira; ezta oregañik ardura. Jatzi egixube zaldi ganetik bera, oingotz gixagaxo oñeri, era oñetan ekañtiz, estiak be ija abora etoñi yakoz-eta. Ia; zabiltze arduraz, miñik eragin eztagijozuben. Bene-benetan, arpegikeran eta gorpuzkeran ezin lei onek ukatu Bertolda'ren semia danik. Eta ixenez, ¿zelan dala diñozube?

—Bertoldin yako ixena, ta amari, bañiz, Markolbe. Ara, berau non datoñen. Andra zuña ta adimen zolikua dozu au, ene jauna; baña mutil onek ezñirudi beronen amak ez beronen añaak soñtuba danik, zein bata zein bestiañen iruntzietarakua dozu-ta.

—Jaungoikuak jabon eta eutsi zagixala, ene bakaldun altsu ori, eta Berari gura dakijola zure altasuna ta aginpidia egunetik egunera gefutia —esan eban Markolbe'k bakaldunagana eldueran.

—Eta baña zuri be opa dakixuzan atsegin gustijak emotia —jañdetsi eutsan bakaldunak— ¿Nekatu al -zara?

—Neke ixan egingo nintz, ibili ixan ezpa'nintz.

—¿Neke zelan baña, ibili ixan barik? Uleñkatxa da ori, argiruago esan ezik.

—Esango dautsut, ba. Norberen ugazabari bijotzez men egitiaren ni legez ibili dabilena, ezta iñoiz nekatuten; baña norberen gogoz ugazabari men egiten eztautsona, nekatu egiten da, naiz-ta astiro ibili eta baña bape igiñu ezañen be, gogua eta gurarija nagi ta neke diñuzalako ak bidian asi orduko.

—Etoñi baño eztozu egin eta berba batetik bestera zentzunez beteriko epaira bat jauñti dozu abotik; eta orixe da Bertolda kutunaren emaztia zareala jakifeko emon ziñeistan ezaugañirik argijena. Ia; tayatu ta arkolau dagijezala ama-semiontzat gela bana ta jantzi dagijezala dotore nire jañraigokuai yagokaen eraz. Au eginda gero, eruan dagijezala bijok bakandereagana.

—Añen, jauna, mesede andi bat egidazu —esan eutsan Markolbe'k bakaldunaren aginduba entzutian.

—Bai pozik be; esan zer nai dozun.

—Ezegiguzu gure agindu gure soñeko maiztxubok kentzen, aspaldiko urtiok eta urtiotan beste jantzirik eztogulako erabili soñian eta ain barik etsi be ezkeunkelako emen egingo. Zugatzari be, bere azal zañ eratzu ta kendu ezketiño, igalirik emon ezaz ganera, adañak igañtu egiten yakoz lenengo, ta gero enboñ ta sustrayak be bai, ta azkenez zugatz osua galdu egiten da. Oñez ganera, uñezko ta zilañezko apaingañ jakaz jantzi erazo ba'dagiguzu, oñenbeste bitxi ta adeluren tañtian geure burubak andi ikusirik, siñistu be ezin egin ixango dogu jatoñi oneko edo andiki-seme ezkareanik, eta gure landeñerijagaz oso aizturik, añotuta, andipuztuta, urlija ta berendijaren ganetik jañi gurarik asiko gara, ta azkenerako, andipuzkerijok astapuztu egingo gañubez, gustijen goñotagañi. Eztago, ez, ludi onetan, iñoiz ezer ixan ez eta goxetik gaberera ondasunez eta andiñasunez beterik bere buruba aũkitzen dauan doloñ baño ozañ lotsabakuagorik. Itzi egiguzu geure soñeko txiruokaz jantzen, eta euroi

begiraturik, beti egongo gara apal eta beti ixango gara mendu oneko, ugazaba ixateko barik otsein ixa- teko jayuak gara gu ixan be ta.

—Itz edeñak orain esan dozuzanak —egin eutsan bakaldunak — eta uañkañjak, bene-benetan. Zeure go- guaren zintzotasun eta zuzentasunaren erakuskañi ixanez ganera, itzok, argi erakusten dauste niri zeru- bak bañdin-bañdin edatuten diñuzala bere doaiak esku zabalez, zein mendi basteñetan, zein troka zokondue- tan, zein jakituri ta ikaste leku bakañak geuri irudiñu- ten yakuzan urijotan. Baña oñegatik beroñegatik, or- ain ariago gura dot soñeko apañakaz zu jantzija ixa- tia ta bakanderea bera baxen ondo otseinduba ixatia.

—Entzun egidazu, oñatiño, ene bakaldun andi oñek—esan eutsan Markolbe'k—Bertolda nire sena- ña zanak, beñola, suetiaren onduan gaztañak zurituten giñardubalarik edestu eustan izkilimeri bat, daragoio- gunagaz eratarra datoñela uste dot-eta.

—Gogorik onenagaz nayagotzu adi; asi esaten.

—Gure Bertolda'k aññari esaten entzun eutsanez, ba-ei-eguan asto bat Trebisonda aldian, keaztauriko angira-azalak untzietarik lioñeratuten diñubezan alde aretan, asto bat andija, garauba, erakusmeneko anka andiduna eta edozein zaldi baxen garaya. Asto oñek, bein, uñe ta añi-bitxidun aulkijakaz apainduta joiazan ainbat eta ainbat zaldi-arin eñotsu ikusi ei zifuzan, eta bitxikerijokaz eta ugaletan eta balaztetan eroiezan uñezko lokamu ta lañosakaz gelduta, ta lepotik bera dingilizka erabilezan anka-oyal edeñ eta dizdizarija- kaz zorabijauta, sañtu ei yakon buruban (jasto ixatia

zer ete-da!) berak be era aretara jantzita ibili biar ebala; ta eskatu ei eutsan ugazabari, bera ilda-gero asto-narubari ixango eutsan amodijuaeren, bera be zaldi-arin areik baxen dotore jantzi biar ebala, ure ta bitxidun aulki, ugal, balazta, anka-oyal eta gusti. Eta atomau ei yakon esaten, astua ixan aeren, zaldija baxen jatorri onekua zala, beste abere mueta gustijen antzera bera be egun beratan Jaungoikuak irazanikua zalako, ta antxiñatasunian ezereen alderik edo obaririk emon eikijon piztirik ezeguala luñaren ganian.

«Astuaren uzija entzueran, ba-diñotso ugazabak: —Ene Asto jaun kutun ori; ¿ez-ete-az eu uartzen zentzunbakokeri andi bat esaten yinardubanik? Jaungoikuak, ik esan duan lez, abere gustijak irazan yuazanian, bakotxari bere egingua ezañi yeutsaan: idijari buztarñija, txakuñari artalde ta etxe-zaigua, katubari sagubak arapatzia, manduari artolea, zaldijari zaldun-aulkija, ta astuari, ene lagun enia, astuari sorñtea ta sorñtearen ganera, sarñtea. Baña, edozelan be, i ezintzake iñoiz ezer ixango, ta Mida'ren (1) be-

(1) MIDA.—Gorkijo'ren semia ei zan Mida au ta Pirkija'ko (Frigia) bakalduna. Ezin aberalsagua ixan aeren, arlago ixan gura ei eban eta Bako jainko-ixunak emon ei eutsan eskuaz-ikutu-eikian-edozer ufe biguftzeko doala; baña janarijak eurak be ure biguftzen ekijozanez, gosez il-agiñian jafi ei zan, eta Bako'ren aginduz Paktolo ibayan mustaldi bat eginda kendu ei yakon aldetik doai zorigaiztoko ori. Ordutik ona Paktolo ibayak ufia ei darua ondafetan. Eres-batzaldi baten Apolo'ren aufka ebatzi ebalako, asto belafijak softu erazo ei eutsazan beste jainko-ixun onek; eta bein, ulia ebagijeran, bixafgiñak asto belafijak ezezalaurik, agindu ei eutsan Mida'k bere zoritxafa eskutuban eukiñeko; baña bixafgiñak nori edo ari esan barik egon eziñik eta bakaldunaren agindua ez austiafen, belanganian zulo bat egin eta Lufa'ri esan ei eutsan aopekoz, eta gero zuluia lufez bete. Gerogafenlan kañabera landarak softu ei ziran leku aretan, eta kañaberok andi eginda axiak kulunkatzen zifuzan bako-

raren ur̄e gustijakaz jantziko ba'intz be, astotzat ezagutuko ind̄ukie guztijak, aldian daruaazan belar̄i itzalak ikusijaz beste barik astua azana edonok igar̄i-ko euskek-eta; eu azan-azana baño ez, egija esan: jo-ala makilada ar̄tzeko eduko astotzar̄ andija.— Eta ba-darantzutso astuak: — Aldian dodazan belar̄i luziak astotzat salatuten ba'nabe, gatx or̄eri laster̄ aurkiñu legijo osakaya: belar̄ijok burutik askorik urten eztagidezan eratxuban ebagi ta labur̄tubaz, zaldija bera baño zaldijago ixango nintzateke; ta onez ganera, neure apaingar̄ijakaz orniduta, neure anka-oyal eder̄, neure ugal ur̄edunak eta beste pitxikerijakaz jantzifa egon naf̄enian, ¿nori, baña, nori bururatako yako astua ixan naf̄ekianik? Esan egijozu pe'atzaliari dato'ela ointxe berton aitzur̄akaz eta labur̄tu dagistazala belar̄ijak al bait ariñen.— ¡Makala, zan, gero, astuaren andikerija! Baña ugazabak, astuaren oldea egifia'eren, ebagi egin eutsazan belar̄ijak kaskazu'etik ara-erdi-inguru-urten itzirik, eta ganera, zo'oztu, er̄tzetu, leundu, gane-ba'rubak uldu; ta ebagijak osatu yakozanian, dotore baño dotoriago zaldi-tresnakaz txukunduta zaldi-arin tar̄tera bialdu eban. Zaldijok, ezeren susmo barik, aintzako ar̄tu eben lenengotarik, euretariko bat geyago bai'litzan, eta lagun-ba'rijaren goñik-berakuari begiratuta (esan dodan lez garaya zan-da), zaldi-arin gorengotzat euken. Baña ixake-

txian, oi dan lako abafotsa atera bialfian, oyu au erasoten ei eutsen ofijal: «Mida bakaldun, asto belafidun»; eta onetara Mida'ren ixilekua ludi osuan zabal-zabal egin el zan. *Se non é vero, é ben trovato*; egija azpa'da be, ofen txafto asmauta eztago-ta, tira...

reak ixan-gureari geyago egiten dautso beti, ta, bein, gure abere gaxua zaldi-ariñakaz eguraztuten joialarik, asto batzuk ikusi zituzan bidian, eta zaldi-buru egiten ebala aizturik, bat-batian zaldikatu eta bañiren bañi astotu egin zan. Eta zaldi lagunak bertanbera itzirik, arantzaka ta iperturika asi zan astuen atzetik, eta aspaldijan oi ezebazan asto-laran gozatsu batzuk eginez, jauñti eban lura zaldi-aulkija, saskildu ta uratu zituzan anka-oyalak, apurtu zituzan ugelak, eta astokeri andijoen biferrez bere buruba zan-zan legez imini eban agiri-agirijan gustijen aurian. Eta ordurarte zalditzat euki ebenak, aren arantzakaz goñtuta ta aren laranakaz zurtzauta, astotzar andi bat baño etzala ikusi eben, eta gustijen erdijan arturik, astokortara eruan, makilaka eyo-eyo egin, andi-ustekerijak kaiskotik kendu, ta bañiren-bañi sorrea ta sarrea apal-apalik artzeko otzan-otzan itzi eben ene asto gaxua.»

«Ikasbide au, ene bakaldun altsuba, ari-arira yatorku guri be. Soñeko aberatsakaz zuk jantziko ba'ginduzuz eta zure jañraigoko andikijen tartera bialdu, geldi ta ixilik gengokezan artian aintzako artuko gindukiez eta inok eleuskigu ezer esango, bairba; baña berbetan entzun leikeguenekoxe, beingo-beinguan ikusiko leukie baserifar tentel eta basati batzuk baño ezkareala, eta ordurarte arpegi onez eta adei-legez artuko ba'gindubez be, ordutik gora ixekoa ta destanea baño ezkenduke geure bornuan ikusiko, edo bairba txarago. Beraz, jauna: edo itzi egiguzu guri soñeko maxok erabilfen, edo bañijak egin gura ba'deuskuzuz

ez eiskuzuz egin ez urédunik ez zikirijozkorik, miesa ontxu bategaz egiñak ixan ezkerro guretzat naikua dalako. «Dana dan lez» eta «danari danagiño», jauna, eta ointxerik esan biar dautsut eztogula guk jauregi onetan ondore onik egingo, batez be nire seme onek, gofik-eta-berakuan txikija ixan arén, tentelkeriñan andija dozulako au, eta gauñ ezpa'da bijañ, gitxien uste dagixubenian, edozein ergelkeri edo astakeri egiñez, bañe eragin legixube onek gustijoi, baña negañ be bañdin-bañdin, edo biraña, ariago.

—Zuk edestu daustazun ipuin ori —esan eutsan bakaldunak— ikasbide andikua da, bai; baña eztof uste nik orétariko urteikerarik ixango zeunkenik zuk, ezelan bere. Orain arñe, beintzat, adimen argikua zarean ezaugañijak emon daustazuz, eta naiz-ta azalez eta soñekuoi begiratu ezkerro besterik eretxi, etzaukodaz basatitzat, andra zurítzat eta jakintsutzat baño. Bertoldin'egañik ez ardurarik ixan; iñoiz edo bein birañ eztan gauzarik esan edo egingo ba'leu, gogorik onenaz parkatu egingo yako. Gastia dozu oindiño ori eta urijetan oñu bakua; baña oneikaz jauregi-gixonokaz egunian-egunian jardutiaz beraz, berakotan lez etoriko da senera ta laster argifuko yako adimena. Beraz, zu, Ermini; eruan egidazuz ama-semiok euroen gelara ta soñeko edereñ jantzi eragidazuz. Otu dagikiñuen beste-edozer be emon ziñegijue, eta atsedén egin ostian, eruan egidazuz bakandereagana, ak be abegi onez artuko difuz eta.

—Orétaraxe egingo dot, jauna —esan eutsan Ermini'k; eta gero, ama-semiai:— Zatoze neugaz.

—¿Nora eruan gura nozu ni? —ba-difauntso Bertoldin'ek.

—Atoñ, mutil; atoñ ezeren kezka barik, eure añaren etzangura eruan gura aut-eta.

—Nire añaren etzangua luñ azpijan dago, ta zuk, antza, luñpian eortzi gura nozu añaren onduan! ¡Oi, ene ama! ¡Ama! ¡Guazen atzera geure etxera!

—¡Ut orñtik, tenteltzañ ori! Ire añaren gelara esan gura yauk; ire aña bixi zuala, ostatuz lez yeukan lo-gelara!

—¿Ostatua eukan gure añak, ala?

—¿Ostatua; baña nondik bururatu yak ori?

—Okelak eukozala ostatuan eztiñozu zeuk, ba?

—¡Tira; mutil; erdu nigaz eta ez adi ikaratu oñegañik ez beste ezergañik be.

Ermini'k, beraz, ikuskañiko gela batera eruan zifuzan. Ormetatik kurtxoñak eta oyalik ederenetarikuak eukazan eskegiña. Aulkijak be uñezkuak zifubezen atze-aldiak. Oe bi egozan oazeru ta gustikuak, uñezko egaluna ta berebixiko funtuñdunak, zikirijozko ixara ta oeganekodunak eta beste mila bat eta erdi adelu ta edergaludunak. Oiak erakutsi ostian, joskiñari etoñi erazo eutsan Ermini'k ama-semiai jantzi egokijak egifeko. Gixonezkuak samaragiñoko gorantzak erabilñen ei zifubezen orduban, eta joskiñak, Bertoldin'eri be olako bat egin gurarik, miesa ebagi, albaindu, ta soñian azteñtu edo estu-zabalian neuñijak añtu guraz, gorantza be-aldetik gora estututen asi yakon, eta idunera eldu yakonian, ija-iñuan jañi zan ene mutiña ta asten yako gañaxika:

—¡lfoko nozu! ¿Zergatik urkatu ni, baña?

—¡Zer urkatu ta urkatu-ondo! ¿Zer da nik egiten dautsudana, urkatu egin gura zafudala zuk niri esateko?

—Samea estututen daustazu ta arnasarik be ezin dot aritu.

—Ez, txotxo. Gorantz edo koratilo au ija okotze-ragiño erabilfen dau janzkija dozu, eta sama-aldian estutueran irato egin gura ixan zafudala uste ixan dozu zuk. ¡Zagoz lasa!

Baña bakerik ixatekotan, beste jantzi nasayago bat egin biar ixan eutsan Bertoldin'eri, eta Markolbe'ri be, era berian, eroso ibili ta erabilfeko geruntz-gona-txamañak josi eutsazan, ezetariko edergalu bakuak, baña miesa onez egiñak. Eta onetara jantzifa bakandereagana eruan zifubezen ama-semiok. Bakan-dereak, bañiz, mamañu jantziriko mamaño bi areik beragana etorfen ikustian ezin ixan eutsan bañari eutsin eta Markolbe'k, beraz, ere-mindurik, gurkera trakets batzuk egiñez eta baseñiko erara agurtaurik, ba-diñotso:

—Ba-dakit, ene-bakandera altsuba, emeko gustijoen iguingari ixango gareana luzaro andi barik. Nire mutil koskor au daborduko asi da beronen tentelkerijaren ezaugarri berezijak emoten, eta kirtenkerijok egunian baño egunian andijaguak ixango direana susmauten dodanez, oba eukian bakaldunak gu geure etxian bake-baketan itzi ixan ba'ginduzan.

Bakandereak, Markolbe'ren aiko-maiko bako berbaikereaz arifuta, ba-dagitso:

—Ene Markolbe Anderea, ezin dot siñistu mendijan jayorikua zareanik; zuri entzutan, urijan soñtu ta azirikua etzareanik eleuke iñok esango. Eta ara; abegi onez artzen zañudan ezaugaritzat, eutsi bezuzez emoten dautsudan erestun eder au. Artu ta erabili egixu neure mañasunaren.

Eta ba-darantzutso Markolbe'k:

—Eleuke ondo andra alargunak bere senara zanak imiñiriko erestuna baño besterik atzamañian erabiliko ba'leu. Eskeñik asko, baña nik naikua dot ezkontza egunian imiñi eusten zilañezko onegaz.

—Oñezkero, ¿zer emon daitut zure gogokua danik?

—Eztozu zuk ezer niretzat baño zuretzat biraño eztozunik.

—¿Zer birañ ete-dot nik, Italiya osuaren bakandera ixan eta dirutzaz eta aberastasunez luñian dañekian emakume garau baten azpiñik enagon onek?

—Oi, ene bakanderea; ainbat eta ainbat gauza birañ dozuz zuk be, oñatiño.

—¿Nik ezer birañ? ¿Ni oparindun ixan? Añen, esan egidazu zertan.

—Eztot etxe onetatik alde egingo, mila ta mila gauzaren birañ-ixanatan zagozala zeuk zure abotik autoñtu barik. Eta birañ-ixana txirotasunetik datoñenez, ni baño askozaz txiruago zara zu, nik zurerik baño birañ-ixan geyago dozulako zuk ninerik.

—¿Zelan dala? Orixe erakutsi dagidazunian andrandi egingo zañut. Tira; eruan egixubez ama-semiok euroen gelara, ta i, Bertoldin enetxuba, etoñi akit sañitan ikeñ egifen.

—Ama; ¿zer esan gura dau «iker egin» orék?

—Agertu batzuk egiten saritan etori akijola —atzaldu eutsan Markolbe'k.

—¿Sarátuban agertu? Sarátuban eta agirijan agertuteko, galbaia ekañi biarño ete-dot, ba?

—¡Kaikutzar ori! ¡Ik esango eztuanik! —egin eban Markolbe'k— ¿Ez ete-dautsut nik esan, ene bakandera enia, gure burubak barégañi ikusi biar doguzala? ¿Entzun al-dautsazu kokolo oneri?

—Ez orégatik ardurarik ixan. Egin-egitian be, bakaldun-jauregijak, eder ixatekotan, gogai ta olde gustiñariko lagunak biar difuz euki.

Bakandereagaz autubok ixan ostian, beste gela eder batera eruan zitubezen ama-semiak, eta gela atan, otu-ala gauza eukezan aukera-aukeran. Ba-ditso Bertoldin'ek amari:

—Ama; amatxu. Entzun dodanez, bakandereak andra gustijen ganian egon gura ei dau. Oba dogu, badaezpadan, albait ariñen geure etxera atzera juatia. Batek ba-daki; zure ganera igotia otu ba'legijo bakandereari —¿zure erukañija!— gure beya baño lodi-jago ta aztunago dozu a, ta erayak atera eragingo leusketzuz abotik. Guazen ama; guazen emetik arin, gitxien uste dagigunian andra orék birindu ezagixan.

—Andra guztijen ganian ez, ene enetxuba, beste gustijen ganetik edo gorago baño —esan eutsan Markolbe'k. — Etxauk orék esan gura bakanderea sorbaldara edo lepo ganera igongo yakeenik andrai, beste gustijak baño andrandijago ixan gura yauala baño; eta gustijon jaube ta ugazabandra ixanik, egoki baño

egokijago yeritxuat beste andrak men eta gur egin yagikijoen ak gura ixatiari. ¿Entzun al-dok, astakilo orek?

— Bai, entzun dot. Baña baten baño ez ixanda be lepo ganera igon ba'dakixu igon, aurduban ikusiko dozu ba're ala negar egingo dozun.

— ¡Ut ortik, tentel, astalapiko ori! ¿Noren antzeko urten atxaku eu, gero? Baña, ¿zelan ixan lafek ire afa batenganik, zurtasuna bera ta adimen uts-utsa ixan zuan ire afa ganik i lango asta kirten batek urten al ixatia?

— Esan, ama; ¿nor jayo ixan zan lenago, afa ala ni?

— ¿Ori be esan? ¿Afa baño lenago jayua ixatia gure ete-dok, kaiku orek?

— Eta bakaldunari, ¿zelan egifen yako berba, ifanoz ala zuka?

— Euk zelan gura, txotxo; edozelan be, ire abotik urteniko edozer ondo be ondo esanda egongo dok-eta. ¡Etxauk lagunik biar ixango; ez orixe! Baña, alan be, gauzaren bat obeto esatia'ren alegiñak egingo ba'euzak, txarago esango eunkek ik, bai, eta gixon jakifuntzat eta ondo berba egiñikotzat artu agijen gura ba'dok, ezegik aborik eguno zabaldu.

— Eta arausi egifeko gogua ba'letoit, ¿eztot aborik zabaldu biar aurduban be?

— Zabaldu egik euk gura duan beste! ¡Zer ikusteko ete-nayagok ni, i azala eu! Oingotz ire tentelkerijaren bari jakingo al-yauek jauregiko baster gustijak be, eta buruba egingo nayeukek ordu-bai-ordu ire lepotik gustijak bareka asi ixan bayetz. ¡Eta oindiño egifeko yaukeen barezkua.



- Itxi egik abo ori, ta ezegik murtik atera geyago.
- Itxi dot, ama; bafia ondo itxi dodanentz begiratu egidazu.

—Jauregiko basteñak be bañe egiten dakije, ala?
 ¿Non dauke abua, ba, bañe egiteko?

—¡Ixilik ago! ¡Ago ixilik, Jaungoikuaren, iñor yatorraala uste yuat-eta! ¡Ene enia! Bakalduna bera dok, bañiz, eta geure gelara yatorik artez-arte.

—¿Zer egin gura ete-dausku jaun eder orek?

—Jaungoikuaren; itxi egik abo ori eta ezegik mistik be atera geyago.

—Ara, isten dot, ba. Begiratu, ama, ondo itxifa daukodanentz.

—Bai, bai; olantxerik itxifa euki, ezpanak estu-estu eginda, ta ez idegi neuk esan artian.

Estu ta lañi egozan Bertoldin eta Markolbe bakaldunaren etoñerea zetarako ixan ete-efekian jakin artian, baña esturasunok lasatasun bigurtu ziran bat-batez. Bakaldunak atsegin andija eban, bai semiaren ergelkerijaz eta bai amaren zurtasun bizijaz, eta mañero-mañero itz egin ostian, jauregirik atera ta zalpuñdi eder batera beragaz igoteko agindurik, uriko ataldera eruan zifuzan. Etxaguntza polit-eder bat eukan bakaldunak uririk ure samar, arañentzako urmael, bospasei iturri, berein zugazti, masti eta beste gauza zoragariz ornidutakua, eta ara eldurik, ba-diñotse bakaldunak:

—Zubek zeuben eskuko ixaten ekanduta zagoze an mendi zabalian, eta uri bañuban zeuben burubak estu ikustian, atxiloturik-edo bai'zengozen begifanduten yatzube. Olakorik gaurtik geyago uste eztagixuben, neure gogoz eta gurariz emoten dautsubet bezuzez aurrez-aurre ikusten dozuben etxe eder au eta bero-

neri yagokazan luí, solo, baratz, urmael, ituí eta ganerako gustijak. Etxaguntza osuaren yaube egíen zaíubet, baña baldintza bakaí onegaz: etoí dakidala Bertoldin neure jauregira ageíaldi bat egunaro egíen; besterik ez. Saítu zaíeze, ba, zeuben etxe eder onetan eta zeubei zer otu ta axe aurkiíuko dozube, naiz-ta edozer ixan. Ezeren utsik edo zerbaíen biaí-ixanik uaítu ba'ziínegije, esan eta neuk aginíduko dot ekaí-teko.

—Eun eta mila bidaí eskeí egíen dautsut zeure bijotz andi oíregatík, ene bakaldun ongíle ori —egin eban oyu Markolbe'k.— Ondo dazaut gure ezerbereza ta ba-dakit etxatoírkuzana ondasunok geure ibazijakaíen. Baso-basuan jayoriko andratxu bat baño enozu ni, ta baso-basuan azirikua, eta eztakit, beraz, zer gauza berezirik aurkiíu ixan dozun nigan bakaldun-leku onetan bixi ixaten ni ona ekaí-teko. Emen baño obeto dagokit niri mendirik-mendi, arkatxik-arkaitz eta arurik-arú ibilíia, ez lagunik, ez azikerarik, ez onbiderik eztan lekuban bixi ixateko berebixikua nozu-ta. Eta, ¿zer esan dautsut neure semetxu onetzaz? Tentela baxen ergela dozu au, ez gatz ez berakatz, eta baíe eragiíteko ixan ezik eztakit zetarako gauza ixango yatzuben. Nik neuk eztot uste oneganik beste onurarik urten legijenik. ¿Ur gasa-gasatik urteniko arain gaziíubari zer eretxi ziínegijue? Au be baídin-baídin dozube, ba. Bertolda eban onek aía, gixon zuía ta argija, eguno ba'da, ta ¿nori goguak emon leukijon gixon zoli areganik olako seme motelak ur-tengo ebanik? Eztozu oindiño ezagutzen onen txal-

dankerija noragiñokua dan. Siñistu egidazu, jauna; goxetan, jagiñorduban be, eztau gaxo onek jakifen oetik urteteko buruba ala oñak zer atera lenengo.

—¿Egija ete-dok ori, Bertoldin? —iñandu eutsan bakaldunak— ¿Eztakik erantzuten, ala? ¿Zergatik daukok abua oñetara itxiña, ezpanak uratu biñian?

—Neuk agindu dautsat oñetara eukifeko —erantzun eutsan Markolbe'k.

—¿Zergatik gura dozu, baña, oñetara euki dagijan?

—Zuri, ene bakaldun altsu oñeri, iñanoz ala zuka berba egin biñ ete-eutsun iñandu daustalako; nik, bañiz, aborik eguno edegi ezpa'dai, aurduban igariko dauala zelan ondo berba egin erantzun dautsat, beti baña beti be okeñetara erantzuten daki-ta.

—¡Bo! Okeñeri andiren bat egin ixan ete-dauan egon naz ni; baña ori ezta okeñerija, zuzen oldoztutia baño. Egin-egiñian be, olakoxe oldedunak yataz niri atsegin, eta jayokeratik onen antzera ergelak ixan ezkerro, bañiz, ariago; ez, ostera, maltzuñkeriz edo bestetara lortu ezin dabena yaristeko, ergel eta tentel buru egifen dakijenak: iguingarñi dodaz nik olakuak. Beraz, egin berba, enetxu oñek, abo ori zabalduko baimena neuk emoten dauat-eta.

—Itxiña eukifia gura dau amak, baña —erantzun eutsan Bertoldin'ek.

—Tira, egik berba, —esan eutsan Markolbe'k—; neu laketzen dauat orain. Baña, zain, gero, gure bakaldun onari astakeririk esan barik.

—Nayago neuke gure ondofik alde egingo ba'leu beronek bañiz-i..... —esan eban Bertoldin'ek.

—¡Ai, trakets ori! ¿Bakaldunari esateko berbea ete-dok ori, ostera, ta onenbeste ondoegin beronen-ganik artuta gero, atan be? ¿Zetarako gura ete-dok ik, baña, bakalduna emetik juatia?

—Emen gugaz daguan artian ezin jua nafekelako ni askarija artzen.

—¡Entzun; entzun, jauna, onen menduben bañi! ¿Oretara elduko azala jauregi-gixon ixatera uste al-dok, mandotzar orék? ¡Ene enia! ¿Zer deritxozu, ene bakaldun mañe orék, onen esker-gaiztuari? Zuk egin dauskuzun onegin gustijai oztaz erantzuteko esker eta esker egiten urtu biar leuken txatxu onek, eztau beste gogorik zuk al bait lasteren emetik alde egia baño, berau askarija artzen patxaraz jua al dañekian.

—Eta eztoz uste oker uste dauanik —esan eban bakaldunak.— Oregatik, beintzat, ezin esan negi tentela danik. Ara, ba, Bertoldin; ba-nayuak ni ta ago lasa. Ez aitzu, gero, egunian bein ni ikusten etortiaz; ¿aditu al-dok?

—Bai, ene bakalduna, edo ene jauna, edo zarea-na-zareala. Baña esan egidak, alagun; ¿zein ixaten dok luziago, uriko eguna ala baseñiko eguna?

—Bijak bateratsu, alai etori ezkerro.

—¿Zer entzuteko ez ete-gayagokoz beroneri, gero? —egin eban Markolbe'k— ¿Baseñiko eguna uriko eguna baño luziago danentz ifaundu? ¿Eta ifanoz bakaldunari? ¡Añearen.....! ¡Ire astua, seme! Azketsi zuk, jauna; azketsi ta ardura barik egon: neuk bialduko dot zugana egunaro.

—Ikusi artian, ba, Bertoldin; agur, Markolbe.



IGELAK ETA ARAÑAK

Markolbe ta Bertoldin, bakalduna juanik, eurontzat emoniko etxaguntzearen jaube gelditu ziran. Etxaguntza a, danik lagunik mizkeana bixi ixateko ta egunak eta egunak edonok ondo ta jasian igaroteko lañegaz eta asko geyagogaz eguan orniduta. Baratz erdi-erdi-jan berebixiko urmael eder bat eban, mueta askotako arañez betia ta igelez atsiuba. Laster artu eban Bertoldin'ek arako juerea, ta bein batez, arañak uretan baruban egiten zitubezan zurizgora ta dirdiren adi urmael karel ganian jezarifa egualarik, ara non asten diran igelak koroka egiten, karak eta klauk. Eta onetara diñardubenian, eurak euren berbaikeran *laukat-rrrkrr*, *laukat-rrrkrr*.... esaten daraigoioela antz emoten dabenez, begitandu yakon Bertoldin'eri *lau dukat erukañ* baño ezeutsazala bakaldunak emon esan gura ebela; eta mila bat baño geyago ixanik emonikuak, asaratu yakon gure mutilari egunokuen eta ariñeketan etxera juanda, dukatok gordeta egozan kutxatilea artu ta urmael karel ganian imiñirik, artu dirubak eskukadaka

ta asten da uretara jauřtifen, zapa-zapa, plist-plast, jo-mutilak! Igelak, diruben zaratara, abarots andijagua ateraten eben, eta mutilak gofik: «Eutsiez, eutsiez, pizti denganiñuok; eutsiez eta zenbatu zeubek, ia lau diran ala eundaz diranentz» ¡Bai zera, igelak ixildut Len baño karakada bi bidar andijuagak ateraten zifubezala esan eikian, eta mutilak, lenengoko diru eskukadakaz ezeutsela igelai ixildu erazo ikustian, artu ostera be dirubak atzak-befian eta igelai jauřtijaz, ba-iñotsen:— «Madari-madarijok; neuk erakutsiko dau-tsubet zubei, ondo be, mila baño geyago emon ez ete-daustazanentz». Eta onetara, ekin mutilak garaxika ta dirubak jauřtifen gofik, eta ekin igelak garaxika eta karakadaka betik, azkenian, bakaldunak emoniko milaz dukatak urmael ondora juan ziran, eta igelai mutilak ezin ixildu erazorik eta jauřtifekeo dirurik geyago ez eukirik, amoruz eta asarez beterik, artu kutxatilea bera be, ta ¡braust! urmaelera jauřti eban. Eta aobeteko anenak esan eta esan, abere-abere bat eginda bigurřtu zan etxera. Markolbe'k semia ain amoraturik eta itxura ain gogoretan etorřten ikustian, ba-diñotso:

- ¿Zer jazo yak, ene Bertoldin, ořen asare etorřteko?
- Urmaeleko ugarasijuak eragin dauste amoru.
- ¿Zergatik, baña? ¿Irañik-edo egin daue, ala?
- Eurak jakingo dabe zer egin dausten; bai ondo be.
- Lotan egonda-edo, karakadaka iratzařtu ete-aue, ba?
- Ori baño txarago egin dauste.
- Oskijak lokatzez zikindu?
- Mila bidar txarago.

—¿Zer egin al ixan daue, ba? ¡Esan bein-edo-bein!

—¿Ez al-dausku guri bakaldunak kutxatila bete dukat emon?

—Bai, eta ¿zer?

—Areik pizti madarikatubak, etxataz esaten asi, ba, lau baño geyagorik eztauskula guri emon? Nik, bañiz, artu eskubete dukat eta ¡zapa! jauñti deutsedaz eurak zenbatu dagijezan ia, ta oindiño eurak *lau'kat erukañi ta lau'kat erukañi*, zolijago, ara bere. Jauñten dautset orduban beste eskukada bat, eta gero beste bat, eta gero beste bat, eta azkenian diru gusti-gustijak, eta ala-ta-be eurak oindiño abarots andijagoz: *lau'kat erukañi, lau dukat erukañi*. Azken-azkenian, ugarasijo demorijuok ain setatsu ta burugogoñ ikustian, amoruz beterik artu kutxatilea bera ta ¡draunba! jauñti dautset urmael erdi-erdira. Eurak zenbatu dagijezala orain banan-banan eta ikusi dagijela zenbat diran bakaldunak guri emoniko dukatak. Etxamon: zenbatuta gero, kutxatila baruban dirubak sartzia baño eztauke ta lioñera edo karelera atera. Aurduban juango nayake ni kutxatilearen bila eta dirubak baruban dituzala ekariko dot atzera etxera. ¿Zer diñostazu, ama? ¿Ezteritxazu ondo, ala, arei piztijai guzuña iruntsi erazoteko egin dodanari?

—¡Oii, ene erukarija! —egin eban oyu Markolbe'k—. ¡Ene Markolbe zorigogorékua! ¡Au bai dala iñok siñistu be ez egifékua! Baña, zoro, ergel, tentel, zentzunbako, burubako, alako oñek, ¡ori egingo euan egin? ¡Etxakijat zek geldi erazoten yeustaan be, atzamar tartian berperton eu ez iratoteko! ¿Zer esango

yeuskuk bakaldunak ire zorakerija jakin yakijanian? Bere etxian etxauzaala gu lango aberiak euki gura esanda, autseziperdi aterako gayauzak emetik eta urkamendira bialdu, ta ondo irabazifa eukiko yuagu ire ergelkeri andijaren eruz. ¿Nori otu layeikiok, baña, ik egin dauan besteko zorakeri garauba egifia? Ez-ta burutik eginda yaguanari be.

—Esan begike bakaldunak berak gura dagijana ta atsegin dakijona; baña oba leuke berak ugarasijuai azikera obia emon, zenbat dukat emoten difuzan jakifen ibili eztakijozan.

—¿Ori, bai; auntxe esan dok eure bixiko egi-egirik andijena, asto orek!

—¿Entzun, entzun oindiño ugarasijuai, ia tematiak eztiraentz! ¡lñoiz baño abarots andiyagua ataraten diñardube orain, bariz; eta —¡au amorua! — oratu egidazu oratu, osterantzian artu etxe au berau tutor-tutoretik eta ara juanda buru-burura jaurtiko dautset!


—¿Geldi; geldi, jaungoikuaren! ¡Oi, ene gaxual! ¡Itzi egijozu etxiari bakian!

—¡Ixildu eragijoezu, ba!

—¿Egingo yeutset, baña ago geldi ta baretu adi! Ugarasijuak arapetan yakijen gixonai esango yeutset neuk ointxe-ointxe, ta ogi mamiñaz arapauko yauezak pizti gustijok. ¡Eztaue, ez, geyago asarrik eragingo! Ago i emen geldi, baña, neu atzera etori artian.

Markolbe juanik, beste tentelkeri bat egin eban Bertoldin'ek, edo, obeto esan, irutsu ixan ziran ak eginiko tentelkerijak. Ara zeintzuk.

Igelak ogi mamiñaz arapatzen zirala amari entzun



—Bertoldin, Bertoldin! Atof eta idegi egidak atia —iñotsan Markolbe'k lekoretik.
—Ezin nafe etofi, antzar lokearen otzara bañuban nago-ta.

eutsanez, eta piztijok oindiñokañen kañak eta kañak jo-alian eragoioela ikusirik, ezin jasan ixan eban Bertoldin'ek luzaruago alako lotsagabekeririk, eta asañe biziñan etxera juanda, azpiran egozan ogi gustijai azala kendu ta apur'apur' egiñik, zoño andi bat betetu eban ogi mamiñez. Juan zan gero urmaelera ta braustako bategaz, ara, zoño osua uretan utsifu eban. Igelak, ogi mamiñen braustadeaz beraz, bata baño bestia ikarago must egin uretan eta ondoko basatan ostuziran zer etoñikoren be igesi. Añañak, ostera, arenbeste ogi mamin ur azalian ikustian, aldabatera gustijak ondotik urten eta tximistea lez oldartu yakezan ogijai; ta bata bestiaren leyan, ten ortik eta ten emetik, ta ogi aokadeagaz iges egiñian alkar jo ta ogija galdu; eutsin bañero ogijari ta igesi ostera be; usigi batak, jañai bestiak, ijuti aragokuak eta zurizgora ondotik etozanak: ba-zirudijan gudaketa ixugarñan eragoioela añañok, eta ordu bete gañenerako ba-zifubezen ogi zati gusti-gustijak iruntsi. Bertoldin'ek au ikusirik, amoru gogoña erijola jañi zan eta zin egin eban añañ gustijak itsutu egingo zifuzala, ¿Zer ba? ¿Igelak atxikitzeke ainbeste ogi zati uretara jauñti, ta, añañ diabruak, igelai apur'apur'ik be jaten itzi barik, etzifubezen ba eurak ogi gustijak iruntsi, ala? ¡A, baña, ba-ekijan Bertoldin'ek zer egin añañai aspeñ egifeko!

Ba-dua etxera ariñik arin eta ara non datoñen arik lasterñan urun zoño bat lepo-lepuan ebala, añañai begijetara uruna jauñti ta gusti-gustijak itsututeko asmoz. Jearñten da urmael karelian endai bat eskubetan dauala, ta añañak ur azalian agertzen diran bakotxian,

an yuake ¡plaustat endaikada bete urun buru gane-ganera. ¿Ezeban uste, ba, mutil kokoluak, arain gustijai begijak aterako eutsezala aretara ta itsutu egingo zifuzala? Ardura eutsen arañai, bariz, endaikada uruna begijetara jaurtiki arren; ¡bai bost! Braustadea nabaitzian, zuist eta muist, txairo-txairo ondora juezan areik, eta beinguan etozan atzera azalera uruna bera jatera; eta mutilak uruna jauñti ta arañak urunagaz jolas, urun zorua be oso-osorik utsitu eban Bertoldin'ek urmaelian, eta arain gustijai begijak aterra eutsezala bete-befian usterik, etxera juan zan pozaren ozta, asperkunde itzala egin ebalakuan,

Astakeri andi au egin ostian, ba-joian Bertoldin etxerantz eta ara non ikusten dauan antzar lokea otzara andi baten baruban, kumak ateraten eragoiola. Berrialako baten uxatu egaztija ta otzara baruban sarturik, jarren da bera antzar-eran arautza ganian jezarita, kumak aterateko ustez. Esan biarik eztago: jezarjaz beraz ausi zifuzan arautza gustijak bat-batez eta galdu zifuzan arik lasterian jayo biar eben antzar kumak. Eta Bertoldin tayu aretan otzara baruban egualarik, ba-yatorko ama etxera. Ezin ixan eban Markolbe'k igelak atrapateko araintzalerik idoro, eta arazo aretarako urira juan biar ixan ebanez, bide batez bakanderearenera ixan zan, zati baten areri berba-lagun egiñen. Eltzen da etxera ta joten dau atia Bertoldin'eri oles egiñez:

—¡Bertoldin, Bertoldin! Atoñ, Bertoldin, eta idegi egidak atia.

—Ezin nafekte etoñi, baña.

—¿Zergatik ezin afe etoñi? ¿Non ago sartuta, ba?

—Antzar lokearen otzara baruban.

—¿Zer egiten diñarduk otzara oñen baruban, andi-andilo oñek?

—Antzar kumak ateraten.

—¿Ik antzar kumak atera? ¡Oñ ene ba'da ta ni! ¡Añautza gustijak apurñu al-daustazak oingotz, asto oñek! ¡Atoñ atia idegiten, birindu egin biar aut-eta!

—¡Ezin dodala, ba! Ala, ¿zelan gura dozu esafia? Ara, ama; asi yataz, asi yataz kumak urteten eta pikuz kiri-kiri egiten yabilñaz ipeñmamiñian.

—¡Oñ, ene erukarija! ¡Oñ ene zorigaiztokua! ¿Ez al-dau nire seme onek berperton ilñia ibazi? Ilgo ba'neube, ¿ezer galduko ete-neuke, gero? ¡Oba neunkian abere onegaz ona bera eguno etoñi ixan ezpa'nintz! ¡Bertoldin! ¡Zorigogoreko Bertoldin!

—Ixiii, ama, ixiii...; antzara neuri begira-begira daukot etaaa.....

—¡Ai, ene enia; au lar da niretzat! ¡Jagi adi ortik eta idegi egidak atia, bein-edo-bein idegiko ba'dok idegi!

—Tira, ba; itxaron tindi baten, ointxe nua-ta.

Bertoldin, patxara andiz otzaratik urten eta ba-dua amari atia idegiten. ¡Bestelako ipingija eztarua berak atze-aldian! Añautzazal, goñingo, zuringo, *kumingo*, *lastingo* ta abar, mazi-mazi egin difuz otzara baruban eta marmaiz oñegaz saskil-maskil eginda daukoz prakak. Semia traya aretan ikustian, burutik egin-agiñian asten da ama aldarika:

—¡Etoi ori, gaizkin ori alakuori!

—¿Zer egin yatzu, ama?

—¿Zer egin yataan diñostak euk, osterá? ¡Erale, zifal, madari orek, ¿ez ete-dok ikusten euk egiñiko dongakerija, abere itsu andi orek? ¡Enei, enei ta enei! Ezin dot nik onegaz geyago emen iraun eta ointxe-ointxe nua bakaldunagana, mendira atzera juateko baimena eskatuten. Bai; jagoten be eztatigun onenbeste ondasunen duin ezkareala gu esango dautsat. ¡Ba-yekijan ondo ire añak zer egifen yuan semerik yeukanik be bakaldunari ez iñori ez esatiaz! ¡Ondo yekijan arek ezintzala i ezetarako gauza ixango! Begiratu; begiratu zer egin duan ik, saskeltzar orek: añautza gustijak apurtu, ordurik ordu jayo biar yuen antzar kumak galdu, eta eure prakak naskildu, marmaiztu ta alpeñikaldu! Eta, ¿zer erantzungo dautsak ik bakaldunari oretara nok zikindu auan ifaundu dagijaanian?

—Añautz-opil bat egin dodala esan, eta kitu.

—¡Berebixiko erantzuna mendu oneko gastiarentzat! Tira, tira; ezegidak burutik eragin geyago. Atoñ eta jan yagijagun aumen bat besterik ezian, bakaldun-enera juan biar yuagu-ta.

—Baña, ¿zer nai dozu jatia, etxian ogirik eztago-ta?

—¿Zer diñok? ¿Etxian ogirik ixan ez? ¿Azpira bete ogi ezkayuan, ba?

—Bai, ba-genduban.

—¿Nora juan dozak ogijok, orezkero?

—¿Ez al-zeunstan zeuk esan ugarasijuak ogi mañiaz atrapa oi dirala?

—Bai, ba-neuan; eta oregaz zer esan gura dautak, osterá?

—Nik, ba, ugarasijo danak atrapa gurarik, azpirako ogi gustijak apur-apur egin dodaz eta urmaelera jauñti mamin-mamin eginda. Baña, areik arain diantriak oldarez etori dira ur azalera ta ogi gustijak irun-tsi egin daustez, ugarasijuentzat aukada apur-apurik be itzi barik. Baña, etxamon, ama; bestelako murikea eztautset nik egin arain zifaloi.

—¿Zer murika edo zer ixeka egin ete-dautsek ik, ostera? Esan; esan arin, denganiño orek, oraindo beste astakeri andijagoren bat egin ete-daustaan bildurez nayagok-eta.

—¡Ba-al-dakixu arako urun zorua?

—¡Bai, ba-yakijat; ixango yauk zer ikusi!

—Ara, ba; areik arañak ugarasijuai ogija jan dautsenian, asare bixi-bixitan jari erazo dauste niri, bai, eta nik, asper egiteko, artu urun zorua ta begi-begijetara jauñti dautset urun gustija.

—Eta, ¿zergatik egin dok ori?

—¡Arañai begijak aterateko! ¡Ez ba....! Begi-begijetara jauñten ixan dautset, eta oingotz gustijak al dagoz itsurik. ¡Bayetz nago!

—Ire kokolo, tentel-mentela! ¡Ene Bertolda enia; orain bixirik ba'zengoz, ¿zer esango ete-zeunke zuk, epaira zorotzen ifuri gardena zinan orek, ergel onen astakerijak entzungo ba'zenduz? Tira, mutil, tira; gertu adi, urira juan biar yuagu-ta. Bakaldunak ikusi egin gura ei au.

—Betoñ bera ona ni ikusi gura ba'nau.

—A, bai orixe! ¡Eleuke ondo bakaldunak zuu lango jaun altsu ta aforen-sume yayo bat ikusteko, bera

zeuugana ezpa letoñ! ¡Ezegidak niri, gero, irakin eragin, ¿entzun? Neugaz juango az i, ta itxi egidak abo ori giltzapian lez, eta ezegik geyago idegi atzera etoñ artian, ¿entzun? ¡Ez niri, gero, lengunekua lez egin, abua itxiña eukifeko ta itxita eukifeko nik esan eta agindu ařen, idegi egin gura ixan euan-da!

—Eta bakaldunak ezer iñauñdu ba'daist, ¿nok erantzungo dautso nire orde?

—Neuk egingo yeutsaat eta i agoke ixilik. Itzi neuri arazo ori

Markolbe ta Bertoldin bañiro juan ziran urira, beraz, eta bakaldunenera eldurik, lausengaz eta palaguz artu zifubezen. Ba-iñauñtsan bakaldunak Bertoldin'eri ondo bixi zanentz, eta bai edo ez erantzun bairian, abua itxi-itxi eginda mutila toton eguala ikusirik, bigurtzen da Markolbe'gana eta ba-diñotso:

—¿Zer egin yako oneri niri ez erantzuteko? ¿Berbea galdu, bairba, edo zoritxañ andiren bat jazo ete-yako itzik ezin egin ixateko?

—Oba beronentzat iñoiz ezin egin ezpa'leu —erantzun eutsan Markolbe'k— edozer esateko be itzulietarra edo atzekoz-auñera baño eztaki esaten da; eta gaitz ori nora eztala, egintzak esanak baño okeñaguak dituz, eta gauñ be etxetik alde ixan nayakon bitartetxu baten erakusmeneko gaiztakerija egin daust niri onek.

—¿Zer okeñeri egin dautsu, ba?

—Ba-dakit, ene jauna, esan dagitsudanian asañe goññan jañiko zareana, ta artez be artez egingo dozu. Baña, ¿ez ete-zan obeto ixango, edonoren irigañi ixateko gu ona ekañi barik, geure mautubetan geureki-

ñian gu bixi ixaten iztia, lekubeton ibilfeko tentel-ergel batzuk baño ezkara gu ixan be-ta?

—Baña, ¿zer da mutil onek egin dautsun erakusmeneko okeñeri ori?

Orduban Markolbe'k lotsařen ozta, Bertoldin'ek egiñiko diabrukeri gustijak edestu eutsāzan: ugarasi-juai dukatak urmaelera jauñti eutsezana; ogijaz be bañdin egin ebana; añañak urunaz itsutu gura ixan ziñuzana, eta azkenez, kumak aterazoteko antzañ lokearen otzaran sañtu ixan zana. ¡Ezeban bakaldunak bañe gitxi egin eurok entzutian! Zati baten ekin eutsan aretara ta azkenian, jezañña be ezin egonda, jagi zan aulkifrik eta oindiño bañeka, ba-diñotso:

—¿Oñeik ixan ete-dira, ba, zuk esan gura ixan eztaustazuzan erakusmenkerijak? Okeñeri ixugañren bat egin ixan ete-dauan egon naz ni, baña ori ezta ezer, ene andrea. Arian be, arei pizti lotsabakuai mendu oneko ixaten irakastiaz ondo egin dauala deritxot. Ez ixan beraz ardurarik, ta urmaeleko dukaton gora-bera, eztozube auñerantzian be dirubaren peñurik ixango, ez-ta ogi naiz urun naiz bezte edozer biañ-ixan ziñegijenetik be.

—Zeuri oñetara atsegin ezkerro, eztiñok ezer, jauna, ni neu, mutil au zelakua dan eta biañ leukian zentzunik osoro eztaukala auñetijez esanda nayagotzu-ta. Baña, alan be, ezin dautsat iraun edonoren auñian zentzunbakokerijak esaten eragotiari, eta olakorik zure auñian egin eztagijan, astakerireren bat noiz jauñtingo ete-dauan bilduñaren nauko-ta, debekau egin dautsat aborik idegiñia geure etxera atzera juan ez añtian.

—Eta nik, bañiz, osterá be mutil oneri baimena emoten dautsat abua idegifeko ta beronek zelan gura itz egifeko. Eruan egidazu, beraz, bakandereagana, ak be jolas apur bat ixan dagijan. Zuakidaze bijok; eta i, Bertoldin enetxuba, andrandijen artian egon afe-nian, azkatasunagaz eta lotsabakotasunagaz berba egin ezereñ ardura barik. Uakit.





'Txafto ikusten eben andreak bere buruba, muil kankaļu arek tenka lufera bota agiņian, eta aldařika asi zan. Beinguān agertu zan aren senařa makila bategaz.....



BAKANDEREAREN AGINDUBAK

Aur, ba; juan ziran Markolbe eta Bertoldin bakan-
dereagana ta ak be ezin geyaguan artu zifuzan mañero
ta laztanik. Bertoldin, oraño, ezeguan lasa; ba-er-
bilan zerbait buruban bira-biraka. Bakaldunaren aol-
kuba andraen artian azkatasunagaz eta lotsabakota-
sunagaz berba egiteko, ezin eban ezetara uleitu, ta
ezek baño ariago axek uleitu eziñak eukan berba
barik bakanderearen aurian. Zalantzotan eragoiola,
ara non entzuten dauan bakanderearen neskame ba-
teri "Asun" defuten eutsela. Zeruba argituta ikusi
eban mutilak! Arexegaz Asun'egaz asko ta lotsabako
berba egiteko esan gura ixan eutsan, oyez, bakaldu-
nak, areik itzak bestetara ezin uleitu eikezan-da; ta
neskamia bañegañi arturik, asten yako esaten arpegi
andiz:

—¡Aguñ, Asun aspaldiko ori! ¡Ba-nayeunkana eu
ikusteko gogua! Esaiña: ¿zenbat diru emongo eunke-
na ik eure buruba makilatuta ikustiañen?

—¿Makilatuba ni? — diñotso neskamiak— Makilak
i lango astuari, lotsabako abo-andi ori.

— Ire senara ba'nintzona, aurduban ixango nintzatekena ni be asto, euki be ik astaeme-astaemiaren arpegija daukona-fa.

—¿Zer diñostak, umekondo orek? ¡Oñetik oskija atera ba'yagijat atera, buruba erdibi egingo dauat nik, gero! ¡Ako matxango buru-andija agertu yakuna berton! ¿Nongua da, ostera, etxebaruko egin gura yakun basapizti au? ¡Ut ortik, auntzak jagoten mendira!

—¿Non, baña, eu baño auntz edeagorik?

—¿Ikusten da? ¡Ago ortxe pizka baten, mosuak apurtu biar dauadaz-eta!

—Ik niri mosuak apurtu ba'dagistazana, nik iri, bari, okozpeko auntz-bixarok jan egingo daunadaz.

—¡Tira, tira; geldi nire aurian!—egin eban oyu bakandereak, liskara bat-batez ebagiteko— Eta ik, Bertoldin, esan egidak: ¿nok agindu daua iri aobeteko berbok niri neskame oneri esateko?

—Bakaldunak berak; ifaundu osterantzian, nire amari.

—¿Egija ete-da, ene Markolbe Anderea? —ifaundu eutsan bakandereak.

—Bein eta biriz esanda nayagotzube ni —erantzun eutsan Markolbe'k— bai zuri, ene bakandera mafe oeri, ta bai zure senar eta bakaldun onari, etzendubela inoiz jaseko gauzarik mutil oneganik aterako, zentzunbako maskelutzar andi bat baño eztalako nire seme au. Egin-eginian be, gaur, ona etortian, eta ergelkeririk egin ez ete-dagidan bildurez, abua itxia ekañi dot nik au.

—¿Egitan?

—Bene-benetan. Bakaldun aurian eta zure antzian abua itxifa eukifeko agindu garatzak emon dautsada nik oneri, ta ez zabalduko arik eta geure etxera biguritu artian. Baña bakaldunak, zure senarak, itz egiteko baimena emonez ganera, beroneri otu dagikijon edozer ardura barik andrai esateko agindu dautso, azkatasunagaz eta lotsabakotasunagaz —oneik ixan dira bakaldunaren berbak—; eta onek, belarrietatik, gure eskaratzeko maskeluak kirtenetik baxen ondo ulertzen dauanez, eztakit nik zer aditu ixan legikion: biarba, "Asun" deritxon baten-bateri esan-ala-ko lotsabakokeriak esan biar eutsazala; eta ain zuzen be, neskame oneri Asun defuten dautsela entzun dauanian, lotsabakotu yako, ta zeuk zeure aurian ikusi dautsazun azikera poliñaren jaube dala erakutsi dau, neure lotsagañi ta gustijon dongetsigañi.

Bakandereak estemanaste au entzueran, miaketarik leñ egin biaréz asi zan bañeka, ta gatxen batek jo ezegijan, alde bijetatik azkatu biar ixan eutsezan gorantzeko lokarriak. Onetan eragoioela, eldu zan bakalduna ta ba-diñauñ zeri ziran bañiak. Esan eutsen mutilak egiñiko nastia, eta ara, bañero gustijak bañe algaraka len baño gogozago. Bakaldunak, bañiaren -bañez ara bere begiak negañez zifuzalarik, berogetamañ dukat Bertoldin'eri emoteko agindu eutsan diruzañari, eta ama-semiakana zuzenduz, egun atakoz, eurak noiz gura etxera juan efekezala esan eutsen.

Bakandereak, agur esatian, Bertoldin'eri onu batzuk emotia eretxi eutsan zur, auñerantzian jauregiko

andrandi ta neskamiakaz nabastákeririk erabili eze-
gijan, eta ba-iñotsan:

—Ez, enetxuba. Asun nire neskamiari ik esan dau-
tsazanak etxagozak bape ondo. Ez ori, txotxo; xalo-
-xalo baño. Ba-dakik, beraz; auñerantzian xalo ixa-
tiari eutsin biar dautsak gogoz, jauregiko ekanduba
or̄exetara dok-eta.

Aguñ eta ondo ixan eta arexetara egingo ebala
abindurik, burubaz makuñkeri batzuk mendiko erara
bakandereari egiñez, juan zan ene Bertoldin amagaz.

Eldu ziran etxera, ta ezaban Bertoldin'ek buru
auste makala ixan bakandereari abindurikua ziatz be-
teteko zer egin biar ete eban igarñi eziñik! Xalo ixatiari
eldu ta eutsin egiteko gogoz, agindu eutsan bakande-
reak, eta itzokaz zer esan gura ixan ete eukijon oldoz-
tubaren-oldoztuz, buruba neke-neke eginda baratzer
urten eban axia artubaz buruba pizka bat arindu eki-
jon. Eta bestelako asazkaldija ezaban artu baratza-
ñaren emaztia an aurkifutiaz! "Xalo" esaten eutsen
andra areri Salome eritxolako, ta Bertoldin'ek bakan-
derearen aginduba berari orduxian kasketaldijak adie-
razoten eutsan letxe arturik, arexeri Xalo'ri eldu ta
eutsin egiteko esan gura ixan eutsala irudiñu yakon,
eta geyagoko barik, eraso-aldi bategaz, eldu eutsan
gona bañenetik eta asi yakan ten eta ten, otsuak ar-
dijai ekiñen dautsen baño amorutubago. Txarño ekusan
andreak bere buruba mutil kankañu arek tenka tutañez
luñera bota-agiñian eta dandañez erabili-zorijan, eta
asi zan aldañika munduko beste aldekuak be adifuteko
eran. Entzun zifuzan gañaxijok senañak, eta makila

bat arturik, ariñik-arin juañ zan zaratok ziran lekura bere andrearen aldez urteteko gertu. Eta Bertoldin'ek gona mendeletik elduta tenka bañegañi erabilela ikusirik, oratu esku bijakaz makileari eta goi-gora jasorik.... ¡Bañaban-bañabana! ¡Mutil a bakaldunaren kultura zala une atan bertan etxakan gogoratu, ba, ta bakaldunak mutil areri lotsa ta itzal andija ixateko agindurik eukotsala gomutau? Aldian eban amorubari asazkau eziñaren tamalez, beso-makilen oldañari berpertan amore emon biar ixan eutsan, eta arian be mutilak miñik artu ezegijan, arduraz, nekez eta oztaz andrearen gonetatik eskubak azkatu erazota, ba-diñotso asañari eutsin eziñik:

—¿Nok irakatsi daua iri, asto oñeri, iñoren andrainen lotsa gitxi eukiten?

—Bakandereak.

—¿Bakandereak? ¿Zer egin yeutsak, ba, nire andreak bakandereari, ik tenka dandañez erabilfeko ak iri agindu dagijan?

—Zuaz berari iñanduten, eta aurduban jakingo dozu.

Bai juañ be, baratzaña. Amoruba erijola ta gexu baterako iztiari luze eretxiña, berpertatik ariñeketan asi eta aida baten eldu zan urira, bakandereagana, ta jazorikua edestu ostian apal-apalik iñandu eutsan ia bere emazia dandañez erabilfeko agindurik Bertoldin'eri emon ete-eutsanentz. Zurizauta geldifu zan bakanderea jazokuneaz, eta ezetz erantzun eutsan, ezeutsala berak olako agindurik emon; ain zuzen be, egun atan bertan mutil areri agiraka eginda eguala, jaure-

giko neskame bateri lotsagalduriko berbak esan eutsozalako, ta uartu ixan eutsala jauregiko lagunen tartian ibilteko mendu oneko ixaten ikasi biar ebala, ta xalo ixatiari eldu ta gogoz eutsinik, alde gustijetan erakutsi biar ebala nor zan eta edonogaz gixabidetsu ta xalo agertu. —Eztautsat nik besterik aiatu —amañu eban bakandereak— eta ezelan be ezin neukijon nik esan zure emaztiari ez inongo andra garauri gonetatik eldu ta tenka dandarez erabilteko.

—¡Oi, ene bakandera enia! —egin eban oyu ordu-ban baratzañak— ¡Nire emaztiak, baña "Xalo" ixena euki!

—¿"Xalo" al-dau ixena zure emaztiak?

—Bai, andrea; bai.

—¡Ai, gaxua! Ointxe uleitzen dot. Asun nire neskamiagaz egin dauan berbera jazo yako zure emaztiagaz be.

—Eta nire andrearen ixena dala ixen, mutil arek beste naste bat egin eta ixugarizko zalapañta atera dau gure artian. Egiña egin, ene bakandera altsuba, ta zure baimenaz etxera nuake ariñik-arin, astakumatu arek andijagorik egin eztagidan.

—Zuaz, bai, eta bide batez esan egijozu Markolbe'ri alik lasteren etori dakidala ifaune bat egin dagikijodan.

Bigurtu zan baratzaña etxera, ta beste diabrukeriren bat egitia Bertoldin'eri otu ez eikijon bilduz, gela baten sartu eban emaztia ta bada-ezpadan giltza emon eutsan atiari. Sumin-sumin eginda irauan ara bere beren emaztiari eginiko irañaz, baña gustijen

artian eta emetik orako atxaki ta akiakuluren bidez, asarria ibitu erazo eutsen eta geyagoko kalte barik ezerezian geldiñu zan Bertoldin'ek sorturiko iskanbilea.

Bakanderearen gaztiguba egiñez, esan eutsan baratzañak Markolbe'ri juan eñiala jauregira al bait ariñen eta gure andrea, eskuarteke lana bertanbera itzirik, beingo baten aurkeztu zan bakandera aurian. Inoizko arerarik onena agin eutsan bakandereak, eta bere ondotxuban jezari erazo ostian, ba-diñotso mañe mañerik.

—Ene Markolbe laztan ori; esturasun baten aurkitzen naz eta zure biar ixana dot une onetan areanik urteteko.

—Biar-ixana opariñak eragiten dau. Opariña, bañiz, txiro ixatetik dator eta txirotasuna, ainbakotasunareanik. Beraz, zu, ni baño txiruago zara une onetan, nik etzafudaiako zu ezetarako biar eta zuk bai ni, ostera, zepafarako defu nozu-ta zeure buruba ain barik ikusifa. Eta ona emen, ene bakandera enia, zelan egiztau dautsudan argi ta garbi nik beñola esan neutsuna: danik aberats eta alsubena ixan aren be, ezin daikela inok esan inoren biar-ixanik eztauala inoiz ixango.

—Egija diñozu, ta siñistu egidazu eztodala eguno geyago esango inoren biar-ixana ez ixateko lain zorionik daukodanik. Baña itzi dagiguzan autobok gauñkoz, eta lagun zakidaz orain biar zafudan arazo onetan.

—Yagotzuna ta al dagidana ixan ezkerro, emen naukozu edozetarako gertu.

—Ara, ba, esan. Jai andi bat ixan genduban bart

jauregi onetan, eta emen beti oi dan lez, iñon diran abesti, jantzaldi ta erestaldijak ixan genduzan, ta bafa danik mizkeanari asazkau eragiteko beste jolaskai ta alaigari be. Guenian, jayari azken egiteko, zaldun eta andrandijen arteko jokaldi bat egitia erabagi genduban, bafukarika. Galdu eroianak, aldian eban pitxikerijen bat itzi biar ixaten eban bafuran, eta gerogarñenian, bafuratzako au norberak jaso al ixateko, nekegari bat ezarten yakon bakotxari: edo dala zerbañen pariztak edo buru egin, edo olekijak beinguan asmau ta esan, edo mafemiñezko idazkiren bat egin, edo olakoren bat. Nik be kale egin neban aldi baten, eta mafiañen-ozta daukoda erestun eder-eder bat itzi biar ixan neban bafukariz, eta jau atsekabiaren andija!: ezin ixango dot neure erestuna jaso, nekegariz igarteko ezari dausten asmaketa bateri eratara erantzun eztagijoda artian. Igarikixuna auxe baño ezta: «urik eztof eta ura dot edaten; urik ixango ba'neu, ardaua edango neuke»; baña buruba austen ekin eta ekin eragon añen, asmakixun onek zer esan gura dauan ezin dot ezetara igari, ta gauñ gabera orduko erantzun zuzenik emon ezpa'dait neure erestun eder barik geldituko naz. Zuk, Jaungoikuak emoniko adimen zoli ore-gaz, lagundu egin biar nozu; bai, añen, erantzukixuna igari dagidan eta neure bafukarija jaso al ixan.

—Ori baño ezpa'da, itzi arazo ori neure pentsudan, igarikixun ori, eñezaren-eñezez, gure mendijetako artzañak eurak be ba-dakije-ta.

—¿Eñeza dala, ta nik neuk eguno gatxagorik entzun ez?

—Beingo-beinguan esango dautsut nik, ba.


—Esan, bai, poztu nadintzat.

—Ona emen igar̄kixun oren atzalpena. Urik eztaua-
na ezta beste inor erotarija baño. Erekeak edo ibayak
edo dana-dalakuak eztakar̄tso erotea ibil̄feko adiña
urik, eta urik ixan ezian, ezin dau eyo ez garirik, ez
artorik ez ezer. Ezer eyo ezik ezin dau ezer irabazi,
eta irabazi ezik ezin dau dirurik euki ardaua erosteko,
ta ardao orde z ura edan biar̄ dau. Er̄otea erabil̄feko
lain urik ba'leu, ardaua edango leuke irabazijakaz
eta eleuke ixango ura edateko biar̄-ixanik. ¿Argi al-
-dau atzalpen au? ¿Atsegin al-dautsu?

—Indar atsegin yat, bai eguno ba'da, eta mila
esker̄ zor̄ dautsada z niretzako ilun be ilun eguan ara-
zo ori zuk oren er̄ez eta argiro atzald u daustazulako.
Zure zur̄tasunak geruago ar̄ifubago nauko, eta itz
bakotxeko irakatsl bar̄i bat emon daruadazunez, egon
zakidaz, ar̄en, nigaz apur̄ baten, zugaz berbetan jar-
dutiak atsegin andija eragif̄en daust-eta.

Eta ain guraso zur̄ekanik Bertoldin adiñako seme
txaldan batek urteñiaz eragon eutsen: eta Markolbe'k,
bar̄iren-bar̄i, irakatsi bikaña emon eutsan bakande-
reari, Jaungoikuak Beriak gafuzala adierazoteko, ez
agintza beterik ez altasun osorik eztauskula emoten
eder̄to atzaldubaz.





BERTOLDIN AIDIAN

Markolbe'k bakandereagaz urijan autubetan eragoiolarik, Bertoldin bakañik gelditu zan etxian, eta oruera urtenik, etxaguntza ganetik egaz ebiten kuñilo talde andi bat ikusi eban. Bat-batian, egaztijak atrapateko burupidia egin eban. Ba-ekijan Bertoldin'ek, nunbait, kuñiluak txarñien askara ura edaten jatzifen zirana, ta txorijoen jaube egiteko, aska aretan edariren bat ezañia egaztijai orditu erazotia baño bide erezagorik etxakan otu.

Bakaldunak emoniko mama-gozozko upeltxu bat eukan edarifegijan, eta txistuba baño ariñago araxe juanda, artu upela lepo-lepuan, ekañi aska ganera, kendu tapotza ta beingo-beinguan ardauz bete-bete egin eban askea. Au eginda, basteritu baten eskutau zan kuñiluak zer egin ete-eukien adi egoteko. Egazti gaxuak ardao gozuaren sundea asmau ebeneko aska ondora jatzirik, asi ziran mokoka-mokoka askakuari, sist, atzekatxu lenengotan; sast, urengotan ez ain kezkatu; eta gero, edari ain gozua inda atsegin ixan yaken-da, abespeluban, sisti-sasta ta dzanga-dzanga;

eta edan-alak edan ostian, edozein gixon moskoñtiren antzera, ordifū-ordifū egin ziran. Eta urdaletik gorantz etoñkijuen luñunaz buruba galdu ta anken gannian ezin egonik, asi ziran zabu-zabuka, ta bata emen jausi, bestia an erori ta urēngua arago amildū, aldi gitxigañenian ba-zirudijan il egiñik luñ jo ebela gustijak. ¡Bertoldin'en poza a ikustian! Ostuta eguan lekutik ariñeketan urtenda, eldu eutsen txorijai, ta al ixan ziñuzan kuñilorik geyen gañi inguruan banan-banan ondozkatu ta, aldian ezañteko, gañikuaz kokotetik loturik, aruaren-añoz zantzoka ta ujujuka asi zan eiza ixugañi a norbañeri erakutsi gurarik. Ain zuzen be, Bertoldin'en ama une atan etoñen urifñik, eta au ikustian, ba-joian gure mutila pozañen-pozez leñ egin birañian, amari berebixiko añerea egifēn. ¡A zan mutillaren trayea, txori gangulak gañifñik bera dindilizka dandañez eroiazalarik! Baña mutila ibili joiala, kuñiluak, antza zuñuztauriko edarija ordurako urdañian egosi egin ekijoelako-edo, euren senera etoñi ziran, eta sama estu ta arnasarik artu eziñik euren burubak ikusirik, lakijo areanik urteteko alegiñakaz, asi ziran eguak astinduten, eta eguak astindubaz, naiz-ta mutilak be alegiñik asko egin iges ezegijozan, gustijen añtian mutila bera tutañ-tutañian gora jasota, egaz egin eben moltso baten, eta ene Bertoldin gaxua be eurañkaz aidian eruan eben.

Esan dogunez, Markolbe orduxian etoñen urifñik, eta semia txorijakaz egaz yuakala ikustian, atsekabez beterik eta bildurañaren lañiz asi zan onetara aldañika:

—¡Oi, ene erukañija! ¿Zer da nik dakustana? ¡Ene

Bertoldin enetxuba; ¿zer jazo zak txorijokaz? ¿Nora ua, ene zorigogoréko ori?

—Kuríluakaz nua apalduten eta egon lasa, ama, laster naz etori-ta.

—¿Eu etori diñok, eta eruan arue? ¡Bertoldin, ene Bertoldin enia!

Markolbe'k onetara erostaka eragoion bifartian, ba-eroien kuríluak gure Bertoldin egazka, baña lenengotan uruntxu aldendu ixan aren, gerogañenian eurak edan eben etxealderantz etori ziran atzera, eta, ustekabez aurki, urmael ganetik ziar igaroeran, euren ekiñalakaz eta indaialdijakaz, kokotetik lotuta eukezan garikua eten egin eben, eta ene zorigogoréko Bertoldin txorijakanik azkatuta, beñolako lkaro erukañijaren antzera, ankaz gora ta buruz bera, urmael erdi-erdira jausi zan goi-gofik erakusmeneko braustada bategaz. Aren jausikereak uretan atera eban zarafots ixugañijaz, bañiz, urmaeleko añañak, ikaratuta, zapañt egin eben, eta zapañtadeaz beraz uretatik urtenda liorian jausi ta bertan gelditu ziran guztijak. Berari Bertoldin'eri etxakan, orañño, ezer txarik jazo. Ba-zan ibili zati baten uretan ija ifuan, ointxe azalian eta ointxe luzian, sartun-urtenka; baña tentel gustijak adu oneko ixaten ei dira-ta, azkenian, katu-ugar eginda ezetariko kalte barik urten al ixan eban urmaeletik. Eldu zan orduban Markolbe, eta semia urez ondatuta itxura negağağijan ikusirik, asi yakan ifaunka zelan ixan zan ta zelan ixan etzan jazokunea, ta ba-iñotsan.

—Ene enetxu enia, esan egidak, baña; ¿zer dala-ta eruan aue kuríluak aidian?

—¿Ez al-dakixu bakaldunak emoniko mama-gozozko upeltxuba? Arexegaz egin dodaz moskoitu.

—¡Oi, nire erukarija! ¿Zer egin daustak, etoi orek?

—¡Ba-diñotsut, ba! Txarijen askan utsifu dot mama-gozozko upeltxu oso-osua, ta kuñiluak, edari sundea asma dabeneko, jatzi egin dira, ta edan egin dabe askatik danga-danga ordituta ok egin arte. Jausi dira gero luñera ileikuak legez, eta orduban nik, ostenduta egon nazan lekutik urtenda, ¡zapral, erpia ezari dautset gustijai; eta garijaren inguruban banan-banan iminirik, garikuaz lotu dodaz aldian gustijak kokotetik, eiztarijak egifen daben lez eizea etxera ekarteko. Baña etxera bidian eta ija-ija ate onduan nagola, ¿etxataz, ba, egazti denganiñuak itzartu ta senera etori? ¡Alakorik! Asi yataz gustijak aldabatera ¡pla-pla-pla! egaz egin gurarik ta nik lotu erazo ezin, azkenian gustijen artian tutarez neu gora jasota, ¡an narue aidian egaz eurakaz! ¡Egaz egifiaren polifa, ama! ¡Arexek gariko madarikatubak uts emon ezpa'leust emon, nayago ixango neban iretargijarenera eruan ixango ba'ninduben, bariz-i....!

—¡Tira, ua etxera, neure auretik!

—Ez, ama; eztot oindiño etxera juan gura, soñekuok eguzkitan legoitu biar dodaz-eta. Zu zeu zuaz eta ekañi egidazu otzara bat. Berebixiko opari bat egin gura dautsat bakaldunari, ta ni jausijeran urmaeletik basteñera zapart egin daben arain gustijak batuta, otzara baruban eruango dautsada bakaldunari. ¡Arañok ondo artubak ixango dira, bai bein! Eta zelan atrapa dodazan entzun dagistianian, osterá, ¡ak egingo

daustaz niri txerak eta labankerijak! ¡Bařetan egingo dau, bařiz, nik asmauriko ařaintzukera bařija jakin dagijanian!

—¡Bai, benetan! ¡Ak egingo yauk bařezkua, ire leptik, tenteltzař ori! ¿Ez ete-dok euk ikusten maskelutzař andi bat azana, ta ez ganorarik, ez zentzun izpi-izpirik be eztaukana ik eure buru andi ořetan?

—Nire beste zentzun ba'zeunkoe, bai zuk eta bai munduko biztanle guztijen ařtian be, oi diran bařo askozaz obeto jazoko litzatekez jazoteko zer gustijak.

—Ezegidak niri burutik eragin geyago eure ergelkerijokaz eta jua akit etxera neure auřetik; bařiren -baři diřuat.

—Eta nik, eztodala jua gura diřotsut, bakaldunarentzat ařařak batu gura dodazalako; eta jua zakidaz etxera zeu eta ekaři egidazu ona otzara bat, osterantzian sakelian sařtuko dodaz ařain gustijak eta onexetara eruango dautsadaz bakaldunari; ¿entzun al-daustazu?

—Onek diantre onek egin egingo daust niri beronek diřostan letxe. Olako zoruentzat eztago ez eratarik ez iruntzietarik, eta andijagoren bat egin eztagidan, nuakijon etxera otzarearen bila ta ekaři dagijodazan bidebatez sořekuak aldatuteko. —Eta onetara bere burubari egiřez, etxerantz jua zan Markolbe.

Amak alde egin eutsaneko, Bertoldin'ek, sořeko gustijak erantzi, bilois-biloxik jaři ta sořekuak eguzkiřan imiři zifuzan legořtuten. Eguberdi-eguberdi ja zan eta garagařila ganera; eguzkijak jo-jo egiřen eban, ain egua galda. Urmael onduan ba-zan euliz-

kua, bariz, estatu bakotxian ixara bat baltzitufeko beste, ta Bertoldin biloistu zanekoxe, asi yakazan eulijok kiña ortik eta kiña emetik, ointxe lepuan, gero sorbaldan, urenguan besuan eta geruagogarenian edo kokotian, edo bernan, edo albuan, edo istarian; gixagaxuari ezeutsen baketan izten eta esan eikian jan egin gura ebela. Burutik eragin eutsen azkenian mutilari, ta amoru-aldi batek jota, artu zifuzan sarats adaki batzuk eta itxuski antzera sorta bat eginda, asi zan eulijai aupadaka ia burukan egin gura ebenentz; eta alde batetik astinduten zifuzaneko, beste aldera egiten eben egaz eulijak, eta jo sartadea emen eta jo sartadea an, eulijak jo bieran, bere buruba baño ezaban josten, eta azkenian, ene Bertoldin gaxua, arenbeste eulik geyago egin biar eutsela ikusirik, asi zan aldarika amari laguntza eske ta eulijai agiraka, ta ba-inuan:

—¡Etxamon, etxamon; ointxe dator nire ama ta ak emongo dautsubez! ¡Ama; zatoz arin, ama, eulijak jan egin gura nabe-ta!

Garaxijok entzueran, urten eban Markolbe'k etxetik, semiari ezpiar andiren bat jazo ixan ete-ekijon estu ta lañi, ta ara non ikusten dauan Bertoldin eskubete mimenegaz bere burubari eyuak emoten. Oratu eskubetatik eta ariñik-arin eruan eban etxera; jantzi eutsan soñian alkondara legor bat, eta gura-nai-ez eratzu egin eban oian. Urmaelera jausikereak eta eguzki galdatan naru-goritan egon eta bere burubari ezari eutsan astiñaldijak, ezeutsen bape onik egin mutilari, ta Markolbe'k semia miñez ikusirik, astirik gal-



Kufiluk dzanga-dzanga edan eben edari gozo aretarik, eta azkenian moskof-moskof eginda, gus-
tajak jausi ziran lufera.....

du baga urirantz abijau zan, osagileren bateganik aolkuba aritu ta lañi-aldi atan semia osatuteko zer egin biar eban jakiteko asmoz. Urira eldurik bakandereagana juatia otu yakon, eta aren gelara sarturik, itzalik andijenaz egin eutsan agur. Bai bakandereak be ezin adeitsubago erantzun agurari, ta ifaunka asijez, ba-diñotso:

—¿Zer zorijonek zakaz urira suzko bidiotatik eta tertzijo onetan, eguzki gori-goritan?

—Zorijonak barik, zorigaiztuak nakañ, arian be, ba.

—¡Ene! ¿Zer diñostazu? ¿Ezpiaren bat jazo yatzu, ala? ¿Bertoldin il-edo ete-yatzu ba, naigabiaz luñ jota zakustaz-eta?

—Orijondo niretzat, ene bakandera laztana, Bertoldin il ixan ba'litzat.

—¿Zergatik? ¿Orenbeste loñ emoten ete-dautsu seme oñek, etsi erazoteko?

Orduban Markolbe'k, Bertoldin'eri kuñiluakaz jazorikuak eta abar edestu eutsazan, eta bakandereak, bare gozatsu batzuk egin ostian, ba-diñotso:


—Bene-benetan, ene Markolbe Anderea; ba-daukozu zeri deskela egon, eta tamal dodaz neuk be zure atsekabiak. Baña, esan; ¿non itzi dozu bera mutila zeuk etxetik urteñian?

—Oian itzi dot ondo-ezik, abail-abail eginda, eta nik ulertzen dodanez beruenak arituta, gixagaxuak, ba, eulijakanik jaregiteko ustez, bere buruba astin-astin egin dau burutik biatzetara.

—Osagilia bialdu biar ixango yako, oñezkero, ta ak agindu dagijola osatuteko zer aritu. Zuk diñozunez

oñen minbera baldin ba'dago, axe-bidiak imiñi edo odol-atarea egin edo beste osakayen bat ezañi biar ixango yako, gatxari yagokanez. Ia; nire otseñai agin-
 ñu, ta beyuaz aida baten jauregiko osagiliaren bila, eta mandua artuta duala arin Markolbe'ren etxera Bertoldin'en osasunerako biar dañiana egin erazoteko. Zu, ene Markolbe Andereea, zuaz ointxerik etxera, osagiliaren auretik, eta laster ixango dozu a zuben etxian. Ardura barik egon eta ez lañifu; mutiak zer biar eta axe agin-
 ñuko dautso osagiliak, eta gexu baten dozu osatu semia. Ganera, jazokunok tamal artzeko baño bañe eragiteko dozuz egokijago, ta bakaldunak jakin dagixanian atsegin andija egingo dautse.

— Bai; ondo be ba-dakit zoro-ergelak iñoren atsegingari ta jolasgari ixaten dirana, etxekuentzat ondo negar-gari ixaten dira, baña. «Kanpo eder, etxian gera», esaten eban nire senara zanak. ¡Bai, ondo be! Tira; nuan etxera zure baimenaz, arazo au atonduten doguentz; baña zalantzan nago eta eztof uste nire semiak beragana osagiliari uñeratzen oñen eñez itziko dautsonik, ain da txaldana bera, biarba osagilia gaiztakerijen bat egiten yuakola uste ixango dau-ta. Dana-dala, eztedila egon etoñi barik, eta ikusijaz beraz arin dau arek nire semiak zer daukon igari; ta egin biar yakona berak ezin egin ixango ba'leu, agin-
 ñu dagis-tala neuri zer egin, eta neuk ikusiko dot gero neurekifian eta emetik-oñako trikimalakaz agin-
 ñuriko gustija zelan ziatz bete. Beraz, agur, ene Andere altsuba ta on dakixula.



OSAGILIA TA BERTOLDIN

Urten eban Markolbe'k urifik, eldu zan baña etxera, ta semia eratzoriko gelan sartueran lotan aurkifu eban ene Bertoldin. Zabaldu zifuzan leyuak eta oera ureraturik, bein eta bañiro egin eutsan dei; baña, ene Bertoldin lo-zoruan eguan, arija bera baño gogorago, ta ezeutsan erantzuten, begirik zabaldu be ezin eikian-da. Artiatan eldu zan osagilia ta a be oe ondora juanik, buru aldefik jaso eutsazan estalgijak, gexua edo gexotzakua zetan eguan ikusteko, eta orañiño gatxak naiko artuta eguala aurkifu eban. Antza, uretara jau-sikereak eta bere burubari ezañitako zigoñaldijak ezeutsen onik egin; eta osagiliak gexua obeto ikusi gurarik, ba-diñotso Markolbe'ri:

—Ara, ba, andrea; gorputz osua arakatu gura neuskijo ziatz-ziatz, eta egixu alegin iratzañteko, bestela ezin jakin ixango neuke ondo zer osakai agindu.

—Bertoldin, ene Bertoldin; ¿eztok entzuten, ala? ¡Itxañtu adi! —egin eutsan oyu amak.

—Ezin nañe itxañtu —erantzun eutsan Bertoldin'ek.

—¿Zergañik, baña?

—¿Enozu lo ikusten, ala?

—Tira, tira; naikua dok bañiketarik. Itxañtu adi, eure onerako dok-eta; osterantzian oñetatik ten eta aterako aut oetik.

—¡Oba zeunke goru makilea añtu ta gorubetan ekin, iñori alamenik emoten etoñi barik. ¡Au da bañi-bañija! Lo-zoño-zoñuan ba'nago, ¿zelan gura dozu nik neure buruba itxañtu al ixatía?

—¡Kar, kar, kar! —egin eban bañe osagiliak— ¡Bañerik egin barik berton! ¡Berbetan diñardutso ta lotan ei dago! ¡Kaikukeri andijagorik entzungo dogu oraindik!

—¿Nor da zure onduan dagon bixañdo ori? —egin eban gañaxi Bertoldin'ek— ¡Zuaz oñtik oñantz zeure auntz-bixañakaz, zeure zeregiñak egifen; eta esker egijozu ¡Jaungoikuari lotan nagolako, lotan ezpa'nengo, ba, jagi beingo-beinguan eta makila bategaz burutik bera erdibi egingo zendukedaz-da! ¡Orijondo zuretzat, ni itxañik egon ez ixatiaz!

—Egin-egiñian be, oñexen bila baño enayabilk, amutil —jardetsi eutsan osagiliak.— Tira, tira, egik lo euk gura duan añte, ta, Jaungoikuaren, ez adi itxañtu, neuk be bixi egin gura yuat-eta. Ene andrea —esan eutsan gero Markolbe'ri— ikusi dodaz emen ikusteko gustijak eta urifik bialduko dautsudaz bospasei pildu mutil oñeri buruba arindũ dakijoentzat. Akats-murtu bat ezañiko dautsazu gero berazkañitzat.....

—¿Zer? ¿Zer diñostazu ezañi biañ dautsadala?

—Uzki-kandelea, andrea; eta iru egunian goxetan muxika-muxika jateko kañabera-baltza emonaz, laster dozu mutil ori taketa bera baño senduago jañi. Zalan-

tzarik be ez ixan; eztau geyago txarik ixango, ta egon lasa. Agur.

Juan zan osagilia, eta bidian joiala, Bertoldin'en txaldankerijaz gomutatuzian berakotan urteten eutsan bañiak. A zan mutilaren tentela: berbetan inardu ta ala-ta-be lotan eguala ekifen eutsan esaten! Bakan-dereagana eldueran, kirtenkeri bañi au edestu eutsan, ta ene bakandereak, bañiaren-bañez, ija txixak egin zifuzan eta beste ainbeste jazo yakon bakaldunari be. Asazkaldi artu ebenian, bijok, batak baña bestiak leyatsubago agindu eben bialdu egijoezala Bertoldin'eri osagiliak aginduriko osakayak, eta osakayok Markolbe'k artu zifuzanian, ba-dua Bertoldin'en oerantz eta ba-diñotso:

—¿Lo al-ago, astokilo ori?

—Lo nago, lo nago —iñotsan Bertoldin'ek.

—Tira; itxañtu ta jezañi adi. Kañabera-baltz apur bat jan bial dok orain, eta gero miritza tindil bategaz egingo dauat lepua igurtzi, osatu añekian.

—¿Nik kañaberea jan? Gose dañianak jan begike; ni neuk ez.

—Kañabera-baltza dok, txotxo; gozua bera baño gozuagua. Ganera, apurka-apurka jateko diñuat. Edo euk nai ba'dok, muxka-muxkaka be bañdin jan daik, edozetara be sabeletikua egifen lagundu egingo daua-ta.

—¡Ezetz diñot! ¿Nik kañaberea jan? Zugaz emen egon dan astotzañ arek agindu ixan al-deutsu ori, ¿ezta? ¿Zergañik eztautsu esan gaztain-opil batzuk niretzat egifeko?

—Egingo dauadaz gaztain-opilok, baña ar̄tu egixak lenengo osakayok. Ara; kañabera-baltza gura ezpa'dok, ar̄tu egixak oneik lau pildubok eta gero bezkar̄i au ezar̄i, iñoiz entzun dok zelan. Pildubak gofik arinduko aue ta kandeleak, bañiz, betik.

—Ara, ama; zeuk gura dozun gustija egingo dot; baña zeuk be gero, gaztain-opilak egingo daustazuz niri, asko be asko.

—Egingo dauadaz, seme. Ona emen pildubak eta ora or̄ kandelea. Irunsi lenengo osapiltxubok, eta gero bestia ezar̄i, ba-dakixu non, ¿entzun?

—Bai ama; ekatzuz gustijak eskura.

Bertoldin'ek osakayak ondo begiratu ostian, ¡klausk!, sar̄tu eban kandelea eztañijan eta gero, poliño poliño, osapilak be-aldeetik ezar̄ten asi zan, bein banatan.

—¡Ene ba'da ta ni! —asi yakan Markolbe gañaxika au ikustian— ¿Zer dagik, asto orek? ¡Ago geldi, mutil, okeñetara sar̄tuten diñarduk-eta! Betik ezar̄tekua gofik ar̄tuko eunstan, ba? ¡Oi, ene erukañija!

Baña, bai, zera; Markolbe'k gañaxi ta diadañik asko egin ar̄en, arek tentel andijak irunsi egin eban kandelea, eta osapilak edo pildubak, bañiz, be-aldeetik ezar̄i. Arin damutu yakon, orañiño. Akatsa edo dana-dalako kandelea, oi dan lez, ezti ta abañez melaza-melaza eginda eguan, eta ore au zintzuñera eldueran kokatu egin yakon eta ezin eban egin ez gorantz ez berantz. ¡Areik ziran mutilaren esturak! Iño biañez begijak be bijoñtu egiten zifuzan, txer̄enak ar̄tuta bai'leguan, eta amak semia itxura aretan iño-agiñian ikustian, aida baten bialdu eban lagun bat urira osagilia-

ren eske, ta bakanderearen aginduz lengua etoñirik, eztakit-nik-zer bat emon eutsan edaten mutilari eta beingo-beinguan jauñti erazo eutsan eztañirik kokaturiko kandlea, goñika eragiñez. Baña, ¿zer jazo? Mutilaren okadearen indañaz tximistea legez urten eban kandleak eztañirik, eta ene osagile gaxua begi-begijan aparaurik, otxolotuta itzi eban, eta onez ganera mutilari bañutik etoñi yakazan beste zerak be arpegi-arpegijan jo eben eta ore-ore eginda bixañetan gelditu yakazan. ¡Ixan eban loñik asko ene osagile gixagaxuak eurok kendu eziñik! Bein eta bañiro ekin biar ixan eutsan arpegi-bixañak garbituten, eta guenian, amuru biziñan biguñtu zan etxera, añen-urtika, zoruakañik eta basa-pizti zoro arengana bialdu ebanaren ala iñon diran txakuñkerijak esaten.

—¿Da? —esan eutsan Markolbe'k mutilari— ¿Zelan ago orain?

—Ondo, ama; baña eskatu dautsudazan gaztain-opilak egin dagistazuzanian askozaz obeto egongonaz, aurki.

—Bai, beintzat; irabazi be egin dozak-eta eure jasagaz, maskelutzañ orek. Osagile gixagaxua itsututa itzi dok ik.

—Ez etoñtia eukan. Nik eztautsat defu beñipein.

—Ba-yakijat ik defu eztautsaana. ¿Zelan egingo euan, ba, berba-egifeko-tresna ori tapotzaz itxifa euki dok-eta?

—Baña a tapotza zintzuñian lotuta euki dodan biñañtian, besterik ezian, eztot gosez ilñeko bilduñik ixan, eta orain bai, bañiz. Beraz, ni bixirik euki gura ba'no-

zu, egidazuz ointxe-ointxe ogetabost gaztain-opil gitxienez, makalaren-makalez zutunik be ozta-ozta nago-ta.

—Ointxe berton egingo dauadaz, ba, ta aseko al-az. ¡Zorigogoréko elorijuak yuadaz eugaz, beintzat!

Markolbe'k, bakerik ixatekotan, egin egin-biañ ixan eutsazan gaztain-opilak mutilari, eta bai Bertoldin'ek jan batxu bat be itzi barik. Eta sabela ondo beteta, zumañ baten azpijan etzan zan eta luak arñu eban. Arñiatan, bakaldunak mutilaren bila bialdu eban zalpuñdi bat, eta bere aurera eruan eutsenian, ba-diñotso:

—¿Zelan ago, aspaldiko Bertoldin ori?

—Zutunik emen orain.

—Ba-yakusat; baña, zelan aurkitzen ete-azan esan gura yuat: ezer nabaitzen duanentz.

—Bai; kanpak joten diñardubela nabaitzen dot.

—Miñik ete-duan, diñuat.

—¿Miñik ixan ez, ostera? ¿Zelan egingo neuke berba, bestela, min barik?

—Gogaro ona dakak, orañño. Tira; eruan egidazube mutil au bakandereagana.

—Ez; ekañi egidazube bakanderea neugana.

—Tira, tira, mutil; juan adi oréikaz eta ez adi ezereñ bildur' ixan.

Eruan eben bakaldunak gura ixan eban lez, eta bakandereak, Bertoldin ikusi ebaneko, ba-diñotso:

—¡Aemen gure aspaldiko Bertoldin jauna! ¿Zetan yñarduguk, ene Bertoldin laztana? Gexorik ibili azala entzun yuat. Ez al-euan txaragorik ixango, ¿ezta?



—Gorputza baño astunago dot buruba, ta denduna galduta kakaranzulo egin dot asto ganetik beianganera.

—Gexo nagolarik, enaz ni ibili ixan, ibili al ixateko zutunik egon biar ixaten dalako, ta arian, ni oian eratzota euki nabe.

—¡Eure bixi-bixiko onduen erantzuna, txotxo! Ots, ene otseñak; eruan egidazube mutil au askarija artzen. ¿Non zafut zu, ene Pilander zintzo ori?

—Emen nayagotzu, ene bakandera txit argi ori.

—Eruan zeugaz mutil moñosko au ta emon askarija. Tira; juan arin.

Aur, ba; eruan eban Pilander'ek ene mutila janaritegira, ta ogija ta solomo zeña batzuk emonez eta ardao onenetik edan eragiñez, edertoso egin eban askaldu. Juan zan atzera bakandereagana ta ba-ditauntso arek:

—¿Ondo askaldu al-dok?

—Bai andrea; bai.

—¿Zer emon daue onik?

—Lomosua ogijagaz.

—¿Zer?

—Somolua.

—Eztauat uleretan.

—Molosua.

—Areago.

—Mosolua emon daustela diñotsut. Argi berba egifen ete-dodan nago, ta bañero diñotsut mosolua jan dodala. ¿Uleřtu al-daustazu oraingotan?

—Baña, ¿zer ixen edo mixen dozak, oster, lomo-so-somolo-lomoso-mosolo oreik? Etxakijat zer esan gura duan eta euk dakijanik be etxuat uste.

—Ene bakandera argi ori, solomua jan dauala esan

gura dau txatxal onek —atzaldu eban Pilander'ek—
 ¿Zertzuk esan difuz beronek, gero, ixen ori artez ogu-
